

HERRITARTASUNAREN, IMMIGRAZIOAREN ETA ASILOAREN KULTURARTEKO VI. PLANA 2022-2025



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

HERRITARTASUNAREN, IMMIGRAZIOAREN ETA ASILOAREN KULTURARTEKO VI. PLANA 2022-2025

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1.a, 2022ko otsaila

Ale-kopurua:

300 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazio Zuzendaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Inprimaketa:

XXXX

L.G.:

xxxxxxx



AURKEZPENA

ERREALITATE FINKATU BATI BESTE BULTZADA BAT EMATEA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu naizen aldetik, atsegin handiz aurkeztzen dut Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025). Plan horrek aurreko planean (Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020) proposatzen ziren ildo estrategikoak berresten ditu, eta hamarkada honetan gida izan beharko luketen ildoak aurreratzen ditu, nola immigrazio- eta asilo-politiketan koherentzia-esparrua berma dadin, hala bizitoki-herritartasunaren oinarriak finka daitezen.

Asmo handiko helburua denez gero, Plana ez dator bakarrik. Legealdi honen hasieran hasi zen Planaren habeak eraikitzen, erakundeak indartzearekin eta, ondorioz, immigrazioaren eta asiloaren arloetarako zuzendaritza izendatzearekin. Era berean, immigrazioa eta asiloa elkartzea oso neurri egokia izan da. Erakundeen bultzada horrek gero eta politika konplexuagoak inplementa daitezen erraztuko du, gero eta askotarikoagoa den euskal gizartearen erronka ugariei aurre egite aldera.

Migrazioa edo giza mugikortasuna aniztu eta konplexuagoa egin da, eta inplementatu beharreko neurriek errealitate berri horietan sortzen diren premiei erantzun beharko diete. Pandemiak erakutsi du migratu duten pertsonen jarduerak funtsezkoak direla eta, Migraziorako Euskal Itun Sozialean proposatzen denez, ezinbestekoa dela *“jaso nahi genukeena eskaintzea”*.

Immigrazioa azkar desegiten ari da, arreta sozial eta mediatiko handiagoa erakartzen duten bestelako mugikortasunen ondorioz, hala nola, babesarekin lotutako migrazioa, iragaitzazkoa edo adingabeek eta gazteek familia-erreferenterik gabe egindakoa. Mugikortasun horietako bakoitzari bere ezaugarrien eta muntaren arabera erantzun beharko zaio. Hala eta guztiz ere, plan berriak ikusgarritasun handiagoa eman nahi dio Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako immigrazioari, orainari begira, baina baita etorkizunari begira eta pertsona horiek euskal lurraldean izango dituzten ondorengoei begira ere. Horrek erronka handiak planteatzen ditu, bai pertsona horiek gizartean, lan-munduan eta hezkuntzan izango duten integrazioari erreparatuta, bai hizkuntza-integrazioari erreparatuta.

Aurkezpenean esaten denaren ildotik, gero eta kultura-aniztasun handiagoko errealitate estruktural batean gaudenez gero, Euskal Autonomia Erkidegoak eredu zehatza behar du kultura-aniztasun hori kulturartekotasunean oinarrituta kudeatzeko —tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan, diferentziarako eskubidean eta interakzio positiboan oinarrituta—. Hartara, VI. Planaren bidez, gure lurraldeak aniztasun soziokulturalaren kudeaketan izango dituen erronka handiei erantzun nahi zaie. Ildo horretatik, planak lau elementu estrategiko ditu: Migraziorako Euskal Itun Soziala, Euskal Harrera Eredua, Euskarri estrategia (familia-laguntzarik ez duten adingabe eta gazte atzerritarrak) eta atzerritar jatorriko emakumeen errealitate soziala —garrantzi berezia duen kolektiboa den aldetik—. Era berean, neurri sektorial asko proposatzen dira, eta Migrazio eta Asilo Foroa aldatzea ere bai.

Sinetsita nago erakunde-egitura egokiak finkatzen ari garela eta etorkinen gizarte-integrazio sendoa lortzeko politikak ezartzen ari garela. Hori dela eta, pertsona eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditut gure eginkizunean eta plan honen garapenean laguntzera, eta plana egiteko prozesuan parte hartu zutenean eta ekarpenak egin zituztenean azaldutako gogo bizi berberarekin egitera.



Beatriz Artolazabal Albeniz
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako
sailburua

SARRERA

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plan honek (2022-2025) aurreko Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planak (2018-2020) ezarritako ildoari jarraitzen dio. Hala, ibilbide ertain eta luzeko lan-ildo estrategikoak ezarri nahi ditu, aurreko planaren esparruan hasitako ekimenei jarraipena emate aldera.

Nolanahi ere, VI. Planak beste urrats bat egin nahi du, eta aurrez finkatuta dauden ildoetan sakondu nahi du. Horretarako, nazioarteko migrazioen eta asiloaren esparruan Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduaren eraikuntzan aurrera egin nahi du, eredu horrek aldaketa demografiko, ekonomiko, sozial eta kultural handia ekarri baitu. Eta hori guztia kulturartekotasunaren estaldura kontzeptual zehatzaren mende egingo da, gero eta kultura-aniztasun handiagoaren kudeaketa arrakastatsurako aukerarik demokratikoena den heinean.

Plan honen edukia arintze aldera, ez dugu erreplikatu Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren (2018-2020) aurkezpenean Eusko Jaurlaritzak arlo horretan egin dituen segidako planen ildoari buruz aipatutakoa (8. eta 9 orriak).

Era berean, ez dira aurreko planean (5. orria eta hurrengoak) aipatzen diren alderdi historikoak erreplikatu, baina VI. Plan honen asmoa hobeto ulertzeko funtsezkoak iruditzen zaizkigun ideia batzuk nabarmenduko ditugu:

- 1 Immigrazioa gertakari estrukturala da. XXI. mendearen hasieratik hasi ziren Euskal Autonomia Erkidegora atzerritar jatorriko pertsonak iristen, eta gaur egun euskal gizartearen parte adierazgarria dira. Estatistika Institutu Nazionalak emandako informazioan oinarrituta, Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) prestatutako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 11,¹ atzerritar jatorrikoa da. Eta dauzkagun zantzu eta ebidentziek adierazten digute datozen urteetan ere immigrazioa jasotzen jarraituko dugula, aurreko urteetan gertatu den bezalaxe, baita immigrazioarako hain kaltegarriak izan diren testuinguruetan ere —hala nola 2008ko krisi ekonomiko handia eta 2020-21eko osasun-krisi larria—.

Atzerritar jatorriko immigrazioa ez da aldi baterako fenomeno soziala edo fenomeno koiunturala, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate estrukturala baizik.

- 2 Gero eta kultura-aniztasun handiagoa eztaba daezina da. Atzerritarren immigrazioak areagotu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak lehendik zuen ezaugarri bat: aniztasuna. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak XXI. mendearen hasierakoak baino kultura-aniztasun handiagoa du. Eta aniztasun hori gero eta handiagoa izango da, atzerritar jatorriko etorkin gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan geratu nahi baitute. Datuek horixe berresten dute; Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak egindako Etorkin Atzerritarrei buruzko 2018ko

1 2021eko urtarilaren 1eko erroldako datuak dira. Ikus Immigrazioaren Euskal Behatokiaren (Ikuspegi) web-orria.

Inkestak adierazten duenez², atzerritar jatorriko pertsonen % 84,1ek etorkizunean Euskal Autonomia Erkidegoan geratzeko asmoa du.

- 3 Euskadik gero eta kultura-aniztasun handiagoa kudeatzeko eredu bat behar du. Izatez, migratzaileak eta beren herrialdeetatik ihesi nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonak bertara etorri, bertan finkatu eta errotzearen ondoriozkoa da kultura-aniztasun hori. Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek ez dute argi eta garbi ezarri zein izango den aniztasuna kudeatzeko beren eredua. Nolabait modu tazituan, kulturartekotasuna aukeratu da, edo aukera egokitzen jo da, kultura-arloan askotarikoak diren taldeen aniztasuna modu demokratikoan eta zuzen eta berdintasunez kudeatzeko.

Aditzera eman behar da Eusko Jaurlaritzak kulturartekotasuna aukeratu duela kultura-aniztasuna kudeatzeko estrategia gisa, plan honen edukian aurrerago azalduko dugun moduan.

Kulturartekotasuna ardatz hartuta, plan honen helburua da Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduearen eraikuntzan erabakimenez aurrera egitea. Horretarako, etorkinak hartzeko bideak ezartzera eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiak —haien jatorria, nazionalitatea eta/edo etorkia edozein izanik ere— eraginkortasunez gizarteratzera zuzenduko diren mekanismoak jarriko dira abian.

- 4 Atzerritar jatorriko pertsonak gizarteratzeko prozesuak zenbait dimentsio ditu, eta segmentatua, asimetrikoa eta askotarikoa da. Garai hartako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoak egindako Etorkin Atzeritarrei buruzko 2018ko Inkesta aztertu ostean, aditzera eman dezakegu gizarte-integrazioa dimentsio askotariko prozesua dela (oinarrizko zazpi dimentsio) eta, prozesu horretan, garrantzi berezia dutela lanaren, gizarte-ongizatearen eta egonkortasun ekonomikoaren dimentsioek.

Datuei esker, ondoriozta dezakegu atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze globala desberdina dela, pertsonen arabera eta/edo pertsona taldeen edo kolektiboen arabera; hortaz, ondoriozta dezakegu gizarteratzea prozesu segmentatua dela.

Datuen arabera, prozesuaren amaierarantz oreka lortzen den arren, pertsona eta/edo talde batek jarrera asimetrikoak izan ditzake gizarteratze-prozesu globalaren azpian dauden dimentsioetan.

Azkenik, Etorkin Atzeritarrei buruzko 2018ko Inkestatik lortutako datuek eta ondorioek pentsarazten digute gizarteratzea, agian, era askotara uler daitekeela eta prozesuek ez dutela zertan gizarteratze modu bakar batean orekatzen amaitu —izatez, prozesuak asimetrikoak dira ibilbidean eta erritmoan—. Agian, pentsatzen hasi behar dugu gizarteratzearen emaitzak askotarikoak izan daitezkeela, atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo taldeen arabera, eta ez dutela zertan multzoaren oreka behar. Hortaz, gizarteratzea taldeen arteko segmentazioak, asimetria multidimentsionalak eta integrazio anizkoitzak ezaugarritzen dutela aintzat hartzen duen teoria berresten da.

Hori guztia, jakina, etorkinek zein bertakoek parte hartzen duten eta ekarpenak egiten dituzten testuinguru dialektikoan eta noranzko bikoan.

Garrantzitsua da, halaber, orduko Familia Politikarako eta Aniztasunerako Zuzendaritzak 2018-2020 aldirako V. Plana diseinatu zuenez geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen gertatu diren aldaketak kontuan hartzea, aldaketa horiek VI. Plan honetan islatuko baitira.

² Estatistika-eragiketa ofizial hori —Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren Etorkin Atzeritarrei buruzko Inkesta— lau urtean behin egiten da. Argitaratutako azken datuak 2018ko azterketak emandakoak dira.

- 1 Iragaitzazko migrazioaren hazkunde handia. 2018ko udan, gure lurraldean ohikoa ez den fenomeno gertatu zen: Afrikatik datozen eta gehien bat Europa erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetara edo Britainia Handira joan nahi duten iragaitzazko pertsonen migrazioaren hazkundera.

Migrazio-mugimendu horietarako biderik ohikoena ixtearekin —Italiako pasabide nagusia, Lampedusa barrena—, ekialdeko bideak eta iberiar penintsulako itsasartean zeharreko pasabidea dinamizatu ziren.

Iragaitzazko migrazio horren hazkundeak gure lurraldean mugitzeko beste modu bat eragin zuen, nahiz eta lehendik ere bazegoen; izatez, Irun ohiko mugako pasabidea izan da Afrikatik datozen pertsonentzat. Pertsona hauei Frantziako muga ixteak aldi baterako harrera-premia oso larriak eragin zituen (bizitokia, mantenua, arropa, eta abar).

Une horretatik aurrera, eta 2019an Italiako bidea berriz irekitzearekin, Afrikatik datozen pertsonen iragaitzazko migrazio-fluxuak txikiagoak izan diren arren, 2020an eta 2021ean —Covid-19aren pandemiaren ondorioz— iragaitzazko migrazio-mugimenduak ugaritu egin dira udan, eta behar-beharrezkoa da pertsona horien premiei helduko dien erakundeen erantzuna.

2021ean, bereziki garrantzitsua izan da Kanarietako krisia deiturikoa. Afrikar jatorriko pertsona asko iritsi zen uharteetara, eta, ondoren, Madrilera eta/edo Irunera, Frantziarako, Europa erdialderako, Europa iparralderako edo Britainia Handirako bidean.

Euskal Autonomia Erkidegoan, datozen urteetan ere ikusiko ditugu iragaitzazko migrazio-mugimendu handi horiek, afrikar jatorriko pertsonak iristen jarraituko baitute, familiakoekin edo lagunekin elkartzeko asmoz, edo, besterik gabe, Europako beste herrialde batzuetan bizi-proiektu berri bati ekiteko asmoz.

- 2 Asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen kopurua handitzea. Azken urteotan, migrazio behartuen ondorioz, hazi egin da gure lurraldean nazioarteko babesa eta asiloa eskatzen duten pertsonen kopurua. Deigarria da Venezuelatik datozen pertsonen kasua, baina, Afganistango azken gertakarien ondorioz, gerta daiteke herrialde horretako asilo-eskatzailerik gehiago ere izatea.

Aurreikus daiteke datozen urteetan ere handitu egingo dela nazioarteko babesa eta asiloa eskatzen duten pertsonen kopurua —nazioarteko gatazken ondorioz, pertsonen mobilizatzeko gaitasun handiagoa izatearen ondorioz eta balizko helmugei buruzko informazio gehiago eta hobe erabiltzearen ondorioz—.

Klima-alaketak eragindako ondorioek, halaber, pentsarazten dute pertsona lekualdatuen eta migrazio-prozesuen kopurua handituko dela.

Horrek guztiak eraginda, kontuan hartu beharko dugu Europako mugak kanpora ateratzeak eta immigrazioa arma politiko gisa erabiltzeak, epe luzera, Euskadin ere eragina izango duela.

- 3 Familia-laguntzarik gabeko adingabe eta gazte atzerriarren kopuruaren hazkundera. Azken urteotan, halaber, gero eta gehiago dira gure lurraldera iristen diren familia-laguntzarik gabeko adingabe eta gazte atzerriarrak, batez ere Ipar Afrikakoak. Adingabe eta gazte horiek zaurgarritasun-egoera pertsonal berezian daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak betetzen ari dira gure lurraldera iristen diren adingabeen babesaren arloko beren betebeharrak, eta kolektibo horri berariaz zuzendutako ekimenak eta ekipamenduak abian jartzen ari dira. Adin nagusiko izanik ere, oso gazteak diren pertsonak beste kontu bat dira, gazte horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek ad hoc erantzuna behar dute.

- 4 Immigrazio normalizatuak gizarte-agendan protagonismoa galtzea. Azken urteotan, immigrazioa ikusezin bihurtzen ari da gizarte-fenomeno gisa eta euskal gizartearen kultura-aniztasun gero eta handiagoaren elementu nagusi gisa.

Lehen aipatutako fenomenoak, hala nola iragaitzazko migrazioa, familia-laguntzarik gabeko adingabe eta gazteak eta asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonak, kezka eta larrialdi politiko eta sozialen erdian kokatzen dira. Immigrazioa, ordea, hain larrialdi handiko fenomeno ez den arren, funtsezkoa da etorkizuneko Euskal Autonomia Erkidegoa aintzat hartu nahi badugu.

Izan ere, errealitate nagusia etorkinen eta haien familien gizarteratzea da, eta arreta berezia jarri behar zaio emakume zaintzaileei eta immigrazio horren euskal ondorengoei. Arreta politiko eta sozial bereziaren ardatz nagusiak izango dira: batetik, askotariko arloetan dituzten premiak (lana, bizitokia, hezkuntza, osasuna, gizarteratzea, hizkuntza, legea eta abar) eta, bestetik, atzerriartasunari buruzko egungo legediak eta Europar Batasuneko pertsonen eta haien senideei buruzko Espainiako Estatuko legediak ezartzen duten estatus juridiko bereziaren ondoriozko administrazio-arazoak (burokrazia, eskubide bereizien hedapena, bizileku- eta lan-baimenak...). Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak premia eta arazo horiei behar bezala erantzuteko izango duen ahalmena, beraz, bihurtuko garen gizarte motaren mende egongo da.

- 5 2020-21ean, Covid-19aren pandemia eta horren ondorio ekonomikoak. Azken 100 urteetan munduan izan den pandemia eta osasun-krisirik handienaren aurrean gaude. Euskal Autonomia Erkidegoa ez dago oraindik gainean dugun osasun-krisiaz salbu. Osasun-arazoa kontrolatzen hasi dela dirudienean —batez ere pertsona guztien txertaketari esker—, albo-ondorio ekonomikoak azaleratzen ari dira, eta, beste krisi batzuetan bezalaxe, krisi honek ere eragin handiagoa du lan prekarioak dituzten pertsonengan, kontratu-egonkortasun txikiagoa dutenengan, ezkutuko ekonomian presentzia handiagoa dutenengan, diru-sarrera txikiagoak dituztenengan, ezustekoei aurre egiteko aurrezki gutxiago dutenengan, dokumentazio- edo administrazio-egoera okerragoak dituztenengan, laguntzako kapital sozial txikiagoa dutenengan, lan-mugikortasun txikiagoa dutenengan, eta abar.

Krisi honen hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-eragile guztiek aho batez aldarrikatu zuten pertsona guztiak aterako ginela krisitik, ez zela inor atzean geratuko. Orain, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-arazoa gehiago edo gutxiago kontrolatuta dagoela ematen duenean, ikusiko dugu ondorio ekonomiko larrienek eraginik handiena, batez ere, gizarte-estratifikazioaren beheko aldean dauden pertsonengan ote duten, beste krisi batzuetan gertatu den bezalaxe.

2008ko krisi ekonomikoarekin, ikusi genuen gizarte-desberdintasunak handitu egin zirela; gizarte-kohesioa indartzera bideratutako Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen esku-hartzerik gabe, espero daiteke osasun-krisiak eta haren ondorio ekonomikoek areagotu egingo dutela gizarte-arrakala.

- 6 Diskurtso xenofoboengorakada. Eskuin erradikaleko alderdiak agertzeak eta finkatzeak, batez ere Espainiako politikan, baina baita Euskal Autonomia Erkidegoko politikan ere, jarrera eta portaera arrazistak eta xenofoboak legitimatzeko bozgorailua ekarri du, baita beste diskurtso diskriminatzaile batzuk ere.

Gizartean zilegitasuna duten eragileek —hala nola Madrilgo Kongresuan eta Eusko Legebiltzarrean ordezkartza duen alderdi politiko batek— inpunitate-espazioak irekitzea eta, hartara, argi eta garbi legearen aurka dauden jarrera eta portaera arrazista eta diskriminatzaileak zuzitzea, onartzea eta bultzatzea arriskutsua da bizikidetzat demokratiko, zuzen eta solidarioarako —izatez, legediak pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ezartzen du, edozein arrazoi tarteko (besteak beste, jatorria, sexua, sexu-orientazioa, eta abar)—.

Diskurtso intolerante horiek hedatzea eta ordezkaritza politiko garrantzitsua duen alderdi politiko batek diskurtso horiek legitimatzea mehatxu handia da bizikidetzarako eta aniztasuna kudeatuko duen Kulturarteko Euskal Eredua finkatzeko, oinarriak dinamizatzen baititu, batez ere berdintasun-printzipioa, baina baita desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioa eta interakzio positiboa sustatzeko printzipioa ere.

Erakundeen lana da, halaber, diskurtso horiei aurre egitea, jarrera horiek aldatzea eta portaera onartezinetarako inpunitate-espazioak ixtea, horrela lortuko baita elkarbizitza hobetzea, interakzio positiboko espazioak bultzatzea eta pertsona guztiek euskal gizartea eraikitzen modu aktiboan parte har dezaten sustatzea.

Prozesu sozial horiekin batera, immigrazioaren arloan eta aniztasunaren kulturarteko kudeaketaren arloan ondorio garrantzitsuak izan dituzten gertaerak ere izan dira. Hauek nabarmen daitezke:

- 1 Share proposamena. Eusko Jaurlaritzak 2018ko irailaren 19an jakinarazi zuen proposamen hori. Aste batzuk geroago, urriaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak proposamen hori bera aurkeztu zuen Eskualdeetako Europako Batzordearen osoko bilkuran.

Ekimenak proposatzen du mekanismo zehatz bat adostu behar dela errealitate zaurgarrienetako migrazio-erronkaren gaineko erantzukizuna parteka dadin. Baterako erantzukizuneko proposamen bat da.

Ahalegina banatzeko formulak hiru parametro ditu oinarri: diru-sarrera fiskala (edo batez besteko errenta erabilgarria, edo barne-produktu gordina), % 50; biztanleria, % 30; eta langabezia-indizea, % 20.

Share proposamena pentsatuta dago gutxienez hiru gai-esparrutan zeharka proiektatzeko: errefuxiatuak; migrazio ekonomikoa, larrialdi- eta/edo zaurgarritasun-egoeretan; eta familia-laguntzarik gabe migratzen duten adingabeak edo gazteak. Era berean, hiru lurralde-esparrutan proiektatzen dira: Europar Batasunaren barruko estatuen artean; estatu bakoitzaren barruko eskualde edo autonomia-erkidegoen artean; eta eskualde edo autonomia-erkidegoen barruko udalerri edo eskualdeen artean.

Proposamen hori, beraz, zeharkakoa da; hori da haren berritasunik handiena, baina baita Europako estatuz azpiko gobernu batzuek estatuetoako gobernuari eta Europako erakundeei konpromiso hori beren gain hartzeko prest daudela helaraztea ere.

- 2 Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Mundu Ituna. Adierazitako gertakariekin batera, 2018ko abenduan, Nazio Batuek Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Mundu Ituna onartu zuten. Itun hori Nazio Batuen Erakundeko 152 herrialdek sinatu zuten eta “migrazioen fenomenoak kudeatzearen arloko nazioarteko itun sozial baterako oinarriak” finkatzeko lehen urrats historikoa izan zen (Lorenzo Cachón, 2019, 12. orrialdea). Eta “munduko herritartasuna eraikitze garrantzi handiko tresna” gisa aurkeztu zen (Cachón, 2019, 23. orrialdea).

Cachón-ek aditzera ematen duenez, “itunak hiru agindu nagusi ditu: a) pertsonak beren etxeak uztera behartzen dituzten faktore negatiboak murriztea —faktore horietan sartzen dira pobrezia eta aukerarik ezetik, klima-aldaketaraino— eta haien bidaiei kalteetatik babestea; b) migrazioak pertsonen, komunitateen eta jatorrizko eta helmugako herrialdeen etar diezazkiekeen onurak handitzea; c) migrazio-prozesuan ordena jartzea, migrazioaren eskala eta dinamika hobeto ulertzearen bidez, politika eraginkorragoen bidez eta nazioarteko lankidetzaren bidez” (Cachón, 2019, 62. orrialdea).

Espainiako estatuak ere sinatu zuen itun hori.

- 3 Migraziorako Euskal Itun Soziala. Ondoren, eta aurrekoaren ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak bat egin zuen lehendakariak 2019ko azaroan jendaurrean aurkeztutako Migraziorako Euskal Itun Sozialarekin.

Itun hori, beraz, kultura-aniztasuna kulturartekotasunaren ikuspegitik kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eragile sozial gehienek asmo- eta konpromiso-adierazpena da: tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, beste pertsona batzuen desberdintasunarekiko errespetua, eta interakzio positiboaren sustapena.

Hori garrantzi handikoa da, eragile sinatzaileak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko eragile sozial gehienak (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, udalak, alderdi politikoak, sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, gobernuz kanpoko elkarteak, unibertsitateak, eta abar) indarrean dagoen legediaren arabera eta herritarren etika demokratikoaren arabera jokatzera behartzen eta konprometitzen baititu, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi garenon eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

Azken batean, itun hori bizikidetzarako konpromiso komuna da.

- 4 Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza sortzea. Urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak (Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua) 15.2 artikuluan jasotzen du Migrazio eta Asilo Zuzendaritza sortzea.

Migrazioaren eta asiloaren arloko zuzendaritza espezifikoak sortzeak aitortu eta indartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek kultura-aniztasuna kudeatzeko eta bertan bizi diren pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituzten gizarteratze-politika publiko parte-hartzaileak eta demokratikoak bultzatzeko egiten duten lana.

- 5 Espetxeen eskumenaren eskualdaketa. Eusko Jaurlaritzak 2021eko urrian bere gain hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeen kudeaketa —Zaballa (Araba), Basauri (Bizkaia) eta Martutene (Gipuzkoa)—. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoak 1.387 preso kudeatzen ditu (778 Zaballako espetxean, 326 Basaurikoan eta 283 Martutenekoan). Preso horietatik 80 emakumeak dira. Eskualdaketa, nolahi ere, espetxeen kudeaketara mugatzen da, eta, hortaz, ez du barnean hartzen espetxe-politika, Gobernu Zentralaren esku jarraituko baitu.

Eusko Jaurlaritzak ezarri nahi duen kudeaketa berriaren ardatzak dira genero-ikuspegia, biktimen arreta eta giza eskubideen babesa. Azken helburua da presoak prestakuntzaren bidetik gizartera daitezen eta lan-mundura daitezen lortzea. Horretarako sortu da presoak lan-munduratzea helburu duen Gizarteratzearen Euskal Agentzia (Aukerak).

- 6 Atzeritartasunari buruzko Legearen aldaketak. 2021eko urrian argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) urriaren 19ko 903/2021 Errege Dekretua. Dekretu horrek aldatzen du atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, 2011ko apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretu bidez onartutako 520/2009 Lege Organikoaren erreformaren ondoren.

Aldaketa horrek (zehazki Erregelamenduaren 196., 197. eta 198. artikuluen aldaketak) amaiera ematen dio familia-laguntzarik gabeko adingabeen eta tutoretzapean egondako gazteen gizarteratzea eragozten zuen egoerari. Aldaketari esker, prozedurak erraztu dira eta araua Europako beste herrialde batzuetako arauarekin homologatu da. Arau-aldaketak, besteak beste, saihestuko du atzeritar jatorriko eta familia-laguntzarik gabeko gazte asko, adin nagusitasunera iristean, irregulartasunean egotea.

- 7 Immigrazio-eskumenaren eskualdaketa. Pentsatzekoa da plan hau indarrean dagoen bitartean Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko dela immigrazio-eskumena. Transferentziaren helburua izango da atzerriartasunaren arloko jarduketa betearazleei hertsiki lotzen ez zaizkien administrazio-jarduera guztiak bere gain hartzea (mugen kontrola, egoitza, lana eta atzeritarren zehapen-araubidea), betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-tituluetan sartzen badira (osasuna, gizarte-ongizatea, erkidegoaren garapena eta lana)³.

Zehazki, eskualdatu beharreko funtzioek eta zerbitzuek hau eragingo dute: 1) Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen harrera, arreta soziosanitarioa eta orientazioa; etorkinen gizarteratze-politika; eta integrazio soziala, ekonomikoa, linguistikoa eta kulturala; 2) Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten atzeritarren lan-baimenei buruzko lan-legedia betetzea, ikuskapena eta zigorra barne.

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren (2022-2025) bidez erantzun nahi zaie gure lurraldean kultura-aniztasunari aurre egiteko erantzun beharreko erronka handiei, aldaketa eta mugikortasun sozial handiko testuinguru dinamiko batean. Planak lau elementu estrategiko hartzen ditu kontuan:

- Migraziorako Euskal Itun Soziala.
- Euskal Harrera Eredua (asiloa barne).
- Euskarri estrategia (familia-laguntzarik gabeko adingabe eta gazte atzeritarrak).
- Atzeritar jatorriko emakumeen errealitate soziala, garrantzia berezia duen kolektiboa den heinean.

Gainera, planak kultura askotarikoak diren kolektiboen harrera- eta integrazio-sistema osatzen duten piezak sendotu eta indartzeko zenbait antolakuntza-elementu jorratzen ditu, eta, hartara, kolektibo horien sinkronia eta koordinazioa hobetzen du.

Horrez gain, lehentasunezko zenbait esparrutan neurriak proposatzen ditu, hala nola hezkuntzan, enpleguan, bizikidetzan eta hizkuntzan, baita beste esparru osagarri batzuetan ere, hala nola osasunean, etxebizitzan eta arlo juridikoan.

Azkenik, erabaki politikoak, sozialak eta ekonomikoak hartzean ziurgabetasuna murriztuko duten laguntza ekonomikorako (dirulaguntzen lerroak) eta kalitateko informaziorako (ikerketa) neurriak ezartzen ditu.

Aurkezpen hau amaitzeko aurreko planaren ebaluazioaren gakoak aurreratu aurretik, garrantzitsua da jasota uztea aniztasunaren kudeaketa hori indarrean dagoen legediak mugatzen duela. Legedia horren barruan, aipagarriak dira nazioartean: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948), Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmena (1950), Europako Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria saihesteko eta borrokatzeko egindako hitzarmena (2011), nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egiteko arauari buruzko Europako 2013/33/EB Zuzentaraua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2002, 2007). Bestalde; estatuan nabarmentzen dira: atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoa (4/2000 Lege Organikoa) —8/2000, 11/2003, 14/2003 eta 2/2009 Lege Organikoen bidez berritua— eta apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena, 2/2009 Legearen bidez aldatu ondoren. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan nabarmentzen dira: Euskadiko Toki

3 Hala adierazten du, hitzez hitz, Gernikako Estatutuan jasotzen diren eta oraindik ere eskualdatu ez diren arloetako eskualdaketa-katalogoa eguneratzeari buruzko 3. arloko I. eranskineko 14. fitxak.

Erakundeei buruzko Legea (apirilaren 7ko 2/2016 Legea), Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legea (maiatzaren 12ko 6/2016 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako Legea (maiatzaren 27ko 8/1994 Legea).

Plan hau egiteko prozesuan, abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuaren 3.c) artikuluan ezarritakoaren arabera jardun da; izan ere, Dekretu horren bidez sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako foroa (horrela izena zuen egungo Migrazio eta Asilo Foroak). Artikulu horren arabera, Foroaren funtzioetako bat da Euskal Immigratio Plana lantzeko eta berrikusteko proposamenak formulatzea.

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigratioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren (2018-2020) ebaluazioari dagokionez, planaren ebaluazioak oso balio handiko informazioa eman digu beste plan hau orientatzeko; izatez, plan horrek hainbat hobekuntza-proposamen jasotzen ditu eta orain, plan berriarekin, horiei heldu ahal izango diegu.

Ebaluazio horrek egoeraren diagnostiko argia jasotzen du, eta horretatik giltzarri hauek nabarmen ditzakegu:

- Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigratioaren Esparruan Jarduteko V. Planak (2018-2020), oro har, sektorearen ebaluazio positiboa jasotzen du, nahiz eta kritikak ere izan. Oso harrera positiboa izan du sektorean, ekintza politikoaren erdigunean immigratioaren fenomeno eta gero eta aniztasun handiagoa kokatzea eragin baitzuen.

Horrez gain, sektoreak zehaztasun eta operatibotasun handiagoa eskatzen du plan berria lantzeko garaian. Agian, V. Planak asmo handiegia izan zuen helburuetako batzuetan, eta beste alderdi batzuetan zehatzagoa izan zitekeen.

- V. Planaren lehentasunen artean aipatzen zen Eusko Jaurlaritzak gidaritza-rola berreskuratzea immigratioaren kudeaketan eta gero eta aniztasun soziokultural handiago den egoera horretan. Agerikoa da bide horretan aurrera egin dela, baina, oraindik ere, protagonismo handiagoa eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari. VI. Planak, beraz, hasitako bidea berretsi eta jarraituko du, eta, horretarako, kultura askotariko pertsonen, taldeen eta kolektiboen kudeaketaren sektorean duen lidergoa indartzeko ekintzak proposatzen ditu.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia du *Migratorako Euskal Itun Soziala* hedatzeak, arlo horretan euskal gizarte osoarentzat “jokatze” koordinatuak ezartzen dituen akordio eta konpromiso politiko eta sozialaren dokumentua den heinean.

Esparru horri esker, eta Euskal Autonomia Estatutuaren babesean, garatu ahal izango da kulturartekotasunean oinarritutako Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredua gauzatuko duen araudia. Araudi hori oinarrituko da tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan, desberdintasunerako eskubidearen onarpenean, kultura-jarduera desberdinak dituzten beste pertsona batzuekiko errespetuan eta kultura askotarikoak diren pertsonen, taldeen eta kolektiboen arteko interakzio positiboaren sustapenean.

Sektorearentzat interes berezia du, aniztasuna kudeatzeko etorkizuneko euskal ereduaren tresna nagusi den aldetik. V. planak jada lehen urratsak egin zituen Euskal Harrera Ereduaren eraikuntzan, hura abian jartzeko proposamen eta alternatiba batzuk ere proposatu baitzituen. Sektoreak bide horretan aurrerapauso adierazgarriak eskatzen ditu, gizarte gisa ibilbide komuna eskaini ahal izateko atzeritar jatorriko pertsonen harreran, arrazoi ekonomikoengatik izan zein asiloa eta nazioarteko babesa eskatzeagatik izan.

Erronka horiek arrazoi estrategikokoak izango dira.

- V. Planaren eraginkortasunari buruzko gogoetak, immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren arloko euskal gizarte-errealitateari buruzko gogoetak eta VI. Planetik errealitate horri heltzeko moduari buruzko gogoetak nabarmentzen dute immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren arloan lan egiten dugun eragile, instantzia eta erakunde publiko eta pribatuen sistema indartzeko beharra: Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, foru-aldundiak, udalak, Hizkuntza Politikarako Saila, hirugarren sektorea, Aholku sarea, Eraberean sarea, Migrazio eta Asilo Foroa, ZAS! sarea, elkarteak (auzo-elkarteak, enpresa-elkarteak, kultura-elkarteak, kirol-elkarteak eta abar), enpresak, sindikatuak, unibertsitateak, erlijio-kongregazioak, hedabideak (bereziki EITB), eta abar.

Sektoreak eragileen arteko interakzio handiagoa eskatzen du, koordinazio handiagoa, informazio-truke handiagoa eta elkarlan handiagoa.

Antolaketa-erronka da.

- Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025), halaber, gida izango diren helburu estrategikoak eta helburu orokorrak, sektorialak eta espezifikoak ezartzen ditu, baita jarduketa-esparruak eta esparru horietako bakoitzean proposatutako ekintzak ere.

V. Planak bezalaxe, VI. Planak ere lehentasunezko jarduketa-esparruak ezartzen ditu. VI. Planean lau dira: hezkuntza, enplegua, bizikidetzeta eta hizkuntza-elementua — aurreko hiruekiko zeharkakoa—. Gainera, beste hiru esparru osagarri jasotzen dira: osasuna, etxebizitza eta esparru juridikoa. Azkenik, bi babes-elementu ezartzen dira: babes ekonomikoa eskaintzea (diruz lagundu daitezkeen lerroak) eta sektorerako kalitateko informazioa eskaintzea (ikerketak).

Hirugarren erronka (erronka programatikoa), beraz, esparru horietarako ekintzak izango dira.

Azkenik, aurreko planean jada aintzat hartzen zen ideia bat berretsi nahi dugu: Euskal Autonomia Erkidegoak historian izan duen aniztasunaren oinarritik abiatuta (pluralismo politiko zabala, askotariko kultura-jarduna, hizkuntza-dualismoa eta askotariko portaera sozialeko ohiturak eta pentsamoldeak), Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025) proposatzen du espazio pribilegiatua, errespetuzkoa eta inklusiboa eraikitzea, eta espazio horretan bertako gizartearen ezaugarri eta kultura espezifikoak barnean hartzea, eta, hartara, Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredua eraiki ahal izatea, kulturartekotasunean oinarrituta.

1. OINARRIAK

1.1. Eginkizuna

Plan honen eginkizuna honela definitzen da:

- *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025) hurrengo urteetan Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta haren Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren lanak gidatuko dituen dokumentua izan nahi du, eta, horretarako, immigrazioaren eta asiloaren arloko esku-hartze publikoa koordinatuko du kulturarteko ikuspegitik. VI. Plan honek kulturartekotasunean oinarrituta Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredua eraikitzeke tresna bihurtu nahi du.*

Plan hau bat dator Nazio Batuen Erakundeak ezarri zituen Garapen Jasangarrirako Helburuekin. Zehazki, helburu hauekin lotura estua du: 1. Pobrezia desagerraraztea, 4. Kalitatezko hezkuntza, 5. Genero-berdintasuna, 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa, 10. Desberdintasunak murriztea, 16. Bakea eta justizia, eta 17. Helburuak lortzeko aliantza.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren XII. legealdiko gobernu-programaren (2020-2024) 10 helburuekin lotzen da. Zehazki, eta zeharka, helburu hauetara eramaten gaitu: 1) Langabezia %10etik behera murriztea; 4) Euskadi desberdintasun sozial txikiena duten Europako bost herrialdeen artean kokatzea (Gini indizea); 5) Euskadi genero-berdintasuneko indize handiena duten Europako sei herrialdeen artean kokatzea; eta 6) Eskola uzten dutenen tasa % 7tik behera finkatzea, eta euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea.

1.2. Ikuspegia

Ikuspegiari dagokionez:

- *“Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025) lehentasunezko ekintza-ildo batzuk ezartzen ditu herritarren eskubideak berdintasunez baliatzeko aukera emango duen egungo eta geroko euskal gizartea eraikitzeke; zehazki, ekitatea sustatuko duen eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztientzako aukera-berdintasuna sustatuko duen gizartea; maila sozialean kohesionatuagoa eta solidarioagoa den gizartea, bai elkarren artean, bai maila sozialean zaurgarrienak diren kolektiboekiko; pertsona guztien aniztasuna errespetatuko duen gizartea; eta gizarte-interakzio positiboko testuingurua sustatuko duena”.*

1.3. Kontzeptuak

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025) bere izenean bertan islatzen diren lau kontzeptu nagusiak ditu ardatz.

- Kulturartekotasuna: aurreratu dugunez, plan honetan kulturartekotasuna oinarri kontzeptual gisa hartzeko asmo argia adierazi nahi dugu, Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduaren oinarri izan dadin. Gizarte Politiketako Sailburuordetzak eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak kulturartekotasunaren aldeko apustua egin dute, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren egungo eta etorkizuneko harremanak garatzeko esparru gisa, herritarren jatorria edozein izanik ere.

VI. Plan honek aurreko V. Planean jada jasotzen zen ideia berresten du: *“Kulturartekotasunaren politikak berekin dakar dibertsitatearen kudeaketa positiboa eta inklusiboa egitea, helburutzat hartuta oraingo gizartea aldatzea, eta kultura berri bat sortzea subjektu kulturalki desberdinen arteko interrelazioen eta interakzioen ondorio”* (18. orrialdea).

- Herritarrak: kontzeptu hau aspalditik dator, Eusko Jaurlaritzak eta arlo horretako haren zuzendaritzek aurreko urteetan landu dituzten planetan erabili baita. Dokumentu honen oinarri den herritartasunaren kontzeptua, beraz, aurreko Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planean (2018-2020) jada jaso zen kontzeptu bera da, eta orduan ere Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren (2007-2009) zatiak berreskuratu eta bere egin besterik ez zuen egiten (61. orrialdea eta hurrengoak): *“... herritartasun inklusiboaren ikuskera biltzea ahalbidetuko du, eta ikuskera horrek Estatuko ordenamendu juridikoan bildutako nazionalitate-kontzeptu klasikoa birformulatuko du EAEn eskumenen eremuan. (...) Ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrak direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe. (...) Herritartasun berria lortzeko eskatzen den lotura bizitokia da. (...) Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du”*. Eskubide-berdintasuna etorkinen eta nazionalen artean aldarrikatzen da, baita nazionalizatu gabeko pertsonen artean, genero desberdinekoen artean eta abarren artean ere.
- Immigrazioa: *“dokumentu honetan, dibertsitatearen kudeaketa da funtsezko elementua, eta horretarako ikuspegia eraldaketa da, bai eta egungo eta geroko euskal gizartearen eredu berri bat sortzea ere; hau da, kulturartekotasuna. Ez dugu horregatik ahaztuko migrazio-mugimenduak funtsezko fenomeno bat direla, gure gizartea eraikitze prozesu sozialak moldatzen eta baldintzatzen ari dena gaur egun. Mende honetako lehen hamar urteetan, ikusi dugu etorkin atzerritar asko eta askotarikoak iritsi direla, eta errotik eta estrukturalki aldatu dutela EAEko gizartea. Ondorioa argia da, agerikoa: aldaketa horiek gelditzeko iritsi dira, eta immigrazio-fluxuek, partikularki, eta pertsonen mugikortasun gero eta handiagoak, oro har, etorkizuneko euskal gizartea zizelkatuko dute hurrengo hamarkadetan. Migrazio-mugimendu horiek ongi kudeatzeko gure gaitasunak baldintzatuko du arrakasta, eta, horretarako, herritartasun berria onartzeak eta pertsona eta talde sozial guztien goranzko mugikortasun soziala ahalbidetzeak”* (Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana (2018-2020), 18. orrialdea).

Immigrazioari buruz ari garenean, gizarteratzearen auziaz ere hitz egin behar dugu, eta prozesu dialektiko gisa ulertu behar dugu, etorkinek bertako biztanleriarekin batera parte hartzen duen prozesu gisa. Prozesu hori kultura desberdineko pertsonak gizarte-testuinguru berean bat etortzen direnean aktibatzen den elkarrekiko integratzeatzat hartu behar da. Gizarteratzeaz hitz egitean, ez gara soilik etorkinen egokitze-prozesuez ari; ezin dugu gizarteratzea asimilazio-prozesu soil batera

murritzatu. Kulturartekotasunaren kontzeptuari eta kulturarteko jardunari jarraituz, gizarteratzea hartu behar dugu euskal gizartea osatzen duten pertsona guztien arteko prozesu dialektiko eta interaktibotzat, pertsona horien etorkia, jatorria eta/edo nazionalitatea edozein izanik ere.

- Asiloa: *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak* (2022-2025) azken gai hori barne hartzen du. Eusko Jaurlaritzak, XII. legealdi honetan, sortu du Migrazio eta Asilo Zuzendaritza. Zuzendaritza horrek aztergai ditu immigrazioarekin eta nazioarteko babesarekin, asilo eskatzaileekin eta babes subsidiarioarekin lotzen diren alderdi guztiak.

Horrela, plan honetan sartzen dira nazioarteko babeserako, asilorako edo babes subsidiarioerako eskaerei erantzuteko bitartekoekin eta jarduketekin lotutako neurriak, bai pertsonen nazioarteko babesa eskatzen duten aldiak, bai babes horren onuradun bihurtzen diren aldiak (hala badagokio, errefuxiatu gisa edo babes subsidiarioaren onuradun gisa), bai Espainiako estatuko herrigabearen estatutuaren onuradun bihurtzen diren aldiak.


Eusko Jaurlaritzak urteak daramatza asilo-eskatzaileen eta nazioarteko babesaren onuradunen (errefuxiatuak edo babes subsidiarioaren onuradunak) harrera- eta integrazio-prozesua hobetzen. VI. Planean, ibilbide horiek Euskal Harrera Eredu zabalagoaren eta orokorragoaren barruan sartu nahi dira. Izatez, eredu hori plan honen lau elementu estrategikoetako bat da, eta funtsezko elementua etorkizuneko Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredurako.

1.4. Oinarrizko printzipioak

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plan (2022-2025) honen oinarri kontzeptuala kulturartekotasuna da, Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredua ezarriko den esparru gisa.

Kulturartekotasunaren aldeko apustua egiteak haren printzipioak onartzea eta errespetatzea esanahi du, Carlos Giménez-ek adierazten duenez (*El Interculturalismo: propuesta conceptual y aplicaciones prácticas*. Ikuspegi behatokiaren argitalpena, 2010): tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa, desberdintasun etnokulturalerako eskubidearen eta errespetuaren printzipioa eta interakzio positiboaren printzipioa.

1. eskema. Kulturartekotasunaren oinarriak



- 1 Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa: aurrera egin behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek tratu berdina izan dezaten eta diskriminaziorik jasan ez dezaten, inolako arrazorengatik. Kulturarteko ereduari jarraikiz, berdintasun-printzipioak tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza berresten ditu; ez da pertsona guztiok berdinak garela adierazten duen errealitate enpirikoa. Aitzitik, adierazten du pertsona guztiak berdintzat hartu behar direla, desberdinak badira ere. Hori dela eta, zuzenbidean berdintasuna pribilegioaren edo diskriminazioaren aurkakoa da.

Printzipio horrek, azken batean, esanahi du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek, haien jatorria edo nazionalitatea edozein izanik ere, eskubide eta betebeharrak berberak dituztela (ardatz juridikoa) eta arlo sozialean aukera berberak dituztela (ardatz soziala).

Giza eskubideen ikuspegitik zuzenean datorren printzipioa da, baina herritarren eskubideen edo herritartasunaren eskubideen ikuspuntutik gauzatzen dena.

Printzipio hori jada jasotzen zen Immigrazioari buruzko II. Euskal Planetik (2007-2009) (61. orrialdea eta hurrengoak), herritartasun inklusiboaren kontzeptua aztertzen duenean: “*ikuskerak horrek Estatuko ordenamendu juridikoan bildutako nazionalitate-kontzeptu klasikoa birformulatuko du EAEren eskumenen eremuan. (...) Ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrek direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEen ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe. (...) Herritartasun berria lortzeko eskatzen den lotura bizitokia da. (...) Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du*”. Eskubide-berdintasuna etorkinen eta nazionalen artean defendatzen da, baita

nazionalizatu gabeko pertsonen artean, genero desberdinekoen artean eta abarren artean ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztien herritartasun-eskubideez ari gara; izan ere, gure lurraldean bizi diren pertsona guztiek herritarren eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituzte, haien ezaugarri fisikoak, ideiak, kultura-jardunak, sexu-orientazioa, egoera ekonomikoa, jatorria eta abar edozein direla ere.

Printzipio hori 2000. eta 2002. urteetan onartutako Europar Batasuneko zuzentarauetan oinarritzen da zuzenean (Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzendaraua, Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L180, 2000-07-19; Kontseiluaren 2001eko azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzendaraua; Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L303, 2000-12-02; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko iraileko 2002/73/EE Zuzendaraua, Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L296, 2002-10-05). Tratu-berdintasunaz ari garenean, honako hau ulertzen dugu: "arrazar- edo etnia-jatorrian, erlijioan, sinesmenetan, ezintasunean, adinean edo sexu-orientazioan oinarritutako zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik eza".

- 2 Desberdintasun etnokulturalerako eskubidearen eta errespetuaren printzipioa: printzipio hori datza kulturartekotasunaren barruan aurrera egitean, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona guztiek beren kultura-jardunak eta beren desberdintasunak erakusteko eskubidea izan dezaten, betiere indarrean dagoen legedia errespetatuz. Zabaldu behar den printzipio etikoak aintzat hartuko du beste pertsona hori errespetua eta aitortza merezi duen subjektua dela (ardatz etikoa), pertsona horrek bere desberdintasuna adierazi ahal izango duela (ardatz juridikoa) eta desberdintasunen aitortze instituzionala eskatuko dela (ardatz politikoa).

Kontua ez da kultura askotarikoak diren kolektiboen arteko bereizgarritasunetan sakontzea, ezta 'gu' eta 'haiek' kolektiboen artean gizarte kategoriak ezartzea ere, baizik eta onartzea euskal gizartearen kultura-jardun desberdinak dituzten kolektiboez eta pertsona taldeez osatuta dagoela. Kultura-desberdintasun horiek errespetatu behar ditugu, baldin eta indarrean dagoen lege-esparruaren mugen barruan badaude; izan ere, kultura-jardun desberdinen arteko harreman dialektikoa da egungo eta etorkizuneko euskal gizartearen eraldatzeko eta eraikitzearen eragile nagusia, gizarte demokratikoagoa, parte-hartzaileagoa, kohesionatuagoa, solidarioagoa eta bidezkoagoa eraikitzearen eragile nagusia.

- 3 Interakzio positiboaren printzipioa: kulturarteko ereduaren printzipio horrek urrats bat harago joan nahi du, eta modu aktiboan sustatu nahi ditu harremanak, interakzioa, komunikazioa, elkar ezagutzea, hurbilketa, konbergentzia, hibridazioa eta sintesia. Benetako ezagutza zabalduko da (ardatz kognitiboa), enpatia eta tolerantzia sustatuko da (jarrerazko ardatza) eta topaketa eta interakzio sozialerako espazioak eraikiko dira (portaerazko ardatza). Interakzio positiboak dakar pertsona guztiek modu eraginkorrean parte hartu ahal izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren etorkizuneko herri-proiektuaren eraikuntzan.

Eusko Jaurlaritzaren *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planak (2018-2020)* jada jasotzen zuen interakzio sozialaren printzipioa, "kulturartekotasunaren pedagogia urbanoaren giltzarria da (...).egoera egokia sortzea eguneroko bizitzako elkartzeko positibo eta eraikitzaileerako, kultura, generoa, sexu-identitatea, adina, estatus sozioekonomikoa eta abar askotarikoak diren testuinguruetan". (20. orrialdea).

V. Planaren ildo beretik, honako VI. Plan honek kulturarteko bizikidetzan oinarritutako

gizarte-eraldaketaren ikusmoldea du ardatz. Ikusmolde hori ulertu behar da Carlos Giménez bezalako egileek sortutako zentzurik hertsienean, hau da, pertsonen arteko topaketa eta gizarte-eraikuntzako truke eraldatzailerako espazio gisa, non izaera, jatorri eta/edo sexu desberdineko pertsona eta/edo talde guztiek parte har dezaketen.

Printzipio hori kulturartekotasunaren funtsezko hirugarren osagaia da, berdintasun-printzipioei laguntzen diena herritartasun-eskubideetan eta desberdintasunerako eskubidean. Ez da nahikoa eskubideen berdintasun erreala eta eraginkorra, ezta kultura askotarikoak diren pertsona eta/edo talde guztien nortasuna eta eskubideak errespetatzea ere: kulturartekotasunak “interakzio positiboa behar du kulturaren arloan bereizten diren gizabanakoen eta kolektiboen arteko harremanetan” (Carlos Giménez, 2010, Ikuspegi, 26. orrialdea).

1.5. Zeharkako ikuspegiak

Eusko Jaurlaritzaren beste planekin koherentzian, dokumentu honek zeharkako ikuspegi hirukoitza du: giza eskubideak, generoa eta hizkuntza (euskara).

- Giza eskubideen ikuspegia: VI. Plan honek bere egin du egitura eta garapen osoan hedatzen den giza eskubideen ikuspegia. Hura lantzean, oso kontuan izan dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bereziki 2., 6., 7. eta 13. artikulua. Era berean, planak Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Europar Batasuneko Ordenamendu Juridikoaren zenbait artikulua jasotzen ditu. Zehazki, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 2.1. artikulua, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 14. artikulua, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.1. artikulua eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 2.2. artikulua.

Herritarraren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plan honek Migrazioarako Euskal Itun Sozialari jarraitzen dio, printzipio hori berariaz jasotzen baitu (10-11. orrian) eta jarduteko ikuspegi bat egiten baitu: “Immigrazioaren fenomeno ez dugu ikuspegi utilitarista batetik lantzen, humanitatearen eta justiziaren ikuspegitik baizik”.

Era berean, koherentea da Nazio Batuen Erakundeak 2018ko abenduan onartutako Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularreko Mundu Itunarekin —Itun hori Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubidean oinarritzen da—.

VI. Planaren erreferentzia da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren Bizikidetza, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana (2021-2024) (9. orrialdea eta hurrengoak). Plan horretan adierazten denez, “Giza eskubideak, ez soilik corpus teoriko batekiko atxikimendua edo desideratuma direla ulertuta, baizik printzipio batekin (bizitzaren iraunkortasuna) hartutako konpromiso erreal eta hautemangarria dela ulertuta. Printzipio hori, bere ingurumen-dimentsio klasikotik harago, berdintasunari lotuta hartu behar da eta desberdintasunaren aurka, diskriminazio intersektionalaren aurka eta bazterkeria- eta indarkeria-mota guztien aurkako borrokari lotuta. Giza garapen iraunkorrarekiko konpromiso horrek, gainera, zeharkako begirada eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia euskal politika publiko guztietan aplikatzea ekarriko du”.

- Generoaren ikuspegia: *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren ildotik, baita aurreko beste batzuen ildotik ere, VI. Plan hau zeharka generoaren ikuspegia aintzat hartuta landu da. V. Planak*

jada jasotzen zuen ikuspegi horren garrantzia, *“atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko emakumeek askotariko diskriminazio-egoera anitzi egin behar dietelako aurre: emakumeak izateagatik, etorkin atzerritarrek izateagatik, langileak izateagatik, batzuetan dokumentazio arauturik ez izateagatik, gure hizkuntza ez jakiteagatik eta abar.”* (20. orrialdea).

Ikuspegi horretan, funtsezkoa da interseksionalitatea; izatez, tresna analitiko horrek aitortzen du desberdintasun estrukturalak zenbait faktore sozialen (generoa, etnia edo “arraza” eta klase soziala) interakzioetik eta gainezarpenetik abiatuta konfiguratzeko direla.

V. Planean emakumeei berariaz zuzendutako esparru zehatzik ez bazegoen, VI. Plan honetan badago, zehazki elementu estrategikoak bereizten ditugunean; horien artean, atzerritar jatorriko emakumeen errealitate sozialari heltzeko eta hura hobetzeko neurriak nabarmentzen ditugu. Gainera, generoaren ikuspegia aintzat hartzen da beste jarduketa-esparru batzuetan antolatutako bestelako neurri batzuk jorratzen direnean ere.

Ikuspegi hori jada ezin hobe jasotzen zen *Immigrazioaren, Herritartasun eta kultura arteko bizikidetasunaren III. Planean (2011-2013)* (14. orrialdean); bertan adierazten denez, *“genero-harreman berrien bultzadarekin eraiki behar dugu gure gizartea, bertan emakume etorkinek dagozkien eskubide eta betebeharrak guztiak izan ditzaten”*.

Ikuspegi horren bidez, etorkizuneko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin koherentea izatea eta bat etortzea lortu nahi da. Lege horren proiektua Legebiltzarrean tramitatzen ari da jada, betiere Lege Aurreproiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztu ondoren, eta 2020/11/17an onartu eta, gero, Eusko Legebiltzarrari lege-proiektu gisa bidali ondoren, XII. Legealdian tramita dadin.

Aurreko planetan bezalaxe, VI. Planean ere Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko berdintasun-teknikariak lagundu du.

- Hizkuntza-ikuspegia (euskara): gure bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, ezagutzea, erabiltzea eta sustatzea da atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze-prozesuan aurrera egiteko sine qua non zutabe eta baldintzetako bat. Prestakuntza-prozesuak eta lan-merkaturatzeko prozesuak errazten dituen elementu gisa ez ezik, interakzio sozialerako eta norberaren ahalduentzerako ere ezinbesteko elementua da, betiere atzerritar jatorriko pertsonen ingurune soziala ezagutzearen eta menderatzearen arloan.

Azken batean, funtsezkoa da hizkuntza-ikuspegia VI. Plan osoan hedatzea, batez ere euskarari dagokionez. Izatez, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera diglosiko orokorra kontuan hartu behar da, baita, euskal biztanleriaren ezagutza eta erabilera orokorrean hizkuntza minoritarioa izan arren (Gipuzkoako eta Bizkaiko zona batzuetan gizarte-ezarpen handia du), euskara funtsezko elementua izan daitekeela prestakuntza eta enplegua lortzeko, elkarbizitza osorako, integratzearako, gizarteratzeko, egungo gizarte-mugikortasunerako eta etorkizuneko belaunaldien mugikortasunerako, baita, azken batean, kulturekotasun-prozesu orokorrerako ere.

Euskararen zeharkako ikuspegi horrek eguneroko bizitzako arlo guztietara eramaten bagaitu ere, bereziki garrantzizkoa da hezkuntzaren, lan-munduratzeko eta kulturarteko bizikidetasunaren arloetan. Horregatik, VI. Plan honek, V. Planak ez bezala, arreta bereziko arlo gisa nabarmentzen du euskara. Izatez, atzerritar etorki, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen artean euskara ikasteko eta sustatzeko ekintza zehatzak abian jartzea hartzen da aintzat. Horrez gain, euskal gizartearen

gehiengoak euskarari ematen dion babesaren ildotik, euskararen erabilera normalizatzeko politikak gauzatuko dira.

Beste gai batzuetara pasa aurretik azken zehaztasun bat gehitu behar da: plan hau egiteko garaian, oso kontuan hartu ditugu harekin zuzenean lotzen diren beste plan batzuk. Zehazki honako plan hauekiko koherentzia eta osagarritasuna bilatu dugu:

- XII. legealdiko gobernu-programa (2021-2025)
- Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana (2003-2005)
- Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana (2007-2009)
- Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura Arteko Bizikidetasunaren III. Plana (2011-2013)
- Immigraziorako IV. Euskal Estrategia (2014-2016)
- Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana (2018-2020)
- Udaberri 2024. Bizikidetzaren, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana (2021-2024)
- Jarduera-Programa bizikidetzaren sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan
- Giza Eskubidearen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria (2017-2020)
- (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategia
- 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana
- Sasoikako Lanaren Arretarako 2017-2020 IV. Plan Integrala
- Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021)
- Enpleguaren Euskal Estrategia, 2030
- Etxebizitzaren Gida Plana (2021-2023)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (2018-2022)
- Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia (2021-2024)
- Aniztasuneko Bizikidetzaren Plana (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Aniztasunaren eta Inklusioaren Aldeko I. Plana (Bizkaiko Foru Aldundia)
- Aniztasuna kudeatzeko estrategia: kulturen arteko bizikidetzaren alde (Arabako Foru Aldundia)
- Espainiako Gobernuaren Herritartasunaren eta Integrazioaren Plan Estrategikoa, 2022 (prestatzen)

- Zaragozako adierazpena. Integrazioari buruzko Europako ministerio-konferentzia. (Zaragoza, 2010eko apirilaren 15a eta 16a)
- Hirugarren Herrialdeetako Nazioen Integraziorako Europako Agenda, COM (2011) 455 amaiera
- Hirugarren herrialde batzuetako nazionalak integratzeko ekintza-plana, COM (2016) 377 amaiera
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2016ko uztailaren 5ekoa, errefuxiatuei buruzkoa: gizarteratzea eta lan-merkaturatzea 2015/2321(INI)
- Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren arloko II. Ekintza Plan Nazionala (2017-2023)
- Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Agenda 2030
- Eusko Jaurlaritzaren Agenda 2030
- Europako Kontseilua (2019). Kulturarteko hiria, urratsez urrats. Kulturarteko integrazioko hiri-eredua aplikatzeko gida praktikoa
- Migraziorako Euskal Itun Soziala (2019)
- Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Mundu Ituna (Nazio Batuen Erakundea, 2018)
- Arrazakeriaren aurkako Europar Batasunaren ekintza-plana (2020-2025)
- Trantsizio Sozialerako eta Agenda 2030erako Eragile Anitzeko Foroa

2. ANTOLAKETA, EGITURA ETA HELBURUAK

Immigrazioaren eta asiloaren sektorean lan egiten duten pertsonen eta erakundeek planteatzen duten gai garrantzitsuenen artean dago sakondu eta aurrera egin behar dela immigrazioaren eta asiloaren eguneroko lanean bat egiten duten eragile, entitate, erakunde, instantzia, zerbitzu eta tresnen sistemako elementuen sinkronizazioan.

Aurrerago helduko diogu gai horri, *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025)* sistema hori indartzera eta koipeztatzera bideratzen diren zenbait antolaketa-neurri jasotzen baititu. Edonola ere, plan honetan deskribatutako helburuak eta ekintzak behar bezala ulertze aldera eta testuinguruan jartze aldera, sektorean lan egiten duten eragileak antolatzeko gure proposamena deskribatzen hasi behar dugu, eta jarduketa-planaren egitura zein den azaldu behar dugu.

Jarraian aurkezten dugun mapak Eusko Jaurlaritzaren mende dauden elementuak biltzen ditu, baina haratago doa, beste instantzia batzuk ere sartzen baititu, horien artean komunikaziorako, lankidetzarako eta etengabeko koordinaziorako bideak ezarri behar baitira.

2.1. Sistemaren eta hura osatzen duten eragileen sinkronizazioa

Kulturarteko bizikidetzaren, immigrazioaren eta asiloaren arloan lan egiten duten Eusko Jaurlaritzaren mendeko eragileen koordinazioan eta sinkronizazioan sakondu behar da, eta, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko aldundiekin, udalekin, elkarteekin eta gizartearekin koordinatuta lan egingo duen sistema indartuko da, baina haien eskumen-esparruak errespetatuz.

- Migrazio eta Asilo Zuzendaritza. Zuzendaritza honen eginkizunak dira: erakundearen arteko loturak ezartzea, lan-talde bateratuak zuzentzea, gainerako eragileen ekimenak koordinatzea, jarduketa-plana gauzatzeaz arduratzea, planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, dirulaguntza-ildoak kudeatzea eta administrazio- eta erakunde-kudeaketa zaintzea.
- Biltzen - Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua. Zerbitzu honen lana datza: pertsona eta taldeekin esku-hartzearen bidez lortutako eta testuinguruan jarritako ezagutza praktikoa sistematizatzea; udal-ekintza teknikoaren laguntza; profesionalen prestakuntza; eragileei zenbait sektoretan laguntzea; kultura-kolektiboekiko harremanetan; proiektu berritzaileen garapenean; eta abarretan. Hortaz, ekintza politikoari buruzko erabakiak hartzeko kalitateko informazioa emango du.
- Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokia. Behatokiaren eginkizuna da Zuzendaritzak erabakiak hartzeko dituen informazio-beharrei erantzutea. Honela defini daiteke: ekintza politikoari buruzko informazio garrantzitsua ematea; diskurtso

soziala eta politikoa sortzen duten dokumentu betearazle monografikoak egitea; ikerketak egitea; eta sektorean lan egiten duten eragileei informazioa eta laguntza ematea.

- Aholku Sarea - Atzerritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa. Zerbitzu horren eginkizun nagusiak dira: atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen kalitateko laguntza juridikoa ematea; esparru juridiko horretan lan egiten duten eragileen topaketa eta koordinaziorako espazioa izatea; eta arlo horretan gerta daitezkeen kontsultei erantzutea eta aholkuak ematea.
- Eraberean - Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarea. Sare horren eginkizunak diskriminazioaren aurkako eta tratu-berdintasunaren aldeko borrokaren arlokoak dira.
- Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa. Foro horrek topaketarako, informazio-trukerako, hausnarketarako eta eztabaidarako foro gisa dituen eginkizunak nabarmen aldatu gabe, Foroaren batzordeen lanen barruan sar daitezke jarduketan honetako ekintzen jarraipenarekin zerikusia duten zereginak, betiere ekintza horietako bakoitzaren gaietan. Halaber, une egokia ematen du haren batzordeak berrasmatzeko eta plan honen jarduera-esparru programatikoei bat etortzeko, baita etorkizuneko kulturarteko gobernantza-eredua aztertzeko ere.

Sektore horretan honako beste eragile garrantzitsu hauek daude:


- Udal-teknikariak. Kulturartekotasunaren, bizikidetzaren eta immigrazioaren arloan lan egiten duten udal-teknikariek ari gara. Gure ustez, horien jarduketak hobetuko dituzten koordinazio-loturak ezarri behar dira, bakoitzaren eskumenak eta lan independentea errespetatuz. Plan horrek Zuzendaritzaren eta udalen jarduera eta ahalegin komunaren komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko ekintzak aurreikusten ditu.
- Aldundiak. Egokia dirudi, halaber, foru-aldundiekin eta sektore horretan lan egiten duten foru-teknikariekin komunikatzeko eta koordinatzeko bide sistematikoak ezartzea, eta, horretarako, elkarrekiko eskumenak errespetatzea, baina sinergiak eta interes komunak baliatuz.
- Eusko Jaurlaritzaren beste sail eta instantzia batzuk. Berezi egokia dirudi Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren zenbait sail, zuzendaritza eta instantziaren arteko lankidetzaren protokolo iraunkorrak ezartzea, batik bat Zuzendaritzaren arloekin muga egiten duten edo gainjartzen diren esparruetan lan egiten duten sail, zuzendaritza eta instantziekin. Horien artean nabarmen daitezke: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Saila bera; Enplegu Saila; Lanbide; Hezkuntza Saila; Giza Eskubide, Biktimen eta Aniztasun Zuzendaritza; eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetza. Eta ezin ditugu ahaztu Osasun Saila, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, Landa Garapeneko Zuzendaritza eta abar.

2.2. Planaren egitura

Aditzera ematen ari garenez, VI. Plana aurreko planaren jarraipen gisa planteatzen da, egungo ingurunera egokitzearen bidetik. 2022-2025 horizonterako lan-plan gisa sortu da, baina epe ertain eta luzerako apustu estrategiko argia ere bada.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak, plan honen bidez, beren estrategia islatu nahi dute, eta datozen urteetan lortu nahi dituzten helburuak ezarri. V. Planak kultura-aniztasuna kulturartekotasunaren ildotik kudeatzeko estrategia batean aurrerapausoak egin bazituen, plan berri honek ildo horretan sakondu nahi du, eta argi eta garbi ezartzen du zein den kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredua: kulturartekotasuna. Plan honetako neurriei esker, egungo piezak ordenatuko dituzte, eta beste pieza osagarri batzuk sortuko dituzte, gure gizartearen aniztasun gero eta handiagoa kudeatzeko eredu propioa eraikitze bidean.

3. eskema. Neurri motak




Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025) aurreko planaren antzekoa da; neurri guztiak hiru atal nagusitan antolatu ditugu: estrategikoak, antolaketakoak eta programatikoak, haien izaeraren arabera.

1. Neurri estrategikoak. Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduaren eraikuntzan aurrera egitea eta sakontzea helburu duten neurriak dira. Lau gai nagusitan biltzen dira: 1) Migraziorako Euskal Itun Soziala hedatzearekin lotzen diren ekintzak, beste jarduketa batzuen esparru gisa (zazpi ekintza); 2) Euskal Harrera Eredua abian jartzearekin lotutako ekintzak (Asiloa barne, zazpi ekintza); 3) adingabeen eta adin nagusiko gazteen —21 urtera artekoak— problematikan oinarritzen den Euskarri

estrategiarekin zerikusia duten ekintzak (sei ekintza); eta 4) atzerritar jatorriko emakumeak oinarri dituzten ekintzak (hamabi ekintza).

4. eskema. Neurri estrategikoak



Atal honetan, guztira, 32 ekintza identifikatu ditugu. Ekintza horien inplementazioak eta garapenak ekarpen handia egin behar du herritar guztien eskubide eta betebeharretan oinarritutako herrialde-proiektua eraikitzeko, betiere desberdintasunak murriztea eta gizarte-kohesioa sustatzea helburu duen estrategia gisa.

2. Antolaketa-neurriak: herritartasunaren, kulturartekotasunaren, immigrazioaren eta asiloaren arloan lan egiten duten eragile, instantzia eta erakunde guztiak bilduko dituen sistema baten sinkronizazioan eta koordinazioan sakontzea helburu duten neurriak dira. Neurri horiei esker, modu antolatuan, sistematikoan, koherentean eta asmo komunekin lan egingo dute eragile, instantzia eta erakunde horiek guztiak. Sistema horretan, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak rol protagonista izango du, baina jakina eragile, instantzia eta erakunde horien eta aldundien eta udalen eskumenak errespetatuko ditu.

Atal honetan sar daitezkeen 12 ekintza identifikatu ditugu.

3. Neurri programatikoak. Hiru esparrutan biltzen dira:
 1. Lehentasunezko jarduketa-esparruak. Hezkuntzaren, enpleguaren eta enplegurako prestakuntzaren esparruko ekintzak, tokiko bizikidetzaren esparruko ekintzak eta hizkuntza-esparruko ekintzak dira.
 2. Esparru osagarriak. Osasunaren eta etxebizitzaren esparruetan eta esparru juridikoan garatuko diren ekintzak dira.
 3. Babes-esparruak. Zaurgarritasun-egoera berezian egoteagatik arreta behar duten kolektiboekin esku hartzeko babes ekonomikoko ekintzak eta erabaki hobeak har daitezkeen ezagutza sortzeko ekintzak dira.


Zuzendaritzaren lanaren lehentasunezko ekintza-esparruak dira: hezkuntza-esparrua (sei neurri), enpleguaren eta prestakuntzaren esparrua (hamaika neurri), bizikidetzaren esparrua (hamahiru neurri) eta hizkuntzaren zeharkako esparrua (sei neurri). Lehenengo bietan eta laugarrenean, jarduketaren lidergoa Hezkuntza Sailak, Lanbidek eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak izan beharko dute, hurrenez hurren, baina Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak zeregin aktiboagoa, proaktiboagoa eta konprometituagoa izan dezake eta izan behar du. Hirugarrenean, ezinbestekoa da udalen eginkizuna.

Gainera, Zuzendaritzaren beste hiru jarduketa-esparru osagarri identifikatu ditugu: osasunaren esparrua (lau neurri), etxebizitzarena (lau neurri) eta juridikoa (zazpi neurri). Horietan, Zuzendaritzak lankidetzaren estuan jardun behar du Osasun Sailaren eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren jarduketetan, batez ere.

Azkenik, planak sektoreko eragileei laguntzeko neurriak jasotzen ditu, eta neurri horiek bi motatakoak dira: batetik, Zuzendaritzaren jomuga diren kolektibo jakin batzuen premiei —bereziki zaugarriak diren kolektiboen, bazterketa-arrisku handiagoa dutenen edo marjinazioa jasateko aukera handiagoa dutenen premiei— arreta emateko laguntza ekonomikoko neurriak (bi ekintza); eta, bestetik, jakintza sortzeko neurriak, erabakietan eta ekintza politikoetan informazioa ematekoak eta ziurgabetasuna murriztekoak (sei ekintza).

Esparru horietan 59 neurri identifikatu ditugu.

5. eskema. Neurri programatikoak



Neurri guztietan —estrategikoak, antolaketakoak edo programatikoak izan—, zeharka jasotzen dira tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa, genero-berdintasunaren printzipioa eta hizkuntza-normalizazioaren printzipioa, bai ekintza espezifikoetan, bai beste esparru batzuetako helburu espezifikoak dituzten beste ekintza batzuetan.

2.3. Helburuak

Planaren helburu orokorra da:

- “Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduaren eraikuntzan sakontzea eta herritar guztien eskubideen eta betebeharren berdintasunaren inguruan kohesionatutako etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeke oinarriak finkatzea, eta, horretarako, gero eta kultura-aniztasun handiagoa errespetatzea eta kulturen arteko bizikidetza sustatzea”.

Neurri multzoen helburu sektorialak:

- Neurri estrategikoen helburuak:
 - “Migraziorako Euskal Itun Soziala euskal gizartean hedatzea”.
 - “Euskal Autonomia Erkidegoan atzeritar jatorriko etorkinei (barnean direla asiloa eta babesa eskatzen dutenak) zuzendutako Euskal Harrera Eredua abian jartzea”.
 - “Atzeritar jatorriko pertsonen harrerarako laguntzak mantentzea eta hobetzea”.
 - “Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta Eudelek abian jarritako Euskarri estrategiaren garapenean sakontzea, adingabeen eta 21 urte bitarteko adin nagusiko gazteen errealitate sozialari eta problematikari heltzeko”.
 - “Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko emakumeen errealitate sozialari heltzea, eta arreta berezia jartzea gerta daitezkeen zaugarritasun-egoerei”.
 - “Atzeritar jatorriko emakume etorkinen kolektiboekin lan egiten duten erakundeentzako laguntzak mantentzea eta hobetzea”.
- Antolaketa-neurrien helburuak:
 - “Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren sektorean lan egiten duten eragileen sistemaren koordinazioa eta sinkronizazioa hobetzea”.
 - “Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak sistema horretan duen lidergoa indartzea”.
- Hezkuntzaren esparruko neurri programatikoen helburuak:
 - “Ikasle guztien garapen osoa eta eskola-arrakasta bermatzea, eta inklusio, ekitate eta bikaintasunaren printzipioak gauzatzea”.

- “Oreka, gizarte-koherzio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren handiagoa lortzea, gure ikastetxeetako eskolatzeko inklusiboaren bidez”.
- “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sensibilizatzea eta prestatzea”.
- Enpleguaren esparruko neurri programatikoen helburuak:
 - “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sensibilizatzea eta prestatzea”.
 - “Atzeritar jatorriko pertsonen lan-orientazioa prozesuak eta protokoloak errazago erabiltzea, haien enplegurako aktibazioa indar dadin”.
 - “Atzeritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen lan-munduratzeko gaitasunak behar dituzten oinarriak gutxitzea eta iragarritasuna hobetzea”.
 - “Atzeritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen prestakuntza- eta lan-bizikidapenerako hezikuntza-erakundeak zabaltzea eta hobetzea”.
- Bizikidetzaren esparruko neurri programatikoen helburuak:
 - “Atzeritar jatorriko pertsonen harrerarako laguntzak finkatzea”.
 - “Udal-esparruan presentzia indartzea, eta, horretarako, tokiko korporazioei udal-teknikarien sarea mantentzen eta kulturarteko bizikidetzaren hobetzeko ekintzak finantzatzeko laguntzea”.
 - “Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte osoa sensibilizatzea kulturarteko kompetentziak eskuratzearekin, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarekin, diskriminazioaren aurkako borrokarekin, atzeritarrekiko estereotipo eta aurreiritzien aurkako borrokarekin eta hezikuntza-aniztasunarekin zerikusia duten gaietan”.
 - “Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen kulturartekotasuna bistaratzeko eta gure gizartearen kultura-aniztasuna ulertu eta errespetatzeko neurri eta ekintza proaktiboak erabakitzea”.
- Hizkuntzaren esparruko neurri programatikoen helburuak:
 - “Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea atzeritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen artean”.
 - “Hizkuntza-kudeaketaren arloko prestakuntza eta sensibilizazioa (gaztelania, euskara eta beste hizkuntza batzuk)”.
- Osasunaren esparruko neurri programatikoen helburuak:
 - “Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko biztanleek osasun-arreta eskuragarri dutela zaintzea, kulturarteko ikuspegitik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan”.
 - “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sensibilizatzea eta prestatzea”.

- Etxebizitzaren esparruko neurri programatikoen helburuak:
 - “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sentsibilizatzea eta prestatzea”.
 - “Atzerriar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan”.
 - “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak sustatutako eraikin sozialetan eta/edo sustapenetan bizitegi-kontzentrazioak eta -segregazioak saihestea, baita ghettoak sortzea ere”.
- Esparru juridikoko neurri programatikoen helburuak:
 - “Atzerriar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen doako eta kalitateko laguntza juridikoa ematea, haien eskubide eta betebeharren inguruan”.
 - “Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari laguntza juridikoa ematea Atzerriartasunari buruzko Legearen inguruan eta atzerriar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen eskubide eta betebeharren inguruan”.
 - “Atzerriar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko biztanleek beren eskubide, gizarte-baliabide eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan balia ditzaketela bermatzea”.
- Babes-neurrien helburuak:
 - “Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aginduen bidez, finantza-laguntza ematea egoera bereziki problematikoan eta/edo zaurgarrian dauden atzerriar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonekin lan egiten duten erakundeei”.
 - “Immigrazioari eta asiloari buruzko kalitateko informazioa izatea eta ematea, baita atzerriar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboari buruzkoa ere, erabaki politiko, ekonomiko eta sozialak hartzean ziurgabetasuna murriztuz”.

Ekintza bakoitzaren helburu espezifikoak: ekintza bakoitzaren deskribapen xehatua — ekintza bakoitzaren bosgarren atalean — ekintza bakoitzak lortu nahi dituen helburu zehatzak adierazten dira.

2.4. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren (2022-2025) hedapenaren jarraipena egite aldera, bi prozesu desberdin eta osagarri proposatzen ditugu azken ebaluaziorako:

1. Jarraipena. Jarraipen Batzorde bat sortzea proposatzen dugu Planaren garapenaren jarraipena egiteko. Jarraipen horren bidez neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dira, helburu berriak planteatu ahal izango dira, ekintza berriak ezarri ahal izango dira, Plan

honetan adierazitakoak aldatu ahal izango dira, eta abar. Jarraipen Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- a Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako kide batek.
- b Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko Idazkaritza Teknikoko pertsona batek.
- c Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko Koordinazio Idazkaritzako pertsona batek.
- d Biltzen zerbitzuko pertsona batek.
- e Ikuspegi behatokiko pertsona batek.

Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak kide gehiago sartu ahal izango ditu batzorde horretan, egoki baderitzo.

Jarraipen Batzordeak egoki iruditzen zaizkion bilerak egingo ditu, bai Foroaosatzen duten batzordeekin —informazioa bildu eta dokumentazioa egiaztatzeko—, bai Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariek, baita bere intereseko beste edozein talderekin ere. Foroko batzordeen eginkizunak kontuan izanik, nahikoa izan daiteke Jarraipen Batzordea lau hilean behin biltzea —eginkizun horien artean daude: VI. Planeko ekintzen jarraipenean parte hartzea; batzorde horietako bakoitzean Zuzendaritzako pertsona bat egotea; sistemaren berrantolaketa, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako tresnak koordinatzeko aldizkako bilerak ezartzea; sistema osoaren berrantolaketa, Zuzendaritzaren eta udal- eta foru-teknikarien arteko aldian behingo bilerak ezartzea; eta Foroaren batzordeetan Eusko Jaurlaritzaren zenbait sail eta instantziek parte hartzea eta laguntzea—.

Gainera, Jarraipen Batzordeak urteko txosten betearazle laburra prestatuko du, planaren aurrerapenen berri emango duena eta Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Batzorde Iraunkorrari aurkeztuko zaiona.

Jarraipen Batzorde horrek kontuak emango dizkie Foroaren batzordeei, baldin eta Koordinazio Idazkaritzari hala eskatzen badiote.

2. Planaren ebaluazioa. Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025) ezarritako jardura-aldia amaitu ondoren, bertan jasotako ekintzei zer neurritan heldu zaien ebaluatzeko txostena egingo da, ekintza horietako bakoitzean ezarritako adierazleak oinarri hartuta.

3. METODOLOGIA

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana egiteko, kontuan hartu da Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren (2018-2020) ebaluazio-txostena, bereziki haren ondorioak eta gomendioak. Era berean, estrategia partizipatiboa eta partizipatua garatu da, errealitatearen diagnostiko osoan eta ahalik eta objektiboenean oinarrituta, eta estrategia horretan sektorean lan egiten duten eragile guztiek hartu dute parte.

Lehenengo fasean (2021eko maiatza-ekaina), eta lehendik dagoen dokumentazioa bildu eta aztertu ondoren, sektore horretan lan egiten duten xede-publikoengana jo genuen, haien iritziak ezagutzeko eta haien laguntza izateko:

- 14 bilera (*focus group*) egin ziren Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko zortzi batzordeekin (landa-lan honetan, foroak zortzi batzorde zituen), Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariekin, Biltzen zerbitzuko langileekin, Ikuspegi behatokiko langileekin, udal- eta foru-esparruan lan egiten duten teknikariekin, esparru akademikoko eta enpresa pribatuetako adituekin, eta hirugarren sektoreko entitate eta erakundeekin.

Ondoren (2021eko iraila-azaroa), VI. Plan hau egin eta idazteari ekin zitzaion, alde zuzenetik lortutako eta aztertutako dokumentaziotik abiatuta. Zirriborro hori bilera monografikoetan egiaztatu zen, goraxeago aipatutako taldeekin:

- 14 bilera (*focus group*) egin ziren Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko zortzi batzordeekin (landa-lan honetan, foroak zortzi batzorde zituen), Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariekin, Biltzen zerbitzuko langileekin, Ikuspegi behatokiko langileekin, udal- eta foru-esparruan lan egiten duten teknikariekin, esparru akademikoko eta enpresa pribatuetako adituekin, eta hirugarren sektoreko entitate eta erakundeekin.

Oro har, bi bilera egin dira Foroa osatzen duten batzordeetako bakoitzarekin (Gizarte Baliabideak eta Etxebizitza; Osasuna; Hezkuntza; Berme Juridikoak eta Giza Eskubideak; Lana; Harrera; Berdintasuna eta Herritarren Parte-hartzea; Kultura; eta Sentsibilizazioa), Plan osoari buruz gogoeta egite aldera, baina, batez ere, jarduketa-esparru espezifikoiei buruz gogoeta egite aldera.

Ondoren, kontraste horren ondoriozko zirriborro berria zabaldu zen, eta Eusko Jaurlaritzako zenbait saili (Lehendakaritza; Segurtasuna; Etxebizitza; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak; Enplegua; Osasuna; Garapen Ekonomikoa; Emakunde; Kultura; eta Kirola), hiru foru-aldundiei eta Eudeli bidali zitzaion, baita beste organismo eta erakunde batzuei ere, horien ekarpenak eta iradokizunak jaso zitezen.

Guztira 130 pertsona inguruk lagundu dute.

Gainera, prozesu osoan, bi kontraste-taldek modu aktiboan parte hartu zuten. Talde horiek prozesu osoan sortu den dokumentazio guztia aztertu zuten, eta hileroko lan-bilerak egin zituzten jarduketaren jarraipena egiteko asmoz. Horietako bat Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Immigrazio eta Asilo Zuzendaritzako arduradunek osatu zuten (bi pertsona), eta bestea Zuzendaritzako bereko teknikariek (zazpi pertsona).

Planaren azken bertsioa idatzi ondoren, Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Osoko Bilkurarako deia egingo da, horren berri eman dadin —lehen *Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa* zen—.

4. JARDUTEKO PROPOSAMENAK

Atal honetan labur-labur azalduko ditugu *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025)* biltzen dituen 103 ekintzak, hiru atal nagusitan banatuta: neurri estrategikoak, antolaketa-neurriak eta neurri programatikoak.

Ekintza horien guztien artean, batzuk erreaktiboak dira, hau da, egoera problematiko bat ebatzi edo arindu nahi dute edo, gutxienez, egoera horiei erantzun nahi diete; beste batzuk, berriz, proaktiboak dira, edo, bestela esanda, kulturartekotasunaren arloan, bestelako gizarte-kohesioko eta bizikidetzako giroak sortzen lagundu nahi dute, askotariko euskal herritarren eskubideen eta betebeharren berdintasunaren printzipioan oinarrituta.

4.1. Neurri estrategikoak

4.1.1. Migraziorako Euskal Itun Soziala

Helburua: “Migraziorako Euskal Itun Soziala euskal gizartean hedatzea”.

- 4.1.1.1. Migraziorako Euskal Itun Sozialari bultzada ematea udalerrietan.
- 4.1.1.2. Migraziorako Euskal Itun Soziala hedatzen lagunduko duten materialak prestatzea.
- 4.1.1.3. Beldur Barik gisako lehiaketa-programa bat antolatzea, baina Itunean biltzen diren kulturarteko giltzarriekin.
- 4.1.1.4. Webgune bat eta aplikazio eleaniztun bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan migratzaileen eta errefuxiatuen harrera-prozesuetarako informaziorik garrantzitsuena bilduko duena eta Migraziorako Euskal Itun Sozialari buruzko atal bat izango duena.
- 4.1.1.5. Migraziorako Euskal Itun Soziala Eusko Jaurlaritzan bertan hedatzea.
- 4.1.1.6. Itunaren Eguna edo urteko ospakizuna sortzea.
- 4.1.1.7. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren herritar etorkinen eskubideei eta betebeharrei buruzko dokumentu baten inguruan hausnartuko duen lantaldea sortzea.

4.1.2. Euskal Harrera Eredua

Helburua: “Euskal Autonomia Erkidegoan atzerritar jatorriko etorkinei (barnean direla asiloa eta babesa eskatzen dutenak) zuzendutako Euskal Harrera Eredua abian jartzea”.

4.1.2.1. Euskal Harrera Eredu berriaren proba pilotua egitea.

4.1.2.2. Immigrazioaren Euskal Behatokia (Ikuspegi) prestatzen ari den eroldari buruzko txostenetik ateratako ondorioak eta gomendioak Udalen artean hedatzea.

Helburua: “Atzerritar jatorriko pertsonen harrerarako laguntzak mantentzea eta hobetzea”.

4.1.2.3. Asilo-eskatzailentzako bizitoki-baliabideei eustea (eta, beharrezkoa izanez gero, baliabideak gehitzea).

4.1.2.4. Euskal Autonomia Erkidegotik zirkulatzen duten iragaitzako etorkinentzako bizitoki-baliabideei eustea (eta, beharrezkoa izanez gero, baliabideak gehitzea).

4.1.2.5. Errefuxiatuentzako Babes Komunitarioko Programa.

4.1.2.6. Babesa eta asiloa eskatzen duten pertsonen eta herrigabeen asistentzia juridikorako laguntza ekonomikoa.

4.1.2.7. Etorkinen harrerarako laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, Planaren lehentasuneko ildoekin bat.

4.1.3. Euskarri estrategia

Helburua: “Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta Eudelek abian jarritako Euskarri estrategiaren garapenean sakontzea, adingabeen eta 21 urte bitarteko adin nagusiko gazteen errealitate sozialari eta problematikari heltzeko”.

4.1.3.1. Euskarri strategiako erakunde arteko lantaldea koordinatu eta dinamizatuko duen idazkaritza teknikoa sortzea.

4.1.3.2. Familia-laguntzarik ez duten gazte atzerritarrei laguntzeko programa pilotua garatzea.

4.1.3.3. Harrera-gizartera egokitze zailtasunak dituzten migrazio-jatorriko aurrenerabeei zuzendutako gizarte-mentoretzako programa garatzea.

4.1.3.4. Sailak laguntza ekonomikoa ematea bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrekin (18 urtetik beherakoak) bereziki lan egiten duten entitateei eta erakundeei, berariazko prestakuntza-ibilbideak eta -programak egin ditzaten.

4.1.3.5. Sailak laguntza ekonomikoa ematea bidaidetik gabeko gazte atzerritarrekin (18 urtetik gorakoak) bereziki lan egiten duten entitateei eta erakundeei.

4.1.3.6. Gazte atzerritarrak gizarteratzeko ibilbideak hedatzea, hirugarren sektoreko erakundeen bitartez.

4.1.4. Atzerritar jatorriko emakumeak

Helburua: “Atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko emakumeen errealitate sozialari heltzea, eta arreta berezia jartzea gerta daitezkeen zaugarritasun-egoerei”.

- 4.1.4.1. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko kontzientziazio-kanpaina egitea, eta kanpaina horretan arreta berezia jartzea atzerritar jatorriko emakumeei.
- 4.1.4.2. Kultura- eta egoera-giltzarrei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaintzea, baztertutako magrebtar gazteekin esku hartzeko.
- 4.1.4.3. Kulturarteko ikuspegiari buruzko sentsibilizazioa, eta bertako eta migratutako edo arrazializatutako emakumeek elkarrekin partekatutako lanaren analisi intersektionala.
- 4.1.4.4. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko sentsibilizazioa.
- 4.1.4.5. Zaintza eta etxeko lanetan lan egiten duten atzerritar jatorriko emakumeak online prestatzeko programa.

Helburua: “Atzerritar jatorriko emakume etorkinen kolektiboekin lan egiten duten erakundeentzako laguntzak mantentzea eta hobetzea”.

- 4.1.4.6. Atzerritar jatorriko emakume etorkinekin lan egiten duten erakundeentzako laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, Planaren lehentasunezko ildoekin bat.
- 4.1.4.7. Sailak laguntza ekonomikoa ematea adingabeak zaintzapean dituzten emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
- 4.1.4.8. Sailak laguntza ekonomikoa ematea herrialde arabiarretatik datozen eta egoera zaugarrian eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkin adin nagusikoekin lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
- 4.1.4.9. Sailak laguntza ekonomikoa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen dituzten emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
- 4.1.4.10. Sailak laguntza ekonomikoa ematea prostituzioan aritzen diren emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
- 4.1.4.11. Sailak laguntza ekonomikoa ematea indarkeria matxistaren biktimak diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin egindako lan-ibilbidea frogatzen duten entitateei eta erakundeei.
- 4.1.4.12. Atzerritar jatorriko emakume etorkinen taldeen errealitate soziala, egoera eta premien azterketa deskribatzailea eta analisisa egitea.

4.2. Antolaketa-neurriak

Helburua: “Herriartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren sektorean lan egiten duten eragileen sistemaren koordinazioa eta sinkronizazioa hobetzea”.

- 4.2.1. Immigrazioaren, asiloaren, aniztasunaren, kulturartekotasunaren eta bizikidetzaren arloetan lan egiten duten gizarte-eragileek osatutako sistema indartzea. Sistema horretan sartu eta integratuko dira Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean Sarea, Eusko Jaurlaritzaren beste instantzia batzuk (Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza...), Aldundiak, Udalak, etorkinen erakundeak, migrazioaren esparruan lan egiten duten erakundeak, hirugarren sektoreko beste erakunde batzuk, bestelako organismoak eta erakundeak (unibertsitateak, bestelako administrazioak, erakunde pribatuak, eta abar), Migrazio eta Asiloko Euskal Foroa, eta Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeak.
- 4.2.2. Migrazio eta Asiloko Euskal Foroa (lehen Euskal Autonomia Erkidegoko Herriart Etorrinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa) eta haren zortzi batzordeak (bederatzi, barnean hartzen badugu Asilo Batzorde sortu berria) berrorientatzea, baita egoki irizten diren beste batzuk ere, eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretua eguneratzea.
- 4.2.3. Biltzen erakundearen helburuak berritzea eta berriro zehaztea, erakundearen ekintza Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoekin bat etor dadin.
- 4.2.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren dirulaguntzen ildoak sortzea, VI. Plan honen lehentasunezko ildoekin bat etorriko dena.
- 4.2.5. 271/2012 Dekretua eguneratzea. Dekretu horrek arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak, baita pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko dirulaguntzak eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak ere.
- 4.2.6. Gobernu Zentraleko ordezkariordeekin eta kontsulatuarekin koordinatzeko harremanak modu formalean ezartzea.
- 4.2.7. Eusko Jaurlaritzako sailekin hitzarmenak egitea, Ikuspegi erakundeak datuak ikerketa-helburuarekin atzi ditzan (identifikatzailerik gabeko datu agregatuak).

Helburua: “Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak sistema horretan duen lidergoa indartzea”.

- 4.2.8. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikarientzako, bereziki, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarentzako, oro har, urteko prestakuntza-plana prestatzea.
- 4.2.9. Udal- eta foru-teknikari publikoentzako urteko lan-plangintza prestatzea, erakunde arteko koordinazioa hobetze aldera.
- 4.2.10. Errotze sozialeko txostenak, etxebizitza egokitzeko txostenak eta udal-esparruan integratzeko ahaleginaren txostenak egiteko formula egokia aztertzea, udal-politikekin lotuta egon dadin.
- 4.2.11. Zenbait xede-talderen (hezkuntza-langileak, osasun-langileak, segurtasun-langileak, gizarte-eragileak, enpresa-sarea, hirugarren sektoreko erakundeak, eta

abar) prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako online prestakuntza-eskaintza garatzea, bertako eta/edo kanpoko prestakuntza-taldeen bidez.

- 4.2.12. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren web-orriko edukiak eguneratzea, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan.

4.3. Neurri programatikoak

4.3.1. Hezkuntza-esparrua

Helburua: “Ikasle guztien garapen osoa eta eskola-arrakasta bermatzea, eta inklusio, ekitate eta bikaintasunaren printzipioak gauzatzea”.

- 4.3.1.1. Zuzendaritzak laguntzea familien prestakuntza eta ikastetxeekiko inplikazioa bultzatuko duten komunitate-espazioen sorreran.

Helburua: “Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren handiagoa lortzea, gure ikastetxeetako eskolatze inklusiboaren bidez”.

- 4.3.1.2. Zuzendaritzak laguntzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langileek ikastetxeetan ikasle etorkinen arretarako abian jartzen dituzten ekimenetan.

- 4.3.1.3. Euskara jakin gabe lehen eta bigarren hezkuntzara iritsi berri diren ikasleen hizkuntza-errefortzurako baliabideak gehitzea.

Helburua: “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sentsibilizatzea eta prestatzea”.

- 4.3.1.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak laguntzea kulturartekotasunari buruzko hausnarketa eta prestakuntza zuzendaritza-taldeen prestakuntza-planaren barruan sartzen, prestakuntzaren bidez.

- 4.3.1.5. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak laguntzea familien prestakuntzaren eta partaidetzaren arloko jardunbide egokien aukeraketan eta dibulgazioan.

- 4.3.1.6. Autonomia-, foru- eta udal-teknikariez osatutako lantalde bat sortzea, atzerriar jatorriko eta/edo etorkiko ikasleen balizko eskola-kontzentrazioak udalerrian izan ditzakeen ondorioei buruz gogoeta egiteko.

4.3.2. Enplegu- eta prestakuntza-esparrua

Helburua: “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak esparru horretan sentsibilizatzea eta prestatzea”.

- 4.3.2.1. Lanbideko eta erakunde laguntzaile espezifikoetako orientazio-teknikariak sentsibilizatzea eta prestatzea —Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Biltzen erakundearen laguntzarekin— ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean.

Helburua: “Atzerritar jatorriko pertsonen lan-orientazioko prozesuak eta protokoloak errazago erabiltzea, haien enplegurako aktibazioa indar dadin”.

- 4.3.2.2. Zuzendaritzak laguntzea etorkin helduen artean hizkuntzen ikaskuntza berrikusten eta sustatzen (Helduen Hezkuntza), etorkin horien integratzeko eta prestakuntza eta enplegurako bide gisa —arreta berezia jarriko zaie emakumeei eta gazteei—.
- 4.3.2.3. Zuzendaritzak laguntzea Helduen Hezkuntzako prestakuntza-edukiak berrikusten eta dibertsifikatzen.
- 4.3.2.4. Zuzendaritzak laguntzea lan-orientazioko informazio-materialak (enplegurako prestakuntza) zenbait hizkuntzatan eguneratzen.
- 4.3.2.5. Zuzendaritzak laguntzea prestakuntzarako eta lan-munduratzeko laguntzen deialdiak berrikusten: gauzatze-epeen egokitzapena, lan-munduratzeko baldintzak, eta abar.

Helburua: “Atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen lan-munduratzeko gaitasun behar dituzten oztopoak gutxitzea eta irisgarritasuna hobetzea”.

- 4.3.2.6. Lan- eta prestakuntza-programa.
- 4.3.2.7. Zuzendaritzak laguntzea egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen lanbide-kompetentziak aitortu daitezkeen.
- 4.3.2.8. Zuzendaritzak laguntzea profesionaltasun ziurtagiriei, lanbide-esperientziaren aitortpenari eta atzerriko tituluak homologatu eta baliozkotzeko buruzko informazioa zabaltzen.
- 4.3.2.9. Zuzendaritzak laguntzea aniztasunaren kudeaketaren arloko prestakuntza-espezialitate bat aktibatzen, enplegurako eskura dagoen etengabeko prestakuntzako katalogoaren barruan.

Helburua: “Atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen prestakuntza- eta lan-birziklapenerako hezkuntza-erakundeak zabaltzea eta hobetzea”.

- 4.3.2.10. Zuzendaritzak laguntzea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonak alfabetatze digitaleko prestakuntza-erakundean sartzen.
- 4.3.2.11. Zuzendaritzak laguntzea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinen prestakuntza eta birziklatzea berrikusten (enplegurako aktibatzearen orientazioa eta prestakuntza) eta berriazko prestakuntza-katalogoak egiten.

4.3.3. Bizikidetzaren esparrua

Helburua: “Udal-esparruan presentzia indartzea, eta, horretarako, tokiko korporazioei udal-teknikarien sarea mantentzen eta kulturarteko bizikidetzaren hobetzeko ekintzak finantzatzen laguntzea”.

- 4.3.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntzea herritarren eskubide eta betebeharren arloan eta etorkinen gizarteratzearen arloan lan egiten duten udal-teknikarien sarea mantentzen.
- 4.3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntza ekonomikoa ematea, herritarren eskubideen eta betebeharren arloko eta etorkinen gizarteratzearen arloko jarduerak gara ditzaten.
- 4.3.3.3. Euskal Autonomia Erkidegoko udalen herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren arloko ekintza babestuko duten eta arlo horietan esku hartuko duten hiru talde sortzea —lurralde historiko bakoitzeko bat—. Tokiko teknikariek (udaletakoek edo mankomunitateetakoek) talde horietan lagundu ahal izango dute (kulturartekotasunean edo gizarte-ekintzako jarduera ez-espezifikoa), Zuzendaritzaren estrategia Euskal Autonomia Erkidego osora irits dadin.
- 4.3.3.4. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei (EUDEL) laguntza ekonomikoa ematea, hizkuntza-zailtasunak dituzten etorkinekin komunikatzea erraztuko duen itzulpen-eta interpretazio-sistema eskain dadin.

Helburua: “Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte osoa sentsibilizatzea kulturarteko konpetentziak eskuratzearekin, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarekin, diskriminazioaren aurkako borrokarekin, atzerritarrekiko estereotipo eta aurreiritzien aurkako borrokarekin eta hizkuntza-aniztasunarekin zerikusia duten gaietan”.

- 4.3.3.5. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte, elkarteak, etorkinen erakundeak, etorkinentzako erakundeak, etorkinentzako elkarteak eta abar sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean, betiere solasaldien, mintegien, hedabideetako esku-hartzeen eta abarren bidez.
- 4.3.3.6. Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun-langileak (ertzainak eta udaltzainak) sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean, betiere Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestakuntza-taldeen prestakuntzaren bidez.
- 4.3.3.7. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezariburuzko informazio- eta sentsibilizazio-saioak eskaintzea, baldin eta hartzaile nagusiak atzerritarrak, arrazializatuak edo etniaren eta kulturaren aldetik askotarikoak diren pertsonak badira.
- 4.3.3.8. Transferitu berri den espetxe-eskumeneko langileak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean.
- 4.3.3.9. Zurrumurruen Aurkako Sarearen (ZAS) laguntza ekonomikoa. Sare horrek atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen zuzendutako estereotipo faltsuen eta aurreiritzien aurka borrokatzen du, baita diskurtso arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileen aurka eta berdintasun handiagoko gizartearen alde ere.
- 4.3.3.10. Kulturartekotasunaren ikuspegia ikusaraztea eta integratzea Zuzendaritzaren, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalean.
- 4.3.3.11. Jardunbide egokiei buruzko akordioa sinatzea hedabideekin, herritartasunaren, kulturarteko elkarbizitzaren eta immigrazioaren arloan mugak ezar daitezen, betiere

eskubide-berdintasunean oinarritutako iritzi publiko informatua eta errespetuzkoa eraikitzeari dagokionez.

Helburua: “Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen kulturartekotasuna bistaratzeko eta gure gizartearen kultura-aniztasuna ulertu eta errespetatzeko neurri eta ekintza proaktiboak erabakitzea”.

4.3.3.12. Zuzendaritzak maila goreneko agintari publikoei laguntzea atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonentzako kultura-, kirol- eta gizarte-agerpen garrantzitsuetan eta data garrantzitsuetan, besteak beste.

4.3.3.13. Udalerrian edo auzoan ekintza proaktiboak sustatzea, tokiko kolektiboen arteko interakzioa sustatzen dutenak, espazio partekatuak sortzen dituztenak eta kultura-aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituztenak.

4.3.4. Hizkuntza-esparrua

Helburua: “Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea atzeritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen artean”.

4.3.4.1. Udalerrian edo auzoan, euskara atzeritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleengana hurbiltzeko ekintzak sustatzea, baita tokiko kolektiboen arteko interakzioa bultzatzen duten ekintzak eta eremu partekatuak sortzen dituzten eta hizkuntza-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituzten ekintzak ere.

4.3.4.2. HABErekin lankidetzak-hitzarmena berrabiaraztea, atzeritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatzeko.

4.3.4.3. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzak, euskararen autoikaskuntzarako aplikazioa hedatzeko, betiere atzeritar jatorriko, etorkiko eta/edo nazionalitateko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatuko duen neurri gisa.

4.3.4.4. Hizkuntza-alderdiei eta immigrazioari buruz hausnartuko duen lantaldea sortzea autonomia-, udal- eta foru-teknikariekin.

Helburua: “Hizkuntza-kudeaketaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa (gaztelania, euskara eta beste hizkuntza batzuk)”.

4.3.4.5. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-kudeaketaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan elkarrekin lan egitea, migrazioen arloan lan egiten duten udal- eta foru-teknikariei zuzenduta.

4.3.4.6. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-kudeaketaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan elkarrekin lan egitea, etorkinen erakundeei eta etorkinen errealitate soziala hobetzeko lan egiten dutenei zuzenduta.

4.3.5. Osasun-esparrua

Helburua: “Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko biztanleek osasun-arreta eskuragarri dutela zaintzea, kulturarteko ikuspegitik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan”.

- 4.3.5.1. Atzeritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen osasun-arreta eskuratzeko aukera bera dutela agerian uzten duten datuak bilatzea edo, bestela, horretarako ezarritako neurri zuzentzaileak aztertzea, Osasun Sailarekin, elkarte-sarearekin eta unibertsitateekin elkarlanean.
- 4.3.5.2. Osasun Sailari helaraztea mendekotasun-egoeran dauden etorkinen arbaso berrelkartuei arreta emateko beharra.

Helburua: “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sentsibilizatzea eta prestatzea”.

- 4.3.5.3. Osakidetzako prestakuntza-taldeen prestakuntzaren bidez, pertsonal sanitarioa eta ez-sanitarioa sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan, kulturarteko kompetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.
- 4.3.5.4. Ikasleak eta osasun-zientzien arloko (medikuntza, odontologia, erizaintza, fisioterapia, farmazia, eta abar) unibertsitateko ikasleak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan, kulturarteko kompetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.

4.3.6. Etxebizitza-esparrua

Helburua: “Aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin lotzen den guztian lan egiten eta interakzioan jarduten duten kolektiboak sentsibilizatzea eta prestatzea”.

- 4.3.6.1. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko egungo araudien azterketan laguntzea, eta araudi horiek kulturarteko ikuspegia barnean har dezaten egin beharreko aldaketak bidezko instantziari proposatzea.
- 4.3.6.2. Higiezinaren sektoreko profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan, kulturarteko kompetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.

Helburua: “Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan”.

- 4.3.6.3. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko informazio-materialak zenbait hizkuntzatan egiten laguntzea, araudia Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte osatzen duten kolektiboetara hurbiltzeko.

Helburua: “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak sustatutako eraikin sozialetan eta/edo sustapenetan bizitegi-kontzentrazioak eta -segregazioak saihestea”.

4.3.6.4. Zuzendaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari laguntzea etxebizitza sozialak adjudikatzeko irizpideak aztertzen eta aldatzen (hala badagokio), eraikin, urbanizazio eta/edo hiri-eremu jakin batzuetan atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsona gehiegi kontzentra ez dadin.

4.3.7. Esparru juridikoa

Helburua: “Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen doako eta kalitateko laguntza juridikoa ematea, haien eskubide eta betebeharren inguruan”.

4.3.7.1. Zuzendaritzak atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen laguntzeko eta aholkularitza juridikoa emateko egiten duen lana finkatzea, Aholku Sarearen zeregina hausnartu, aztertu eta hobetzearen bidetik.

4.3.7.2. Lurralde historiko bakoitzean batzordeak sortzea, egoera irregularrean dauden etorkinak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko prozesuetan laguntza juridikoa eman dezaten.

Helburua: “Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari laguntza juridikoa ematea Atzeritartasunari buruzko Legearen inguruan eta atzeritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen eskubide eta betebeharren inguruan”.

4.3.7.3. Biltzen erakundearen aholkularitza juridikoko zerbitzuari eustea.

Helburua: “Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko biztanleek beren eskubide, gizarte-baliabide eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan balia ditzaketela bermatzea”.

4.3.7.4. Gizarte-baliabideak eskuratzeko baldintzak eta atzeritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen horiek eskuratzeko dituzten oztopoak —eskubide horiek aukera beretan baliatzea eragozten dutenak— aztertuko dituen txostena egitea.

4.3.7.5. Bankuei atzeritar jatorriko pertsonentzat oinarritzko kontu bat irekitzeko betebeharrak gogorarazteko kanpaina egitea.

4.3.7.6. Udalei udalerrian erroldatuta dauden atzeritar jatorriko pertsonen boto-eskubidea (hala badagokie) gogorarazteko kanpaina egitea.

4.3.7.7. Kirol-federazio eta -kluben eta Gobernuaren ordezkariordetzen artean bitartekaritza-lana egitea, egoera administratibo irregularrean dauden gazteak pertsona federatu gisa kirola egiteko neurri juridikoak har daitezen.

4.3.8. Laguntza ekonomikoa

Helburua: “Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aginduen bidez, finantza-laguntza ematea egoera bereziki problematikoan eta/edo zaugarrian dauden atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonenekin lan egiten duten entitateei eta erakundeei”.

- 4.3.8.1. Sailak laguntza ekonomikoa ematea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
- 4.3.8.2. Sailak laguntza ekonomikoa ematea atzerritar etorkiko pertsonen eta/edo familiekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.

4.3.9. Ikerketa: informazioa sortzea

Helburua: “Immigrazioari eta asiloari buruzko kalitateko informazioa izatea eta ematea, baita atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboei buruzkoa ere, erabaki politiko, ekonomiko eta sozialak hartzean ziurgabetasuna murrizt dadin”.

- 4.3.9.1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek atzerritar jatorriko pertsonen inguruan dituzten pertzepzioen eta jarreraren barometroa urtero ikertzea eta hedatzea.
- 4.3.9.2. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten jarrerak eta posizioak lau urtean behin ikertzea eta hedatzea.
- 4.3.9.3. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoak egiten duen Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestarako (EABI) ikerketa eta hedapena lau urtean behin egitea.
- 4.3.9.4. Erroldaren azterketa ikertzea eta hedatzea: erroldaren azterketa; erroldaren alde onak eta txarrak, eskubideak eta/edo zerbitzuak balia daitezen errazteko tresna gisa; sistemaren perbertsioak; hobetzeko proposamenak; ondorio juridikoak; sarbide zaileko kolektiboak; eta abar.
- 4.3.9.5. Informazioaren hiru sistematizazio egitea.
- 4.3.9.6. Udal-kudeaketako zenbait eredu integraturen konparazio-azterketa egitea.

5. MEMORIA EKONOMIKOA

Gure ustez, hau izan daiteke Planak hartzen dituen lau ekitaldietarako (2022-2025) Plan honetan proposatutako neurriak aztertu, garatu eta inplementatzeko aurrekontu-esleipena, betiere Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak egungo aurrekontu-banaketan dituen partida handien kontzeptuak kontuan hartuta:

1. taula. Zuzendaritzaren partida handien banaketa (2022-2025)⁴

Kontzeptuak	2022-2025
Zuzendaritza	492.000
Bizikidetzatza, kulturartekotasuna eta tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza	6.719.344
Ikerketa, behaketa eta hedapena	1.930.348
Atzerriartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa	2.730.336
Tokian tokikoa	3.740.000
Harrera	17.920.000
Beste jarduerak batzuk, hirugarren sektoreko erakundeak	2.200.000
Guztira	35.732.028

Aurreko taulan islatzen diren ekintzak gauzatze aldera, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak honako zerbitzu hauek ditu: (i) Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua (BILTZEN); (ii) Aholku Sarea; eta (iii) Immigrazioaren Euskal Behatokia (IKUSPEGI). Tresna horiek guztiak Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren mende daude.

⁴ Partidetan eragina duten beste aldagaketa batzuek gain, ezarritako hirurtekoaren guztizko kopuruak kalkulatzeko garaian, % 3 eta % 2ko igoerak zenbatetsi ditugu 2019 eta 2020ko ekitaldietarako, hurrenez hurren —2018an partida horien aurrekontu-esleipena oinarri hartuta—.

6. PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA

Ondoren, proposatutako neurri bakoitza xehatzen da; horretarako, aditzera emango dira ekintza bakoitzaren deskribapen laburra, ekintza bakoitzaren helburu espezifikoak, prozesua ebaluatzeko adierazleak (plana betetzea), emaitzak ebaluatzeko adierazleak (ekintzaren eraginkortasuna), ekintzaren ardura duen saila, zuzendaritza, zerbitzua edo erakundea, eta ekintzaren lehentasuna.

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.1. <i>Migraziorako Euskal Itun Sozialari</i> bultzada ematea udalerrietan
Deskribapena	<i>Migraziorako Euskal Itun Soziala</i>, Euskal Autonomia Erkidegoko korrante ideologiko guztiak ordezkatzeko dituzten sentsibiltate desberdineko pertsonen egin. Topagune politikoa da Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte osoarentzat, eta bizikidetasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloko "joko"-koordinatuak ezartzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak herritartasun plural eta inklusiboaren norabidean aurrera egin dezan bultzatzen du. Horretarako, herritar guztien funtsezko eskubideak eta betebeharrak bizitokia izango dute ardatz, eta ez nazionalak edo atzerritarrak izatea. Itunak zentzuzko esparrua eratzen du, printzipioen eta balioen inguruan altxatzen den oinarritzko konpromisoa; alabaina, jardutera animatuko duen itun bihurtu nahi du, izaera performatiboa izango duena. Itunak tokiko hedapen-planoa izango du, hau da, udalerrietan sortzen den eguneroko bizikidetzat. Ildo horretan, ezinbestekoa da udalak Itunari atxikitzea eta udalerrian hedatzeko konpromisoa hartzea. Hartara, Eusko Jaurlaritzak Migraziorako Euskal Itun Sozialari atxikitzeko kanpaina sustatu du, hurrengo urteetan hedatzeko abiapuntu gisa. Kanpaina hori 2021eko abenduan amaituko da, guztiak batera egingo duten ekitaldi batean. Ekitaldi horretan, Itunari atxiki zaizkion Udalei beren udalerrietan gara ditzaketan ideiak biltzen dituen katalogoa emango zaie, betiere Udalen irizpideen arabera.
Helburua	Itunari Euskal Autonomia Erkidegoko ahalik eta udal gehien atxikitzea
Prozesuaren ebaluazioa	Atxikitako udal kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Itunari atxiki zaizkio udaletan hedatutako ekintzak
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2021, 2022

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.2. Migraziorako Euskal Itun Soziala hedatzen lagunduko duten materialak prestatzea
Deskribapena	Aurreko ekintzaren (4.1.1.1.) osagarri gisa, proposatzen da Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak materialak lantzea eta udalei eskaintzea, udalek gauzatu nahi dituzten ekintzak errazte aldera. Horien artean udalentzat baliagarriak izan daitezke: 1. Ituna aurkeztuko duen bideo bat 2. Itunaren edukia azalduko duen bideo bat 3. Sare sozialetan erabil daitezkeen piezak 4. Udalerrietako eragile sozialei bidali ahal izango zaizkien paperezko edo pdf formatuko dokumentuak 5. Ikasleekin egingo diren jardueretan erabili ahal izango den unitate didaktikoa
Helburua	Ituna udalerrian heda dadin erraztea
Prozesuaren ebaluazioa	Landutako materialak
Emaitzen ebaluazioa	Materialak erabiltzen dituzten udalerrien kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.3. Beldur Barik gisako lehiaketa-programa bat antolatzea, baina Itunean biltzen diren kulturarteko giltzarriekin.
Deskribapena	Beldur Barik programaren gisako funtzionamendua duen lehiaketa-programa bat abian jartzea. Hortaz, ideia da gazte guztiak inplikatzeko, Ituneko kulturartekotasunaren balioak eta printzipioak barnera eta zabal ditzaten: berdintasuna (pertsona guztiok dauzkagu betebeharrak eta eskubide berberak, eta esparrua zuzenbide-estatua da); desberdintasunerako eskubidea (pertsona guztiak merezi dute errespetua, eta tolerantzia izan behar dugu BESTEAREKIN, pertsona desberdinekin, beti esparru juridikoaren barruan); interakzio positiboa (garrantzitsua da interakziorako, harremanetarako, hibridaziorako eta abarretarako espazio partekatuetan sortzea).
Helburua	Itunean biltzen diren kulturartekotasunaren printzipioak hedatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Lehiaketa abian jartzea
Eraitzen ebaluazioa	Parte hartzen dutenen kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehenetsia	Ertaina
Data	2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.4. Webgune bat eta aplikazio eleaniztun bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan migratzaileen eta errefuxiatuen harrera-prozesuetarako informaziorik garrantzitsuena bilduko duena eta Migraziorako Euskal Itun Sozialari buruzko atal bat izango duena
Deskribapena	Lehenik eta behin, hasiera batean bi atal nagusi dituen aplikazio bat diseinatu eta doan zirkularazi nahi da (plana garatzen denean atal gehiago izan ditzake): 1. Ituna: argitalpen eleaniztuna eta horren inguruan sortutako komunikazio-elementuak hedatzea (4.1.1.2 ekintza) 2. Euskadiko harrerarako gida: Eusko Jaurlaritzaren GIDATZEN gidan aurrez egindako lana bilduko da, baita Barakaldo, Getxo, Bilbo, Ermua eta Durangoko online gidetan egindako lana ere. Geroago izan ditzakeen lotespenak: euskara ikasteko aplikaziorako esteka.
Helburua	Itunaren printzipioak hedatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Aplikazioa abian jartzea
Emitzen ebaluazioa	Deskargen kopurua Aplikazioaren balorazioa Erregistratutako erabiltzaileen profil orokorrak
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.5. Migraziorako Euskal Itun Soziala Eusko Jaurlaritzan bertan hedatzea
Deskribapena	Migraziorako Euskal Itun Soziala erakundearen barruan hedatzea eta ezagutaraztea. Horretarako, barne-hedapenerako plan bat egitea proposatzen dugu, Itunaren giltzarriak ezagutaraz daitezen eta atxikimendu pertsonalak egon daitezen. Plan horrek zenbait maila izan ditzake: 1. Sailak, zuzendaritzak eta antzeko instantziak. Ituna azaltzeko bilerak presentzialak. Posta bidez bidaltzea azalpen-bideoa, pdf formatuko dokumentuak eta web-orrirako esteka. Itunaren eta haren giltzarrien infografia/txartela egitea eta ematea. 2. Eusko Jaurlaritzako beste sail eta zuzendaritza batzuk. Arduradunei bideoa, pdf formatuko dokumentua eta infografia/txartela bidaltzea. 3. Eusko Jaurlaritzako langile guztiak. Azalpen-bideoa eta Itunaren web-orrirako esteka jasoko dituen mezua bidaltzea langile guztiei.
Helburua	Itunaren printzipioak hedatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Bilerak sailekin Arduradunei mezua bidaltzea Langileei mezua bidaltzea
Emitzen ebaluazioa	Esteketan sartzen direnen kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.6. Itunaren Eguna edo urteko ospakizuna sortzea
Deskribapena	Egun bat aukeratzea eta Migraziorako Euskal Itun Soziala ospatzeari eskaintzea. Egun horretan Itunaren sozializazioari eta hedapenari buruzko aurkezpena edo laburpena egin daiteke. Adibidez, Itunaren giltzarri diren bost esaldietako soinu-puzzearen emaitzak aurkez daitezke zenbait hizkuntza eta dialektotan (ikus 4.1.1.4 ekintza), Itunaren Beldur Barik lehiaketaren bideo irabazleak aurkez daitezke (ikus 4.1.1.3 ekintza), beste ekintza batzuetan landutako materialak heda daitezke (ikus 4.1.1.2 eta 1.1.5 ekintzak), eta abar.
Helburua	Ituna hedatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Itunaren Eguna ospatzea
Emaitzen ebaluazioa	Parte hartzen dutenen kopurua Hedabideetako agerpenak
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.1 MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Ekintza	4.1.1.7. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren herritar etorkinen eskubideei eta betebeharrei buruzko dokumentu baten inguruan hausnartuko duen lantaldea sortzea
Deskribapena	Migratziorako Euskal Itun Sozialaren helburua da euskal gizarteak herritartasun plural eta inklusiboaren norabidean aurrera egitea, eskubideen eta betebeharren erabilera partekatua ardatz hartuta. Horretarako, diskriminazioak saihestu nahi dira, hau da, gizarte osatzen duten pertsonentzako erregimen juridiko desberdinak egotea saihestu nahi da, pertsonen nazionalitatea, gizarte-klasea edo norberaren determinazio librea edozein izanik ere. Ekintza horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen eskubideen eta betebeharren esparru juridikoari buruz hausnarketa egingo duen aditu-taldea sortu nahi da.
Helburua	Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen eskubideen eta betebeharren esparru juridikoari buruz hausnarketa egitea.
Prozesuaren ebaluazioa	Hausnarketa-taldea osatzea
Emaitzen ebaluazioa	Hausnarketa-taldearen txostena
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022-2024

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.1. Euskal Harrera Eredu berriaren proba pilotua egitea.
Deskribapena	Azken bi urteotan —2020 eta 2021ean—, eta batez ere lehenengoan, lantalde bat osatu zen gure lurraldean zeuden udal-harrerarako moduak edo ereduak aztertzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzeko moduko harrera-eredua diseinatze aldera. Azken batean, atzerritar jatorriko etorkinen Euskal Harrera Ereduaren zirriborro-proposamena ezarri zen. Emaitzako dokumentua Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari aurkeztu zitzaion, horrek azter eta aintzat har zezan. Orain, bidezkoa ematen du proba pilotua egitea. Aurretik, proba pilotu hori diseinatu eta abian jarriko duen lantaldea berraktiba dadin proposatzen da. Ekintza horrek, beraz, Euskal Harrera Ereduaren proba pilotua abian jartzea ekarriko du. Euskal Harrera Eredu hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin lotzeko modua aintzat hartu beharko da. Asmoa da proba pilotua 2023aren hasieran abiaraztea eta 2024aren amaiera arte luzatzea. Denbora hori nahikoa izango da probaren efikazia eta efizientzia ezagutzeko eta behar diren hobekuntzak egiteko. Gero, 2025ean, bidezko gomendioak jasoko dituen ebaluazio-dokumentua landuko da. Dokumentu horretan atzerritar jatorriko emakumeen proba pilotuaren emaitzari buruzko informazio banakatua eduki beharko dugu.
Helburua	Euskal Harrera Ereduaren proba pilotua abian jartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Proba pilotua abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Proba pilotuaren ebaluazio-txostena
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.2. Immigrazioaren Euskal Behatokia (Ikuspegi) prestatzen ari den erroldari buruzko txostenetik ateratako ondorioak eta gomendioak Udalen artean hedatzea
Deskribapena	Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokia Euskal Autonomia Erkidegoko errolda ikertzen ari da. Euskal udalerrietako errolda eta erroldatzea da atzerriar nazionalitateko eta/edo jatorriko pertsonen —administrazio-egoera erregularrean daudenak zein egoera irregularrean daudenak— beren eskubideak eskuratzeko eta zerbitzu garrantzitsuak baliatu ahal izateko bide nagusia. Ikuspegi behatokiaren ikerketa-helburuak atzerriar nazionalitateko eta/edo jatorriko pertsonen erroldatzeari buruzko indarreko legediaren ingurukoak dira; betiere etorkinek erroldan sartu ahal izateko dituzten oztopoei dagokienez, gertatzen ari diren jardun desegokiei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen jardun egokiei dagokienez, errolda soziala zabaltzeko aukerari dagokienez, eta abar. Ikerketa hori 2022ko lehen seihilekorako amaituta egongo da, eta dagokion txostena eta haren ondorioak eta jarduteko gomendioak oso interesgarriak izango dira etorkin guztiei erroldan sartzen laguntzeko eta euskal udalek gai horretan egiten dituzten jardunak batera daitezen. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidego udal guztiei ezagutaraziko die txosten hori.
Helburua	Etorkinak erroldan sar daitezen erraztea
Prozesuaren ebaluazioa	Txostena Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei helaraztea
Emitzen ebaluazioa	Jasotako kexen kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.3. Asilo-eskatzaileentzako bizitoki-baliabideei eustea (eta, beharrezkoa izanez gero, baliabideak gehitzea)
Deskribapena	Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistema Estatuaren eskumenekoa da, zentralizatua eta mistoa da, Estatuak eta erakunde espezializatuak zuzenean kudeatzen dituzten zerbitzuek osatzen baitute. Sistema horrek aldi baterako 9.000 harrera-plaza inguru ditu Espainiako estatu osoan (400 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan), eta plaza horietara oinarritzko premiak asetzeko behar diren baliabideak ez dituzten pertsonak sar daitezke, baldin eta nazioarteko babesa eskatzen badute. Sistema horren helburua da onuradunen integrazio-prozesua erraztea, eta herritar gisa dagozkien eskubideak baliatzeko behar dituzten autonomia-tresnak ematea. Estatuko asilo-sisteman behin-behinean edo behin betiko plazarik gabe geratzen diren eta asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen premiei erantzun dakien (bizitokia, mantenua eta abar) Eusko Jaurlaritzak gaitu dituen aterpeei buruzko ekintza da. Aterpe hauek dira: Berrizkoa (Olakueta Etxea, Euskal Autonomia Erkidegoan migratzaileak aldi baterako hartzeko zentroa, nahiz eta, oraingoz, ez den asiloa eskatzen dutenentzat soilik), Tolosakoa (Udalak lagatzen ditu instalazioak) eta Oñatikoa. Guztira, 160-180 plaza inguru dira. Nahitaez jakin behar da aterpe horiek erabiltzen dituztenen sexuaren arabera bilakaera.
Helburua	Asiloa eta babesa eskatzen dutenei erantzun egokia ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Aterpeetako plaza kopurua
Emitzen ebaluazioa	Aterpeetan artatutakoen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.4. Euskal Autonomia Erkidegotik zirkulatzen duten iragaitzazko etorkinentzako bizitoki-baliabideei eustea (eta, beharrezkoa izanez gero, baliabideak gehitzea)
Deskribapena	2018. urteaz geroztik, migratzaile asko iritsi da gure erkidegora, baina gehien-gehienak Europako erdialdera eta iparraldera migratzeko bidean. Fenomeno sozial berria da gure gizartearentzat: iragaitzazko migratzaileak dira, eta, askotan, laguntza behar izaten dute oinarrizko bizitoki- eta elikadura-premiei, batez ere, erantzuteko. Itxuraz, gelditzeko iritsi den fenomeno bat da, azken urteotan jasotako datuen arabera. 2018an iragaitzazko 5.837 migratzaile artatu ziren; 2019an 4.244 migratzaile izan ziren; 2020an 3.493 migratzaile; eta 2021ean, 7.332 migratzaile (2021eko abenduaren 5era arte). Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak premia horiei erantzuteko baliabideak abian jarri zituen. 2021ean, zehazki, UDA 2021 Kontingentzia Plana jarri zuen martxan. Plan horren arabera, gaua emateko 100 plaza aurreikusten dira pertsona gutxien biltzen diren aldietan, eta gau emateko 500 plaza pertsona gehien biltzen den aldietan. Garrantzi handikoa ematen du baliabide horiek erabiltzen dituztenen sexuaren arabera bilakaera ezagutzea.
Helburua	Erantzun egokia ematea iragaitzazko migratzaileen premiei
Prozesuaren ebaluazioa	Baliabideetako plaza kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Baliabideetan artatutakoen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.5. Errefuxiatuentzako Babes Komunitarioko Programa.
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak sustatutako Babes Komunitarioko Programan oinarritzen da ekintza hau. “Auzolana II” Babes Komunitarioko Euskal Programak, Kanadako ereduan oinarrituak, herritarrei zuzenean parte hartzeko aukera ematen die hirugarren herrialdeetatik birfinkatutako errefuxiatuak hartu eta integratzeko lanetan. Eusko Jaurlaritzak babes emango die babes komunitarioko tokiko taldeak bultzatzeko eta laguntzeko akordioa sinatu duten erakundeei. Era berean, birfinkatutako pertsonen inklusio-prozesuez arduratuko da. Garrantzitsua ematen du programa horiek erabiltzen dituztenen sexuaren arabera bilakaera ezagutzea.
Helburua	Errefuxiatuak gizartera daitezen sustatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Programa abian jartzea
Emitzen ebaluazioa	Programaren onuradunen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.6. Babesa eta asiloa eskatzen duten pertsonen eta herrigabeen asistentzia juridikorako laguntza ekonomikoa
Deskribapena	Babesa eta asiloa eskatzen duten pertsonen eta herrigabeen benetako gizarteratzea sustatzeko baliabideak eta programak abian jartzen diren bezalaxe, bidezkoa dirudi pertsona horiei laguntza juridikoa emateko baliabide ekonomikoak ere ezartzea. Garrantzi handikoa ematen du baliabide horiek erabiltzen dituztenen sexuaren arabera bilakaera ezagutzea.
Helburua	Babesa eta asiloa eskatzen dutenei ematen zaien laguntza juridikoa hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Babesa eta asiloa eskatzen dutenentzako laguntza juridikoan lan egiten duten eragileei zuzendutako urteko laguntza ekonomikoa
Emaitzen ebaluazioa	Laguntza juridikoko zerbitzuen erabiltzaileen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.2. EUSKAL HARRERA EREDUA

Ekintza	4.1.2.7. Etorkinen harrerarako laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, Planaren lehentasunezko ildoekin bat
Deskribapena	Ekintza honek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak, dirulaguntza-aginduen bidez, ematen dituzten finantza-laguntzak ditu ardatz. Laguntza izendunei buruz ari gara, LOC laguntzei eta GIZ laguntzei buruz. Laguntza horiek Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorriko dira. Hori dela eta, laguntzei eutsiko zaie, baina, agian, laguntzen banaketa berriro antolatu eta pentsatu beharko da.
Helburua	Laguntza ekonomikoak eta Planaren lehentasunak bat etortzea
Prozesuaren ebaluazioa	Harreran lan egiten duten eragileen urteko laguntza ekonomikoa
Emaitzen ebaluazioa	Plan honen ildoekiko koherentzia
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.3. EUSKARRI ESTRATEGIA

Ekintza	4.1.3.1. Euskarri estrategiako erakunde arteko lantaldea koordinatu eta dinamizatuko duen idazkaritza teknikoa sortzea.
Deskribapena	Euskarri Estrategia erakunde arteko ekimena da, eta Eusko Jaurlaritzak (hainbat sail eta zuzendaritza), foru-aldundiek eta udalek (EUDEL) parte hartzen dute ekimen horretan. Euskal Autonomia Erkidegoan ezaugarri eta premia bereziak dituzten bi talderentzat garatzen ari diren neurri eta ekintza guztiak biltzen ditu: familia laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrentzat, eta familia laguntzarik gabeko gazte atzerritarrentzat (18 eta 21 urte bitartekoak, gutxi gorabehera). Neurri eta ekintza horiek guztiak pertsona horien bizitza autonomoko proiektu bat bultzatzera bideratuta daude, arlo guztietan: bizitokia, mantenua, prestakuntza, enplegua eta integrazio komunitarioa. Erakunde horiek dinamizazio egokia behar duen lan-mahaia sortu dute. Horretarako, lantalde horri laguntza emango dion idazkaritza teknikoa sortu da.
Helburua	Euskarri estrategiaren erakunde arteko mahaia dinamizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzua kontratatzea
Emaitzen ebaluazioa	Egindako bileren kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.3. EUSKARRI ESTRATEGIA

Ekintza	4.1.3.2. Familia-laguntzarik ez duten gazte atzerritarrei laguntzeko programa pilotua garatzea.
Deskribapena	Datorren urtean abian jarriko den laguntza-programa berritzaile bat da, familia-laguntzarik ez duten gazte atzerritarren autonomia hobetzea helburu duena. Egia esan, gazte horiei hazkunde pertsonaleko bizi-proiektuan laguntzeko programaren efikazia eta efizientzia egiaztatuko duen proba pilotua egin behar da. Programa integrala litzateke, hau da, bizitokiko, mantenuko, laguntzako eta babes sozial eta komunitarioko premiak aintzat hartuko ditu. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eragile sozialen babesa bilatuko du programa hori garatzeko. Zehazki, Agintzari eta Peñascal fundazioaren babesa. Garrantzitsua ematen du programa hori erabiltzen dutenen sexuaren arabera bilakaera ezagutzea.
Helburua	Bizi-proiektu autonomoa erraztea
Prozesuaren ebaluazioa	Programa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Onuradunen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.3. EUSKARRI ESTRATEGIA

Ekintza	4.1.3.3. Harrera-gizartera egokitzeko zailtasunak dituzten migrazio-jatorriko aurrenerabeei zuzendutako gizarte-mentoretzako programa garatzea
Deskribapena	Inklusio-prozesuan askotariko zailtasunak dituzten atzerritar jatorriko neska-mutilei berariaz zuzendutako gizarte-mentoretzako programa berritzailea da. Adingabe horien garapen pertsonal, emozional eta sozialaren prozesuan laguntzeko helburua du, eta prebentiboa da, adingabe horiek helduaroan gizarte-mailaren arloko aukera hobeak eta eskubide-berdintasuna izan ditzaten. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eragile sozialen babesa izango du programa hori hiru lurraldeetan gara dadin. Zehazki, elkarlanean jardungo du SOS Arrazakeria eta CEAR erakundeekin eta Ellacuria fundazioarekin. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak UPV/EHUren eta haren ikasleen laguntza dute programa garatzeko. Garrantzi handikoa ematen du baliabide horiek erabiltzen dituztenen sexuaren arabera bilakaera ezagutzea.
Helburua	Bizi-proiektu autonomoa erraztea
Prozesuaren ebaluazioa	Programa abian jartzea
Emitzen ebaluazioa	Onuradunen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.3. EUSKARRI ESTRATEGIA

Ekintza	4.1.3.4. Sailak laguntza ekonomikoa ematea bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrekin (18 urtetik beherakoak) bereziki lan egiten duten entitateei eta erakundeei, berariazko prestakuntza-ibilbideak eta -programak egin ditzaten
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Plan honetan lehentasunezkoztat jotako kolektiboetako batekin —bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak (18 urtetik beherakoak)— berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei baliabide ekonomikoak esleitzea, betiere Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren laguntzen bidez. Etorkinen kolektiboen erakundeei buruz eta atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeei buruz ari gara. Ekintza horrek lotura estua du Plan honetako 4.2.4. ekintzarekin. Ekintza horrek 271/2012 Dekretua berrikusi eta eguneratzea aurreikusten du, eta, hala, finantza-laguntzak esleitu ahal izango dira, bai esku-hartze sozialean borondatezko ekintza eta elkarte-partaidetza indartzeko, bai pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku-hartze soziala egiteko, baita esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatuko duten jarduerak egiteko ere, plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat eginik.
Helburua	Pertsona kolektibo horren premiei berariaz arreta ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emitzen ebaluazioa	Kolektibo horri zuzendutako laguntzen urteko zenbatekoa (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.3. EUSKARRI ESTRATEGIA

Ekintza	4.1.3.5. Sailak laguntza ekonomikoa ematea bidaiderik gabeko gazte atzerritarrekin (18 urtetik gorakoak) bereziki lan egiten duten entitateei eta erakundeei
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Plan honetan lehentasunezkoztat jotako kolektiboetako batekin —bidaiderik gabeko gazte atzerritarrek (18 urtetik gorakoak)— berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei baliabide ekonomikoa esleitzea, betiere Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren laguntzen bidez. Etorkinen kolektiboen erakundeei buruz eta atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeei buruz ari gara. Ekintza horrek lotura estua du Plan honetako 4.2.4. ekintzarekin. Ekintza horrek 271/2012 Dekretua berrikusi eta eguneratzea aurreikusten du, eta, hala, finantza-laguntzak esleitu ahal izango dira, bai esku-hartze sozialean borondatezko ekintza eta elkarte-partaidetza indartzeko, bai pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku-hartze soziala egiteko, baita esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatuko duten jarduerak egiteko ere, plan honen lehentasunezko jarduketako bat eginik.
Helburua	Pertsona kolektibo horren premiei berariaz arreta ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Eraitzen ebaluazioa	Kolektibo horri zuzendutako laguntzen urteko zenbatekoa (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.3. EUSKARRI ESTRATEGIA

Ekintza	4.1.3.6. Gazte atzerritarrak gizarteratzeko ibilbideak hedatzea, hirugarren sektoreko erakundeen bitartez
Deskribapena	Ekintza hau gazte atzerritarren harrerarako Hemen programara bideratzen den eta hirugarren sektoreko erakundeen bidez gauzatzen den laguntza ekonomikoari dagokio. Laguntza horrek Bizkaiko Foru Aldundiak duen dirulaguntza-ildoan osatzen du. Beraz, programa horri eta erakunde horri lotzen zaio. Asmoa da laguntza ekonomiko horri eustea eta Euskal Autonomia Erkidego osora hedatzeko modua aztertzea. Garrantzitsua ematen du ibilbide horiek erabiltzen dituztenen sexuaren arabera bilakaera ezagutzea.
Helburua	Bizkaiko Foru Aldundiak Hemen programaren bidez arlo horretan egiten duen jarduketara osatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Hemen programarako urteko esleipen ekonomikoa
Emitzen ebaluazioa	Programa horretan parte hartzen duten gazteen kopurua, sexuaren arabera banakatuta
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.1. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko kontzientziazio-kanpaina egitea, eta kanpaina horretan arreta berezia jartzea atzerritar jatorriko emakumeei.
Deskribapena	Helburua da sentsibilizazio-kanpaina bat diseinatzea eta abian jartzea atzerritar jatorriko pertsonen komunitateen artean, tratu-berdintasunari eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezari buruz. Euskal gizarte autoktonoan tratu-berdintasuna eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik eza garrantzi bereziko gaia dela kontuan harturik, bereziki garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko atzerritar jatorriko kolektiboak eta eragile eta sektore sozialak kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, indarrean dagoen legeria errespetatu beharraren inguruan eta tratu-berdintasunaren eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezaren inguruan, euskal gizartearen bizikidetzaren oinarriko zutabeetako bat da-eta. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak kontuan izatea.
Helburua	Atzerritar jatorriko pertsonen talde edo kolektiboak tratu-berdintasunari eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezari buruz sentsibilizazioa
Prozesuaren ebaluazioa	Kanpaina diseinatzea Kanpaina abian jartzea
Emaizien ebaluazioa	Kanpaina zenbat pertsonari iristen zaien
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.2. Kultura- eta egoera-giltzarrei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaintzea, baztertutako magrebtar gazteekin esku hartzeko.
Deskribapena	Bai erakunde publikoetako bai gizarte-erakundeetako esku-hartze sozialeko profesionalen artean, baztertutako magrebtar gazteekin esku hartzeko kultura- eta egoera-giltzarrei buruzko prestakuntzaren interesa eta eskaria ikusi dira. Biltzen erakundeak errealitate horiekin lan egiten duten zerbitzu eta programei lagun egiten eskuratutako esperientziatik abiatuta, esparru horretan aplikatutako ezagutza eraiki da, eta hori interesgarria izan daiteke bizikidetza-arazoen arloko jardunbide profesionala, prebentzioa eta aurre egiteko modua hobetzeko edo gizarteratzeko ibilbideen arrakasta lortzeko. Ezagutza hori, batez ere, alderdi kulturei, egoerazkoei, pertsonalei eta egiturazkoei buruzkoa da, bai jatorrian —helmugako ibilbideak baldintzatzen dituzte—, bai hemen. Ekintza honetan proposatzen da esparru horretan sektore publikotik edo esku-hartze sozialeko programak kudeatzen dituzten gizarte-erakundeetatik lan egiten duten profesionali eta prestatzen ari direnei (unibertsitatea eta lanbide-heziketako ikastetxeak) eskaintzea.
Helburua	Kulturarteko ikuspegiari sakontzea gazteekiko esku-hartze soziala hobetzeko
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzuen katalogoan sartzea
Emaitzen ebaluazioa	Prestatutako profesional kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023 eta 2024

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.3. Kulturarteko ikuspegiari buruzko sentsibilizazioa, eta bertako eta migratutako edo arrazializatutako emakumeek elkarteetan partekatutako lanaren analisi interseksionala.
Deskribapena	Biltzen erakundearen berdintasunerako lan-ildoaren barruan, kulturarteko ikuspegia txertatzeko beharrari erantzuna emateko beharra identifikatu da, eta, horretarako, analisi interseksionala egingo da bertako eta migratutako edo arrazializatutako emakumeen artean partekatutako espazioetan. Bereziki interesgarria da emakumeen eta feministen elkarteetan testuinguruan. Baita VI. Plan honetan bultzatu nahi den mentoretza sozialeko prozesuen testuinguruan ere. Adierazi beharra dago, garrantzizkoa baita, jatorri desberdineko emakumeen arteko topaguneek migratutako emakumeak gizarteratzeko aukera garrantzitsua eskaintzen dutela, eta haien partaidetza sozialerako eta ahalduentzeko baliabide garrantzitsuak direla. Ekintzak kulturarteko eta generoko ikuspegitik lan egingo duen modulu bat diseinatzeko eta eskaintzeko konpromisoa hartzen du. Modulu horiek tokiko erakundeekin eta/edo gizarte-erakundeekin lankidetzan emango dira.
Helburua	Arrazializatutako edo migratutako emakumeek gizarte-sarean baldintza-berdintasunean parte hartzeko aukera ahalbidetzea eta hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzuen katalogoan sartzea
Emitzen ebaluazioa	Zenbat elkarterekin lan egin den
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023 eta 2024

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.4. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko sentsibilizazioa.
Deskribapena	Berdintasunaren sustapena eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa Plan honek bere gain hartzen duen lehentasun instituzional eta soziala da, eta gizarte osoaren kontzientziazioa eta inplikazioa eskatzen du. Biltzen erakundeak esparru horretan eta pertsona migratuen erakundeei lagun egiten eskuratu duen esperientziari esker, horrelako jarduketak indartzeko beharra hauteman da. Ekintzak konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeriari helduko dion, biktimak eta bizirik ateratzen direnak babesteko mekanismoak eta erasotzaileentzako zehapenei buruzko informazioa emango duen eta migratutako pertsonen berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eragile aktibo gisa duten konpromisoa bultzatuko duen modulu bat diseinatzeko eta eskaintzeko. Horiek emateko lehentasunezko esparruak pertsona migratuen elkartek eta helduen hezkuntzako ikastetxeak izango dira.
Helburua	Emakumeek indarkeria matxistarik gabeko bizitza izateko eskubideari buruzko kontzientziazioa bultzatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzuen katalogoan sartzea
Emaitzen ebaluazioa	Zenbat elkarterekin eta helduen hezkuntzako ikastetxerekin lan egin den
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023 eta 2024

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.5. Zaintza eta etxeko lanetan lan egiten duten atzerritar jatorriko emakumeak online prestatzeko programa.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak zaintzen eta etxeko lanak egiten lan egiten duten atzerritar jatorriko emakume etorkinen egoera hobetzea. Bizkaian online prestakuntza-programa bat jarri da abian, atzerritar jatorriko emakume etxeko langileen ezagutzak hobetzeko, bereziki mendekotasuna duten pertsonekin lan egiten duten eta etxeetan barneko lan-arabidea duten emakumeenak. Horrela, alde batetik, mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien arreta hobetzen da, eta trebakuntzaren lanbide-ziurtagiria ematen zaio etxeko langileari. Ekintzaren bidez, EAEko atzerritar jatorriko emakume guztiek programa hori eskura izatea lortu nahi da. Horretarako, programa xede-taldeen artean eta hirugarren sektoreko erakundeekin bitartez zabalduko litzateke. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Atzerritar jatorriko emakume etxeko langileen kualifikazioa hobetzea Atzerritar jatorriko emakume etxeko langileek mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	EAE osoan eskura izatea Programa zabaltzea
Emaitzen ebaluazioa	Erabiltzaile edo onuradun kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2023

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.6. Atzerritar jatorriko emakume etorkinekin lan egiten duten erakundeentzako laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, Planaren lehentasunezko ildoekin bat.
Deskribapena	Ekintza honek berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak beren dirulaguntza-aginduen bitartez ematen dituzten finantza-laguntzak hartzen ditu ardatz. Laguntza izendunez, LOC laguntzez eta GIZ laguntzez hitz egiten ari gara. Asmoa da laguntza horiek Plan honen helburuekin eta lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat egitea. Horregatik, mantendu egin behar dira, baina, beharbada, berrantolatuta eta nola banatu birpentsatuta. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Laguntza ekonomikoak Planaren lehentasunekin bat egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Atzerritar jatorriko emakume etorkinekin lan egiten duten eragileentzako urteko diru-esleipena
Emitzen ebaluazioa	Plan honen ildoekiko koherentzia
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.7. Sailak laguntza ekonomikoa ematea adingabeak zaintzapean dituzten atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea Plan honetan behar zehatzei erantzuteko lehentasunezko zat jotzen diren kolektiboetako batekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei: adingabeak zaintzapean dituzten atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen kolektiboaz ari gara. Kolektibo etorkinaren erakundeez eta atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeez ari gara. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.4 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketara-ildoei bat etorritzeko ahal izateko. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.8. Sailak laguntza ekonomikoa ematea herrialde arabiarretatik datozen eta egoera zaurgarrian eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkin adin nagusikoekin lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea Plan honetan behar zehatzei arreta emateko lehentasunezko zat jotzen diren kolektiboetako batekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei: herrialde arabiarretan jatorria duten eta egoera zaurgarrian eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakume etorkin adin nagusikoen kolektiboaz ari gara. Kolektibo etorkinaren erakundeez eta atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeez ari gara. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.4 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorrarazi ahal izateko. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emaitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.9. Sailak laguntza ekonomikoa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen dituzten atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea Plan honetan behar zehatzei erantzuteko lehentasunezko zat jotzen diren kolektiboetako batekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei: Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen dituzten atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen kolektiboaz ari gara. Kolektibo etorkinaren erakundeez eta atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeez ari gara. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.4 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarleen parte-hartzea sendotzeko, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorrarazi ahal izateko. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emaitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.10. Sailak laguntza ekonomikoa ematea prostituzioan aritzen diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea Plan honetan behar zehatzei erantzuteko lehentasunezko zat jotzen diren kolektiboetako batekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei: prostituzioan aritzen diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen kolektiboaz ari gara. Kolektibo etorkinaren erakundeez eta atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeez ari gara. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.4 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorrarazi ahal izateko. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emaitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.11. Sailak laguntza ekonomikoa ematea indarkeria matxistaren biktima diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin egindako lan-ibilbidea frogatzen duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea Plan honetan behar zehatzei erantzuteko lehentasunezko zat jotzen diren kolektiboetako batekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei: indarkeria matxistaren biktima diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinen kolektiboaz ari gara. Pentsa daiteke bidezkoa izan daitekeela laguntza ekonomikoak esleitzean baloratzea erakundeek profesional migratzaileak izatea zerbitzua ematen dieten pertsonen erreferente gisa. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.4 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko, pertsoekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorrarazi ahal izateko. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emaitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

4.1.4. ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK

Ekintza	4.1.4.12. Atzerritar jatorriko emakume etorkinen taldeen errealitate soziala, egoera eta premien azterketa deskribatzailea eta analisia egitea.
Deskribapena	Kontua da EAEn bizi diren atzerritar jatorriko emakume etorkinen kolektiboak edo azpitaldeak ardatz hartuko dituen ikerketa soziala egitea. Zehatz-mehatzjokatzeakoasmorikgabe(dagokionean,lkuspegierakundeak ikerketa-proiektu bat proposatuko dio Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari), honakoen gisako kolektiboak har litzake ardatz: 1) adingabeak ardurapean dituzten atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinak, EAEn bizi direnak; 2) arabiar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinak, EAEn bizi direnak, adin nagusikoak eta gizarte-integraziorako edo -inklusiorako zailtasunak dituztenak; 3) Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen dituzten atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinak, EAEn bizi direnak; 4) prostituzioan aritzen diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinak, EAEn bizi direnak; 5) migrazio-prozesuetan sexu- edo lan-esplotazioa helburu duen salerosketaren biktima diren emakumeak; eta abar. Azterketa horren helburu nagusia da pertsona kolektibo horren egoera diagnostikoa zein den jakitea, horren behar espezifikoak hautematea eta, ahal den heinean, jarduketa politiko eta sozialerako ildoak proposatzea, haien gabeziak arintzeari eta behar horiei erantzuteari begira. Gainera, garrantzizkoa da komunikazio- eta zabalkunde-estrategia bat ezartzea, emaitzarik garrantzitsuenak sektorean lan egiten duten eragileei eta euskal gizarteari oro har hurbildu ahal izateko. Bereziki garrantzitsua da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko emakumeak gogoan izatea.
Helburua	Pertsona kolektibo horren informazio espezifikoa edukitzea, erabaki politikoak eta sozialak hartzean ziurgabetasuna murrizteko
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Azken txostena
Arduraduna	Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.1. Immigrazioaren, asiloaren, aniztasunaren, kulturartekotasunaren eta bizikidetzaren arloetan lan egiten duten gizarte-eragileek osatutako sistema indartzea. Sistema horretan sartu eta integratuko dira Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean Sarea, Eusko Jaurlaritzaren beste instantzia batzuk (Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza...), Aldundiak, Udalak, etorkinen erakundeak, etorkinentzat lan egiten duten erakundeak, hirugarren sektoreko beste erakunde batzuk, bestelako organismoak eta erakundeak (unibertsitateak, bestelako administrazioak, erakunde pribatuak, eta abar), Migrazio eta Asiloko Euskal Foroa, eta Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeztak.
Deskribapena	Kontua da herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren sektorean lan egiten duten eragileen koordinazioa eta lerrokatzea indartzea. Badirudi Zuzendaritzaren eta Biltzen eta Ikuspegi zuzeneko tresnen arteko baterako lana indartu behar dela. Hilean behin biltzea proposatzen dugu. Bilera horietan, gutxienez, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako arduradunak, Zerbitzu Buruzagitzako arduradunak eta Biltzen eta Ikuspegi erakundeetako arduradunek parte hartuko dute. Aldundiekin eta udal-teknikariekin ere bilerak egitea proposatzen dugu. Aski izan liteke urtean lau bilerak egitea. Horretarako izendatutako Zuzendaritzako kide batek parte hartuko luke. Bilera horien xedea izan liteke zenbait eragileren proiektuak partekatzea, ekimen erkideak aurkeztea, baterako lanaren jarraipena egitea, eta abar. Nolanahi ere, bilerek eduki eta helburu garbiak izan behar dituzte. Foroari dagokionez, egitura berriz definitu ondoren, dekretu berrian jasotako jarduerarekin jarraituko du. Aholku Sareak, bidezkotzat jotzen diren aldaketekin, aldian behingo bilerak egiten jarraituko du. Zuzendaritzako arduradunek bilera horien berri emango dute Zuzendaritzako taldeak hilean behin egingo dituen bileretan. Zuzendaritzarekin harreman estrategikoak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailei dagokienez, uste dugu Euskarri Estrategiaren esparru berriak (erakunde arteko mahaia) eta Foroaren diseinu berria, sailen arteko eta erakunde arteko parte-hartze handiagoarekin, nahikoak izan daitezkeela. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren beraren barruan mekanismo egokiak ezarriko dira, sailaren berdintasuneko teknikariarekin batera, abian jartzen diren jarduketetan genero-ikuspegi egokia bermatzeko. Etorkinen erakundeei, etorkinentzat lan egiten duten erakundeei eta sektoreko beste erakunde batzuei dagokienez, Foroaren batzordeetan parte hartu nahiz ez, Zuzendaritzak inplementatuko dituen harremanak eta aliantzak ezarriko dira pixkanaka. Era berean jardungo da etorkinen eta/edo kolektibo etorkinaren erakundeen edo entitateen sareekin edo federazioekin.
Helburua	Zuzendaritzaren ekintza politiko eta programatikorako oinarriak ezartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Harremanak ezartzea Arduradunak izendatzea Bilerak egitea
Emitzen ebaluazioa	Zuzendaritzaren urtean behingo ebaluazio-bilera (kualitatiboa)
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.2. Migrazio eta Asiloko Euskal Foroa (lehen Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa) eta haren zortzi batzordeak berrorientatzea, baita egoki irizten diren beste batzuk ere, eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretua eguneratzea.
Deskribapena	Puntu honetan, bidezkoa izan daiteke Foroaren helburuei eta eginkizunei buruz gogoeta egitea: bere eginkizun aholku-emaileekin eta gogoetarako gune gisa utzi behar den, Planaren jarraipen-lanak gehitu behar zaizkion, edo are beste batzuk planteatu behar diren ere. Ildo horretan, bidezkoa izan daiteke, halaber, Foroa arautzen duen gaur egungo dekretua aldatzea beharrezkoa edo komenigarria den eztabaidatzea. Ildo horretan, garrantzitsua da, batez ere, Foroan etorkinen erakundeen presentzia areagotzea, baina garrantzi handikoa da, halaber, atzerritar jatorriko pertsonentzat lan egiten duten erakundeen iraunkortasuna bermatzea. Bidezkoa izan daiteke pentsatzea Foroaren erreforma horrek mekanismo jakin batzuk eduki behar dituela, atzerritar jatorriko pertsonen eskubideak nola eskuratu eta nola urratzen diren jakiteko.
Helburua	Foroaren egitura berriz diseinatzea, egungo beharretara egokitzeko
Prozesuaren ebaluazioa	Gogoeta-prozesuaren hasiera
Emitzen ebaluazioa	Egitura berria jasotzen duen dokumentua Foroaren dekretu berria
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.3. Biltzen erakundearen helburuak berritzea eta berriro zehaztea, erakundearen ekintza Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoekin bat etor dadin.
Deskribapena	Gogoeta egin behar da Biltzen erakundearen helburuei eta egungo egiturari buruz, tresna hori egungo testuingurura eta beharretara egokitzeko. Lehen batean, pentsa daiteke Biltzen erakundearen ahaleginak eta ekintzak honako xede hauetara bideratu behar direla: pertsonekin eta taldeekin izandako esku-hartzetik abiatuta lortutako ezagutza praktikoa eta testuinguruan jarria sistematizatzea; profesionalak prestatzea; esparru sektorialetako eragileei lagun egitea; kultura-kolektiboekiko harremana; proiektu berritzaileen garapena; eta abar. Horretarako, erkidego-mailan, bizikidetzarako esku hartzeko tokiko hiru talde (lurraldeko bana) osatzea proposatzen dugu. Talde horien lana, beste esparru batzuetan egiten dena bezala, urtean behin planifikatuko litzateke baliabideak udal- eta toki-beharretara egokitzeko, udal-teknikarien banaketa geografikoa eta tokian tokiko behar zehatzak kontuan harturik. Prozesu hori abian da jada.
Helburua	Biltzen erakundearen helburuak eta egitura berrorientatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Gogoeta-prozesuaren hasiera
Emaitzen ebaluazioa	Biltzen erakundearen egitura berriari buruzko txostena
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren dirulaguntzen ildo sortzea, VI. Plan honen lehentasunezko ildoekin bat etorriko dena.
Deskribapena	Ideia da egungo dirulaguntzen ildoak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren mendekoa (GIZ), aurrerantzean zuzenean Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren mendekoa izatea edo zuzendaritza horretan ildo propio sortu berri bat ezartzea. Izan ere, horrek aukera emango luke adjudikazio- eta baremazio-irizpideak VI. Planaren lehentasunezko ildoekin hobeto bat etorerrarazteko, eta, hartara, planaren helburuak eta ekintzak ongi garatzen hobeto laguntzeko.
Helburua	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren dirulaguntzen ildo propioa sortzea
Prozesuaren ebaluazioa	Dirulaguntzen ildoaren deialdia abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Laguntzak zenbateraino egokitzen diren VI. Planaren ildoetara (ebaluazio kualitatiboa)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2024

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.5. 271/2012 Dekretua eguneratzea. Dekretu horrek arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak, baita pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko dirulaguntzak eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak ere.
Deskribapena	271/2012 Dekretua honako alderdi hauetan eguneratzea proposatzen da: — Proiektuak baloratzeko irizpideak berrikustea — Eman daitezkeen gehieneko zenbatekoak berrikustea — Laguntzak jasoko dituzten ildoak berrikustea eta zehaztea, eskabidea kasu bakoitzean zein ildotara zuzendu behar den zehazteko. Kontua da dekretua eguneratzea, diruz lagun daitezkeen ildoak, irizpideak eta gehieneko zenbatekoak argitzea eta haren disfuntzio inplizituetako batzuk ebaztea. Bidezkoa izan daiteke kontuan hartzea, dirulaguntzen deialdiak berdintasun- eta ekitate-printzipioak bete ditzan, eta erakunde bakar bat ere diskriminatu ez dadin, behar-beharrezkoa dela biztanle migratzaileak dituzten entitateen baremazioa eta irispidea berrikustea, beste euskal erakunde batzuekiko konkurrentzia-berdintasuna bete dadin. Gainera, deialdi horrek langile boluntarioak ildo guztietan baloratzeko aukera eman behar duela planteatzen da, borondatezko aktibismoa funtsezko aktiboa baita kontratatutako langileen plantilla handirik ez duten biztanle migratuen erakundeetan.
Helburua	Esku-hartze sozialaren esparruko hirugarren sektoreko erakundeentzako finantza-laguntzak Plan honen lehentasunezko jarduketa-espazio estrategikoekin bat etorraztea
Prozesuaren ebaluazioa	Dekretuaren berrikusketa abian jartzea Irizpideak eta gehieneko zenbatekoak finkatzea (gainjartzeak saihestuta) Finantza-laguntza izan dezaketen ildoak argitzea
Emitzen ebaluazioa	Dekretu berria edo egungoaren aldaketa
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023, 2024

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.6. Gobernu Zentraleko ordezkariordetzekin eta kontsulatuekin koordinatzeko harremanak modu formalean ezartzea.
Deskribapena	EAEn kultura-aniztasuna eta atzerritar jatorrikoa kudeatzeko behar-beharrezkoa da koordinazio-harremanak ezartzea Gobernu Zentraleko ordezkariordetzekin eta atzerriko herrialdeen kontsulatuekin, bai iraunkorrekin bai kontsulatu ibiltariekin. Orain arte Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak ez du lan-harreman formalizaturik ordezkariordetza eta kontsulatu horiekin maila politikoan. Badaude, lan-harremanak, jakina, haietako teknikarien eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako edo Biltzen edo Ikuspegi erakundeetako teknikarien artean. Proposamen gisa, uste dugu Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak koordinazio-harreman formalak, sistematikoak eta iraunkorrak ezarri behar dituela. Proposatzen dugu Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak gutxienez urtean behin ohiko lan-bilerarako deialdia egitea, guztien intereseko gaiak aztertzeko. Horrek ez du esan nahi, edozein alderdik eskatuta, gai espezifikoak aztertzeko ohiz kanpoko bilerak deitu ezin direnik.
Helburua	Gobernu Zentraleko ordezkariordetzekin eta kontsulatuekin koordinatzeko harremanak hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Maila politikoan koordinatzeko lehen bilera formala
Emitzen ebaluazioa	Lan-bileren kopurua Bertaratutako ordezkariordetza eta kontsulatu kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.7. Eusko Jaurlaritzako sailekin hitzarmenak egitea, Ikuspegi erakundeak datuak ikerketa-helburuarekin atzi ditzan (identifikatzailerik gabeko datu agregatuak).
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzako sailek datuak lortu eta datu-baseak egiten dituzte. Horietako batzuk ikerketa-interes berezikoak dira Immigrazioaren Euskal Behatokiarentzat (Ikuspegi), beti datu agregatuarekin eta identifikatzaile pertsonalik gabe lan egiten baitu. Adibide gisa jar dezakegu atzerriar jatorriko pertsonen kolektiboen zaurgarritasunaren bilakaera aztertzeke Lanbidek DSBEa jasotzen duten pertsonen buruzko datuak nola eskaintzen dituen aldatzeak eragin duen kaltea, haien jatorrizko herrialdea ezagutzea eragozten baitu. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren politikak egoki orientatzeko garrantzi handikoa da migrazioen fenomeno sozialaren informazioa izatea. Hori dela eta, proposatzen dugu Sailak eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak lankidetzak-akordioak edo -protokoloak ezartzea, Ikuspegi erakundeak aukera izan dezan Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen datu jakin batzuk eskuratzeko, betiere ikerketa-helburuekin, horien beharra justifikatuta eta identifikatzaile pertsonalik gabeko datuak maneiatuta, Datuak Babesteko Legea errespetatu ahal izateko. Zehatz-mehatz jokatzeko asmorik gabe, intereseko beste sail edo instantzia batzuk izan daitezke, Lanbidez gain, Eustat, Hezkuntza Saila eta abar.
Helburua	Ikuspegi erakundeari aukera ematea Eusko Jaurlaritzak sortutako edo bertan sortutako datuak ikerketa-helburuekin eskuratzeko (identifikatzaile pertsonalik gabeko datuak)
Prozesuaren ebaluazioa	Izenpetutako lankidetzak-akordioak edo -protokoloak
Emaizen ebaluazioa	Eusko Jaurlaritzaren datuak eskuratzeko
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.8. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikarientzako, bereziki, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarentzako, oro har, urteko prestakuntza-plana prestatzea.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak garatzen duen sentsibilizazio-lanaren barruan, sail barneko prestakuntza-plan bat landuko da. Prestakuntza horren berariazko helburua da immigrazio-fenomenoaren errealitatea, aniztasunaren egitatea eta kulturartekotasunaren etorkizuna euskal gizartean kokatzea. Esan dezagun gizarte on baten zimenduak etxean bertan eraikitzen hasten direla. Funtsezkoa da Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako langile guztiek fenomeno horien ikuspegi zehatza izatea, immigrazioaren erronkarako politika egokia artikulatzeari eta ezartzeari begira. Kontua da immigrazioaren egiturazko izaera ezagutzera ematea eta gizarteak kulturarteko bidearen alde egitea. Izan ere, egitate horiek ez dira apetatsuak, berebiziko garrantzia dutenak eta, azken batean, EAEren bilakabidea konfiguratuko dutenak baizik. Onartutako egitate baten gainean bakarrik ezar daitezke harekin bat datozen politikak. Prestakuntza-programa hori etengabea izango da, eta herritartasunari, kulturartekotasunari eta immigrazioari buruzko ikastaro jeneralistak eta mintegi monografiko puntualak bilduko ditu, arazo edo kontu koiunturaletan oinarrituak.
Helburua	Zuzendaritzako teknikariak immigrazioaren eta kulturartekotasunaren inguruan prestatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-programa eta -agenda Eskainitako mintegi kopurua
Emitzen ebaluazioa	Parte-hartzaile kopurua Bertaratutakoen ordu kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.9. Udal- eta foru-teknikariei zuzendutako urteko lan-plangintza prestatzea, erakunde arteko koordinazioa hobetze aldera.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak garatzen duen sentsibilizazio-lanaren barruan, udal- eta foru-teknikariei zuzendutako prestakuntza-plan bat landuko da. Funtsezkoa da udal- eta foru-langileek gogoetarako, prestakuntzarako eta eztabaidarako guneak edukitzea. Prestakuntza-programa hori etengabea izango da, eta mintegi monografiko puntualak bilduko ditu, arazo edo kontu koiunturaletan eta/edo zuzentzen zaion jendearen interesekoetan oinarrituak. Hiru hilez behingo koordinazio-bileretan integratuko da (ikus 4.2.1 ekintza)
Helburua	Udal- eta foru-teknikariekin gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko gune bat edukitzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-programa eta -agenda Eskainitako mintegi kopurua
Emitzen ebaluazioa	Parte-hartzaile kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.10. Errotze sozialeko txostenak, etxebizitza egokitzeko txostenak eta udal-esparruan integratzeko ahaleginaren txostenak egiteko formula egokia aztertzea, udal-politikekin lotuta egon dadin.
Deskribapena	Ekintza honen asmoa da errotze sozialeko txostenak, etxebizitza egokitzeko txostenak eta integratzeko ahaleginaren txostenak egiteko ardura udal-esparrura itzultzeko modu egokia aztertzea. Errotze sozialeko txostenak eta etxebizitza egokitzeko txostenak, autonomia-erkidegoaren eskumenekoak izan arren, Udalbatzak ere eman ditzake hala ezartzen denean eta Immigrazioko eta Emigrazioko Estatu Idazkaritzari horren berri eman zaionean. Integratzeko ahaleginaren txostenak, eskumenei dagokienez udal-erantzukizunekoak izan daitezkeen zereginen barruan sartzen ez direla jakinda ere, bidezkoa izan daiteke horiek prestatzeko lana udal-esparruan egitea bideragarria den aztertzea, erantzukizuna autonomia-erkidegoaren eskumen-esparruan mantenduta. Kasu horretan, komenigarria litzateke Eusko Jaurlaritzak gidalerro batzuk ezartzea, aipatutako txostenak behar bezala homogeneizatu eta estandarizatu ahal izateko. Iraganean, udalerriek berek egiten zituzten errotze sozialeko txostenak eta etxebizitza egokitzeko txostenak. Horrek aukera ematen zien etorkinei harrera egiteko prozesuak eta administrazio-erregularizaziokoak udalaren politika eta baliabide sozialekin hobeto uztartzeko. Egokiagoa dirudi txosten horiek udal-esparruan egitea, harrera egiteko eta dokumentuak erregularizatzeko prozesuetan esku hartzen duten eragileen eta baliabideen koordinazio, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa ahalbidetzen baitu. Ekintza horrek Zuzendaritzako kargudun politikoen esku-hartzea eskatzen du, udalekin (EUDEL) lanak eskualdatzeko eta ahalegin horiek konpentsatzeko modurik onena negoziatzeko.
Helburua	Harrera egiteko eta dokumentuak erregularizatzeko prozesuak arrazionalizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestaketa-bileren, bertaratutakoen eta aztertutako gaien kopurua
Emitzen ebaluazioa	Txostenak egiten dituen erakundea
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2024

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.11. Zenbait xede-talderen (hezkuntza-langileak, osasun-langileak, segurtasun-langileak, gizarte-eragileak, enpresa-sarea, hirugarren sektoreko erakundeak, eta abar) prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako online prestakuntza-eskaintza garatzea, bertako eta/edo kanpoko prestakuntza-taldeen bidez.
Deskribapena	Kontua da zenbait xede-talderi zuzendutako online prestakuntza-eskaintza lantzea, administrazio publikoetan lan egiten duten langileekin hasita, kulturarteko konpetentzien inguruko sentsibilizazioan eta prestakuntzan jende gehiagorengana iritsi ahal izateko. Bidezkoa izan daiteke pentsatzea prestakuntza horrek aintzat har dezakeela zenbait kolektibok atzeritar jatorriko pertsonen eskubideak ezagutzea, eskubide horiek eskuratu ahal izateko eta horien balizko urratzeak gerta daitezen saihesteko. Gainera, kontua da atzeritartasun-eskubideak azaltzea ez ezik, pertsonak atzeritartasun-eskubide horietan kokatzeko moduaren inguruan sentsibilizatzea ere. Azaltzea zein eskubide eskura ditzaketen eta zein ez, zergatik... errealitate horren panoramika bat egitea. Biltzen erakundea —esperientzia metatu du dagoeneko prestakuntzaren esparruan— izango litzateke, Ikuspegi erakundearen laguntzarekin, prestakuntza-katalogoa Zuzendaritzaren irizpideei jarraikiz lantzearen arduraduna, eta bera arduratuko litzateke prestakuntza horren edukiak jorratzeaz ere. Online tresna horiek oso lagungarriak izango lirateke prestakuntza-taldeen prestakuntzan eta kolektibo espezifikoaren zuzeneko prestakuntzan.
Helburua	Administrazio publikoetako langileen online prestakuntza ahalbidetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Modu telematikoa egiteko moduko ikastaroen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Online ikastaroen erabiltzaile kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.12. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren web-orriko edukiak eguneratzea, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan.
Deskribapena	Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana onartu ondoren, behar-beharrezkoa da haren web-orriaren edukiak planteamendu, helburu, antolaketa eta lehentasunezko jarduketa-ildo berrietara egokitzea. Zuzendaritzako pertsona bat arduratuko da web-orri berrian gaitu beharreko arkitektura (zuhaitza) eta edukiak identifikatzeaz.
Helburua	Erakunde-komunikazioa plan berriarekin uztartzea eta bat etorraraztea.
Prozesuaren ebaluazioa	Zuzendaritzaren web-orriaren informazioa aldatzea eta eguneratzea.
Emitzen ebaluazioa	Webgunearen edukiak Planaren edukiekin identifikatzea.
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Komunikazio Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.1. HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.1.1. Zuzendaritzak laguntzea familien prestakuntza eta ikastetxeekiko inplikazioa bultzatuko duten komunitate-espazioen sorreran.
Deskribapena	Ikasle guztien garapen osoa eta eskola-arrakasta bermatzeko, eta inklusio, ekitate eta bikaintasunaren printzipioak gauzatzeko helburuan oinarrituta, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza elkarlanean arituko da komunitate-espazio erkideak sortzen, atzerritar etorkiko familiak prestatzeko eta horiek ikastetxeekin nahiz ikastetxeetan inplikatzeko. Inplikazioa ez da beti posible, lan-ordutegiengatik edo beste arrazoi batzuegatik, eta bertako beste biztanle-sektore zabal batera ere heda daiteke, eta, gainera, kapital sozialaren eta kulturalaren premia du, baina hori ez dago beti eskura. Horregatik, komunitate-espazioek, eskola-esparruaren barruan eta prestatzeko eta laguntzeko sare moduan eratuta, nabarmen lagun dezakete eskola-errendimenduan eta ikasle etorkinei arreta emateko Hezkuntza Sailaren ondoz ondoko planetan jasotako printzipioak errealitate bihurtzen. Atzeritar jatorriko eta/edo etorkiko adingabeen familien inplikazioa bultzatzeko egokia dirudien ingurunea EUSLE programa da. Izan ere, programa horrek ikastetxearen konpromisoen artean jasotzen du <i>ikasle eta haien familia iritsi berrientzako harrera-plan bat antolatzea eta inplementatzea</i>. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Biltzen erakundeak lankidetzak aktiboak izan dezakete prozesu horietan.
Helburua	Atzeritar etorkiko familiak ahalduntzea, eta ikastetxeetan parte har dezaten sustatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Zenbat ikastetxetan gauzatzen den lankidetzak
Emaitzen ebaluazioa	Zenbat familiarekin gauzatu den lankidetzak
Arduraduna	Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.1. HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.1.2. Zuzendaritzak laguntzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langileek ikastetxeetan ikasle etorkinen arretarako abian jartzen dituzten ekimenetan.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, immigrazioaren eta aniztasunaren esparruan dauzkan eskudantzien arabera, eta atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko ikasleen eskola-arrakasta bermatzeko duen kezka kontuan harturik, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan arituko da ikasle etorkinen arretarako abian jartzen dituen ekimen guztiak inplementatzeko. Testuinguru horretan garrantzi handikoa da Hezkuntza Sailaren (Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza) eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren (Migrazio eta Asilo Zuzendaritza) arteko lan-mahaien edo lantaldeen eginkizuna, bai izaera politikoa duenarena bai teknikoarena, gai horretan eta biei dagozkien beste batzuetan elkarlanean aritzeko. Adierazi beharra dago ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana 2021. urtera arte luzatuta dagoela eta une honetan ez dela zehaztu plan hori berritzea. Hori dela eta, litekeena da lankidetzaz-espazio horiek desagertzea edo aldatzea.
Helburua	Ikasle etorkinen arretarako ekimenak inplementatzea eta garatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Hezkuntza Saileko batzordeetan parte hartzea
Emitzen ebaluazioa	Abian jarritako ekimenak
Arduraduna	Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen
	Foroaren hezkuntza-batzordea
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.1. HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.1.3. Euskara jakin gabe lehen eta bigarren hezkuntzara iritsi berri diren ikasleen hizkuntza-errefortzurako baliabideak gehitzea.
Deskribapena	Atzerritar jatorriko (batzuetan atzerritar etorkikoak ere) familietako adingabeen eskola-porrotaren arrazoi nagusietako bat hizkuntza, eskola-hizkuntza nagusia, ez jakitea da, lehen hezkuntzako eta, bereziki, bigarren hezkuntzako zikloetan gela euskaldun arruntetan sartu aurretik hizkuntza-murgiltze egokia bermatzeko behar adina baliabide eta neurri ez dagoelako. Horregatik bidezkoa izan daiteke behar diren neurriak hartzea eta ikasle horientzat alde zuzeneko hizkuntza-murgiltzeko prozesua errazteko eta bermatzeko baliabideak jartzea, arreta berezia jarriarik EAEko bi hizkuntza ofizialak ez dakizkiten ikasleengan.
Helburua	Familia migratzaile ez-gaztelaniadunetatik datozen ikasleen eskola-uztearen eta eskola-porrotaren tasak murriztea.
Prozesuaren ebaluazioa	Atzerritar jatorriko ikasleen etengabeko eskola-ebaluazioaren emaitzen jarraipena egitea lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako zikloetan.
Emaitzen ebaluazioa	Azken emaitzen jarraipena
Arduraduna	Hezkuntza Saila
Lehentasuna	Handia
Data	2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.1. HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.1.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak laguntzea kulturartekotasunari buruzko hausnarketa eta prestakuntza zuzendaritza-taldeen prestakuntza-planaren barruan sartzen, prestakuntzaren bidez.
Deskribapena	Orain arte egin den bezala, Migrazio eta Asilo Sailak, Biltzen erakundearen bitartez, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardungo du azken sail horren barruan immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloetan prestatzaileak eta irakasleak prestatzen. Jarduera hori iraunkorra izan arren, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren helburua da prestatzaileak prestatzea, kateko autoprestakuntzako dinamika autonomoa sortzeko gainerako sailetan, eta bereziki Hezkuntza Sailean. Horretarako, zenbait xede-talderi zuzendutako prestakuntza-eskaintza landuko da, oro har administrazio publikoetan lan egiten duten langileekin hasita, kulturarteko konpetentzien inguruko sentsibilizazioan eta prestakuntzan jende gehiagorengana iritsi ahal izateko. Biltzen erakundea —esperientzia metatu du dagoeneko prestakuntzaren esparruan— izango litzateke, Ikuspegi erakundearen laguntzarekin, prestakuntza-katalogoa Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzaren gidalerroei jarraikiz lantzearen arduraduna, eta bera arduratuko litzateke prestakuntza horren edukiak jorratzeaz ere, Berritzegune Nagusiarekin eta zonetakoekin lankidetzan. Ikastaro horiek eskola-egituraren —derrigorrezkoa eta derrigorrezkoaren ondokoa— maila bakoitzera zuzenduko dira, baina Plan honen barruan helburua izango da zuzendaritza-taldeen barruan prestatzaileak prestatzea, eta, horien barruan, kulturarteko ikusmoldea ezagutzera ematea. Testuinguru horretan, aurrez aurreko prestakuntzaz gain, interesgarria da online prestakuntza-eskaintza edukitzea (ikus 4.2.8 ekintza).
Helburua	Prestatzaileak eta irakasleak kulturarteko ikusmoldean prestatzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Egindako prestakuntza-ikastaroen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Prestatutako pertsona kopurua
Arduraduna	Biltzen, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.1. HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.1.5. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak laguntzea familien prestakuntzaren eta partaidetzaren arloko jardunbide egokien aukeraketan eta dibulgazioan.
Deskribapena	Familien parte-hartzea hobekuntzarako gakoetako bat dela uste da, eta, hortaz, hezkuntza-sistemaren funtsezko helburu bat da, eta lehentasunezko estrategia pedagogikoetako bat sareetatik bultzatzen diren programetan. Familien inplikazioa sustatzeko, haien egiturazko zailtasunak gorabehera, funtsezkoa da familien prestakuntzan eta parte-hartzean jardunbide egokiak hautatzea eta ezagutaraztea. 2021ean eguneratu egin da lehendik argitaratutako dokumentu bat: <i>Familia etorkinen eta eskolen arteko harremanetarako Jardunbide Egokien Gidaliburua</i>. Azken edizioa eta zabalkundea falta dira. Bestalde, Hezkuntza Sailburuordetza programa berri bat planifikatzen ari da: Eraldatzen. Programa horren helburu orokorra da hezkuntza-arrakasta bultzatzea, ikasleen garapen pertsonal eta soziala ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako, proiektu estrategiko bat ezarri eta gauzatuko da, ikastetxe bakoitzaren eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzakontratu batean islatuko dena.
Helburua	Atzerriar jatorriko eta/edo etorkiko familiak prestatzeko eta parte hartzeko jardunbide egokiak hautematea.
Prozesuaren ebaluazioa	Dokumentu eguneratua
Emaitzen ebaluazioa	Dokumentuaren zabalkundea
Arduraduna	Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.1. HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.1.6. Autonomia-, foru- eta udal-teknikariek osatutako lantalde bat sortzea, atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko ikasleen balizko eskola-kontzentrazioak udalerrian izan ditzakeen ondorioei buruz gogoeta egiteko.
Deskribapena	Aski ezaguna da zenbateraino den garrantzitsua gurasoentzat beren seme-alabek ikasketak egiteko ikastetxea aukeratzea. Agian, hartu behar duten erabakirik garrantzitsuena izango da, eta, garrantzitsuenetarikoa bat, garrantzitsuena ez bada, beren ondorengoen etorkizunean eragina izaterakoan. Horregatik sortzen da kezka eta eztabaida ikastetxe batzuetan kontzentrazio-egoera jakin batzuen inguruan, hain zuzen ere, atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko haur eta neska-mutil kopurua nabarmena da-eta. Aniztasuna kulturarteko ikusmoldetik kudeatzeko esparruan lan egiten duten udal- eta foru-teknikarien ikuspegitik, egoera horietatik erator daitezkeen ondorioak, gazteen sozializazio-prozesuei dagokienez, oso garrantzi handikoak dira. Tokiko esparruan errealitate soziala eta bizikidetzak hobetzeko kezka horren emaitza gisa sortzen da gai horiei buruz gogoeta egiteko lantalde bat osatzeko ideia. Proposamena da, azken definizioan malgua, lantalde hori udal-, foru- eta autonomia-teknikariek osatuta egotea (Hezkuntza Saileko teknikariak ere sar daitezke) eta Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Hezkuntza Batzordearekin koordinatuta egotea. Horrela, egoki jo bezainbat txosten egin ahal izango ditu, bidezko gomendioak biltzeko, eta dagozkion instantzietara helarazi aipatutako Foroaren bitartez. Lantalde horrek, jakina, koordinazio-harreman estuak izango ditu Hezkuntza Saileko arduradunekin.
Helburua	Atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen balizko eskola-kontzentrazioak udal-mailan izan ditzakeen ondorioei buruz gogoeta egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea Urtean izandako bilera kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Lanerako proposamenak eta gomendioak biltzen dituzten txostenak
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.1. Lanbideko eta erakunde laguntzaile espezifikoetako orientazio-teknikariak sentsibilizatzea eta prestatzea —Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Biltzen erakundearen laguntzarekin— ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean.
Deskribapena	Azken urteotan ohikoa izan den bezala, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, nagusiki Biltzen erakundearen bitartez, eta Ikuspegi erakundearen laguntzarekin, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan jardungo du immigrazioaren eta kulturartekotasunaren esparruetan prestatzaileak prestatzen. Neurri hori iraunkorra izan arren, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren helburua da prestatzaileak prestatzea, kateko autoprestakuntzako dinamika autonomoa sortzeko Jaurlaritzako gainerako sail eta erakundeetan, eta bereziki Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan. Kontua da Lanbideko prestatzaile potentzialak prestatzea. Biltzen erakundea —esperientzia metatu du dagoeneko prestakuntzaren esparruan Eusko Jaurlaritzaren gainerako arloetan— izangoda kulturarteko ikusmoldean prestakuntza-katalogoa Zuzendaritzaren irizpideei jarraikiz lantzearen arduraduna, eta bera arduratuko da, era berean, prestakuntza horren edukiak jorratzeaz ere, betiere Lanbideren esku hartzeko arloen premietan oinarrituta.
Helburua	Lanbideko teknikariak prestatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-eskaintza lantzea Ikastaro kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Prestatutako pertsona kopurua
Arduraduna	Biltzen
	Lanbide, Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.2. Zuzendaritzak laguntzea etorkin helduen artean hizkuntzen ikaskuntza berrikusten eta sustatzen (Helduen Hezkuntza), etorkin horien integrazioarako eta prestakuntza eta enplegurako bide gisa —arreta berezia jarriko zaie emakumeei eta gazteei—.
Deskribapena	Atzerritar biztanleek bi hizkuntza ofizialak —euskara eta gaztelania— jakitea, komunikazio-tresna eta kulturartekotasuna indartzeko tresna izateaz gain, ezinbestekoa da integratzeko bide gisa, batez ere hizkuntzari eta gizarteari dagokienez urrutien dauden atzerritar jatorrien kasuan. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak lankidetzan jardungo du hizkuntza ofizialak indartzea gizarteratzeko bide bat izan dadin, prestakuntza eta enplegua eskuratzeko erraztasunak eman ondoren. Gaur egun helduen hezkuntzako 28 ikastetxe daude hiru lurralde historikoetan banatuta. Helduen hezkuntzako ikastetxeak erreferenteak dira oinarritzko prestakuntza urria duten etorkinentzat. Jatorriko herrialdean oinarritzko prestakuntza urria duten eta hizkuntza gutxi dakiten etorkinen kasuan, lehentasuna ematen zaio irakaskuntza arautuan alfabetatzen hasten direnean hizkuntza irakasteari eta horretan trebatzeari. Arautu gabeko irakaskuntzaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntzak hasierako mailetan (ingeleza eta frantsesa) irakasten dira. Foroaren dagokion batzordeak, non Zuzendaritzak aktiboki parte hartzen baitu, lankidetzan jardun behar du atzerritar jatorriko pertsonen prestakuntza-ibilbideak antolatzeke, prestakuntza batzuen betekizunek beste prestakuntza-prozesu batzuen garapen ona oztoka ez dezaten.
Helburua	Kolektiborik zaurgarrienetan hizkuntza ofizialen ikaskuntza indartzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Atzerritar jatorriko pertsonen zenbat ikastarotan parte hartzen duten
Emitzen ebaluazioa	Ikastaroetan parte hartu duten pertsonen kopurua, sexuaren arabera berezita.
Arduraduna	Hezkuntza Saila (Helduen Hezkuntza), Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.3. Zuzendaritzak laguntzea Helduen Hezkuntzako prestakuntza-edukiak berrikusten eta dibertsifikatzen.
Deskribapena	Migrazioen sektorean lan egiten duten eragileek eta erakundeek uste dute helduen hezkuntzako ikastetxeek beren prestakuntza-eskaintza berrikusi eta dibertsifikatu lezaketela eta eduki berriak sartu. Funtsezko edukiak alde batera utzi gabe, hala nola EAEko bi hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania) ikaskuntza edo alfabetatze digitala, honako eduki hauek ere txertatzea proposatzen da: — Kulturarteko edukien inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza — Atzerritar jatorriko pertsonen eskubide eta betebeharren inguruko prestakuntza Halaber, malgutasun handiagoa eskatzen da prestakuntza ordutegi konbentzionaletan egiteko zailtasun handiagoak dituzten atzerritar jatorriko pertsonen zuzendutako ordutegi-formatuak osatzerakoan.
Helburua	Kolektiborik zaugarrienetan hizkuntza ofizialen ikaskuntza indartzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Atzerritar jatorriko pertsonen zenbat ikastarotan parte hartzen duten
Emaitzen ebaluazioa	Ikastaroetan parte hartu duten pertsonen kopurua, sexuaren arabera bereizita.
Arduraduna	Hezkuntza Saila (Helduen Hezkuntza), Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.4. Zuzendaritzak laguntzea lan-orientazioko informazio-materialak (enplegurako prestakuntza) zenbait hizkuntzatan eguneratzen.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Lanbiderekin lankidetzan jardungo du lan-orientazioko informazio-materialak atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleen hizkuntza sarrirenetan editatzeko lanetan, komunikazio eraginkorra izatea eta prestakuntza eta enplegua eskuratzea bermatzeko eta, azkenik, gizarteratzeko mekanismo eta bide gisa. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Biltzen erakundeak alor horretan duen esperientziaren esku utzi ahal izango du lankidetzan.
Helburua	Atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen lan-orientazioa benetan eskura dezaten ahalbidetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Gaur egun dauden materialak biltzea Itzuli beharreko hizkuntzen zerrenda
Emaitzen ebaluazioa	Lan-orientazioko materialen edizioa
Arduraduna	Lanbide
Lehentasuna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.5. Zuzendaritzak laguntzea prestakuntzarako eta lan-munduratzeko laguntzen deialdiak berrikusten: gauzatze-epeen egokitzapena, lan-munduratzeko baldintzak, eta abar.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Lanbiderekin lankidetzan jardungo du prestakuntzarako eta lan-munduratzeko laguntzen deialdiak berrikusten: gauzatze-epeen egokitzapena, lan-munduratzeko baldintzak, eta atzerritar etorkiko biztanleen beharrak eta ahalbideak kontuan harturik egokitzen jotzen diren beste alderdi batzuk. Halaber, Foroaren dagokion batzordearen bilerek, non Lanbidek eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak aktiboki parte hartzen baitute, parte hartzen duten erakundeek planteatutako berrikusketa-proposamenak ezagutzen uzten jarraitu beharko dute, besteak beste Biltzen erakundeak planteatutakoak, Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren deialdiak erakundeen eta horien onuradunen eta erabiltzaileen beharretara egokitzen ahalegintzeko.
Helburua	Laguntza-deialdiei koherentzia handiagoa ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Berrikusketa abian jartzea Bileren aktak
Emaitzen ebaluazioa	Berrikusitako deialdiak
Arduraduna	Lanbide
	Biltzen, Ikuspegi, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.6. Lan- eta prestakuntza-programa.
Deskribapena	Lanbide zerbitzuaren eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren baterako programa bat da, lan egiteko baimenik ez duten pertsonak kontratatzeke eta prestatzeko dirulaguntzak ematen dituen. Programa hori EAEko toki-administrazioei zuzentzen zaie, edo, horien orde, horien erakunde autonomoei, edo enplegu-politika aktiboen, toki-garapenaren eta lanaren sustapenaren arloan eskumena duten entitateei, haien mende edo haiei loturik daudenei, dagozkien dirulaguntza-ildoetarako. Legez eraturako irabazi-asmorik gabeko erakundeei, lantokia Katalunian dutenei, dagozkien ildoetarako. Legez eraturako laneratzeko enpresa akreditatuei, lantokia EAEn dutenei, dagozkien ildoetarako. Biztanle gazteekin gauzatu diren programek nabarmendu dute zein garrantzitsua den lanbide-esperientziaz hornitzea, garatutako prestakuntza-programen osagarri gisa. Beharrian hori premia larrikoa da euskal administrazioaren tutoretzapeko pertsona gazteen kasuan, eta, bereziki, tutoretzapekoak izan direnen kasuan. Izan ere, pertsona gazte horien administrazio-tutoretzapeko prozesuak esan nahi du adin-nagusitasuna betetzen denean berehala azkentzen direla babes-neurriak, eta horrek babesgabetasuna eta gizarte-bazterketa ekar dezake pertsona horiei behar bezala lagun egiten ez bazaie. Programa hori Kataluniako Lan Zerbitzuak Migrazioen Idazkaritzarekin batera garatu duen Treball i Formacio Joves programan oinarritzen da, eta lan egiteko baimenik ez duten pertsonak kontratatzeke eta prestatzeko dirulaguntzak ematen ditu.
Helburua	Zaugarritasun bereziko langabezia-egoeran dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten langileen enplegarritasuna hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Programa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Programaren onuradunen eta kontratatuen kopurua
Arduraduna	Lanbide, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.7. Zuzendaritzak laguntzea egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen lanbide-konpetentziak aitortzea.
Deskribapena	Zuzendaritzak Lanbiderekin lankidetzan jardungo du egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen kolektiboarentzako konpetentziak aitortzeko plan bat egiten. Neurri hori “betekizunak arintzea” izendatu dugun horretan txertatzen da, legezko linbo bikoitzean geratzen diren egoeretarako: 1) eskumenak ematearen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak ezin duelako esparru horretan jardun; eta 2) pertsona kolektibo horren irregulartasun-egoeragatik. Egoera administratibo irregularrean dauden biztanleak EAEn bizi dira dagoeneko, eta irregulartasunak gora egingo du datozen urteetan immigrazio-fluxuak berraktibatu ahala. Hori dela eta, Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduan aintzat hartzea merezi du. Egoera administratibo irregularrean dauden biztanle horiek edozein legeriatan nekez aintzat har daitezkeen muga-egoerak erakusten dituzte. Kontua izango litzateke gazteentzako hezkuntza-ibilbideak sortzen lanean jarraitzea, erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko aukera izan dezaten. Ibilbide horrek honako prestakuntza hauek txertatuko lituzke: — Alfabetatzea: gizarteratzeko hasierako bide gisa. — Oinarrizko konpetentziak: bigarren hezkuntzako eskola-graduatuaren titulua lortzeari begira. — Konpetentzia pertsonalak: pertsonak helduaroa kudeatzeko tresnez hornitzea. Ereduak, erreferentziak, erkidegoa eta abar. — Hasierako konpetentzia teknikoak: produkzio- eta lan-munduarekin kontrastean. Lortu nahi den xedea da Aniztasuna Kulturartekotasunetik Kudeatzeko Euskal Ereduaren oinarri diren bizilekuko herritarrek ekitatea (posizio-berdintasuna vs aukera-berdintasuna) bermatzea ahalbidetzen duten prozesuak eta mekanismoak ikertzea.
Helburua	Egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen kolektiboarentzako konpetentziak aitortzea oinarri hartuta berritzea ekitatea.
Prozesuaren ebaluazioa	Egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen kolektiboarentzako konpetentziak aitortzea analizatuko duen talde bat sortzea.
Emitzen ebaluazioa	Aitortzeko planaren lanketa jasoko duen txostena
Arduraduna	Hezkuntza Saila, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.8. Zuzendaritzak laguntzea profesionaltasun-ziurtagiriei, lanbide-esperientziaren aitortpenari eta atzerriko tituluak homologatu eta baliozkotzeari buruzko informazioa zabaltzen.
Deskribapena	EBAZPENA, 2021eko azaroaren 23koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratutako konpetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura ireki eta iraunkorra ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan. Ebazpen horren 6. artikuluan ezartzen dira prozesu horretarako informatzeko, orientatzeko, aholkatzeko eta ebaluatzeko ikastetxeak: 6. artikulua. Informatzeko, orientatzeko, aholkatzeko eta ebaluatzeko ikastetxeak. 1.– Aplikatu behar den araudian ezarritakoaren arabera, prozeduraren faseak garatzeko baimenduta daude Lanbide Heziketako ikasketak ematen dituzten ikastetxe publikoak eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu publikoak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendekoak. 2.– Ebazpen honen II. eranskinean ageri diren Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe integratu pribatuei prozeduraren faseak garatzeko baimena ematen zaie. Halaber, interesdunak informatu eta orientatu ahal izango dituzte. 3.– Interesdunek prozedurari buruzko informazioa eta orientazioak jaso ahal izango dituzte Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan eta Lanbideren enplegu-bulegoetan; haien zerrenda Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren web-orrian eskura daiteke: https://ivac-eei.eus/eu/konpetenzien-aitorpena. 4.– Web-orri horretan bertan adieraziko da zer egoitza dituzten interesdunei prozedurari buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzua emateko baimenduta dauden irabazi-asmorik gabeko antolakunde publiko zein pribatuek eta eragile sozialek. Idea da ekintzak garatzen jarraitzea, atzeritarren eta, oro har, herritarren artean euskal administrazio publikoak lanbide-konpetentziak horretarako dauden bideen bitartez aitortzeko dituen zerbitzuak ezagutaraztea sustatzeko: — Egiazta daitekeen prestakuntza, esperientziaren eta/edo prestakuntza ez-formalaren bidez aitortzea, lanbide-heziketako LOE zikloetako lanbide-moduluak. — Unibertsitateaz kanpoko tituluak homologatzea eta baliozkotzea. Gaur egun, Lanbideren eta hirugarren sektoreko erakundeen arteko komunikazioa etengabea da eta ahaleginak egiten dira dauden premia guztiei erantzuteko. Lanbidek parte hartzen duen enplegu azoka eta foro guztietan honako gai hauei buruzko informazioa ematen du Prestakuntza Arloak: profesionaltasun-ziurtagiriak, lanbide-konpetentziak aitortzeko euskal sistema, atzerriko tituluaren homologazioa, eta interesekoak izan daitezkeen prestakuntzari buruzko alderdi guztiak. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Sailari dagokio titulazioak baliozkotzeko eskumena.

Helburua	Atzerritar jatorriko biztanleen enplegarritasuna hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Informazio-saioak egitea
Eraitzen ebaluazioa	Profesionaltasun-ziurtagirien urteko kopurua, sexuaren arabera bereizita Homologatutako tituluen urteko kopurua, sexuaren arabera bereizita
Arduraduna	Lanbide
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.9. Zuzendaritzak laguntzea aniztasunaren kudeaketaren arloko prestakuntza-espezialitate bat aktibatzen, enpresentzako eskura dagoen etengabeko prestakuntzako katalogoaren barruan.
Deskribapena	Kontua izango litzateke enpresan, katalogoaren barruan, aniztasunaren kudeaketari buruzko prestakuntza-modulu bat aktibatzea, lehentasunez pertsona landunei zuzendua. Biltzen erakundeak diseinatu zuen espezialitatea eta alta eman zioten Estatuko katalogoan. Baina azkenean erakunde bakar batek ere ez zuen eman. Kontua izango litzateke ekintza hori berriz aktibatzea eta azkenean eskain dadin ahalegintzea. 1. Lanbidek homologatutako hiru prestakuntza-erakunderekin / ikastetxerekin ituntzea, 2022ko ekainetik edo uztailetik aurrera prestakuntza-espezialitatea beren eskaintzan integratzeko konpromisoa har dezaten. 2. Hiru erakunde izango genituzke, bat lurralde historiko bakoitzeko, autonomia-esparruko proba pilotua izan dadin. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sareari zuzenduko zaio. Zehazki, enpresen barruan adiera zabalean giza baliabideen kudeaketarekin erlazionatutako lanpostuak betetzen ari diren langileei. Gestoria, aholkularitza eta abarrek ere parte hartzeko aukera aztertuko dugu, horiek betetzen baitute figura horien eginkizuna langile autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen kolektiboari dagokionez.
Helburua	Enpresa-sarea aniztasunaren kudeaketaren inguruan prestatzea eta sentsibilizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Aipatutako edukia duen prestakuntza-eskaintza
Emitzen ebaluazioa	Prestakuntzan parte hartzen duten enpresen urteko kopurua
Arduraduna	Lanbide
Lehentasuna	Handia
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.10. Zuzendaritzak laguntzea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonak alfabetatze digitaleko prestakuntza-eskaintzan sartzen.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak, atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleen gizarteratzea bermatzearen, Lanbiderekin lankidetzan jardungo du haiek alfabetatze digitaleko prestakuntza-eskaintza irispidean izan dezaten. Etorkizuneko lan-kompetentzien barruan ezinbestekoa da alfabetatze digitala, arrakala digitala saihesteko ez ezik, lan-aktibazioaren oinarrizko elementu gisa ere. Lanbidek alor horretan zuzenean nahiz zeharka egindako prestakuntza-eskaintza zabala kontuan harturik, Zuzendaritzaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren helburua da atzerritar jatorriko pertsonen alfabetatze digitaleko prestakuntza-eskaintza irispidean izateko erraztasunak ematea, hori baita pertsonak administrazioekin komunikazio digitala izateko atea mota guztietako tramitazioak gero eta neurri handiagoan digitalizatzearren testuinguruan, arreta berezia jarrita administrazio- eta lan-esparruetan. Lanbideren espezialitateen katalogoan deialdi guztietan programa daitezkeen alfabetatze digitalari buruzko zenbait ikastaro daude. Ez daude soilik etorkinei zuzenduta, baina gainerako pertsonen baldintza berberetan parte har dezakete ekintza horietan, eta lehentasuna izango dute, batez ere emakumeei zuzendutako Erresilientzia eta Suspertze Mekanismoen Europako programetan. Proiektu berezietan eta kualifikazio txikiko gazteen kasuan, atzerritar jatorriko eta nazionalitateko pertsonak osatzen dute kolektibo hartzaile zehatzetako bat.
Helburua	Alfabetatze digitaleko prestakuntza-eskaintza irispidean izateko erraztasunak ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Alfabetatze digitaleko prestakuntza-eskaintza katalogatzea Eskainitako ikastaro kopurua
Emitzen ebaluazioa	Parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera bereizita
Arduraduna	Lanbide
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.2.11. Zuzendaritzak laguntzea atzeritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinen prestakuntza eta birziklatzea berrikusten (enplegurako aktibatzeo orientazioa eta prestakuntza) eta berariazko prestakuntza-katalogoak egiten.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak, atzeritar etorkiko biztanleen gizarteratzea bermatzearen, Lanbiderekin lankidetzan jardungo du atzeritar etorkiko pertsonen prestakuntza eta birziklatzea berrikusten, enplegurako orientatzeko eta aktibatzeo. Lan-aktibazioa atzeritar biztanleak hartzen dituzten gizarteek dituzten kezketako bat da, haiek gizarteratzean lan-munduratzeari begira, egiturazko zaugarritasun-egoeran daude-eta. Gaur egun bi deialdi espezifiko daude, eta berriz argitaratuko dira: proiektu bereziena eta kualifikazio txikiko gazteena. Gainera, Erresilientzia eta Suspertze Mekanismoen Europako programetako batek berariaz aintzat hartzen du birkualifikazioa. Atzeritar jatorriko biztanleei bideratutako prestakuntza-ibilbideak diseinatu dira, zerbitzuen esparruan hain zuzen ere, zainketen eta etxeko lanen esparruan arreta berezia jarrita, sektorea profesionalizatzeko eta kolektibo horren laneratzea errazteko.
Helburua	Atzeritar etorkiko pertsonen prestakuntza eta birziklatzea hobetzea, enplegurako aktibatzeari begira.
Prozesuaren ebaluazioa	Eskainitako ikastaro kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera bereizita
Arduraduna	Lanbide, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntzea herritarren eskubide eta betebeharren arloan eta etorkinen gizarteratzearen arloan lan egiten duten udal-teknikarien sarea mantentzen.
Deskribapena	Kontua da herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten udal-teknikariak kontratatzeke udalei urtero ematen dizkien laguntzei eustea.
Helburua	Udal-mailan langile kualifikatu eta profesionalen euskal sarea edukitzea, Plan hau garatzeko eta inplementatzeko lanetan Eusko Jaurlaritzaren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren politiketan lankidetzan jarduteko
Prozesuaren ebaluazioa	Kontzeptu horretarako urteko diru-esleipena
Emaizen ebaluazioa	Udal-teknikariek Zuzendaritzaren politiketan parte hartzea Udal-teknikariek lantaldeetan parte hartzea
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Udalak, Eudel
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntza ekonomikoa ematea, herritarren eskubideen eta betebeharren arloko eta etorkinen gizarteratzearen arloko jarduerak gara ditzaten.
Deskribapena	Kontua da udalei urtero ematen dizkien laguntzei eustea, honako esparru hauetan jarduerak garatzeko: herritarren eskubideak eta betebeharrak; tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea; desberdintasunerako eskubidea aitor dadin sustatzea; trukerako eta interakzio positiborako espazioak sortzea; etorkinak gizarteratzea; bizikidetza-planak egitea; nekazaritzako sasoiko lanari arreta ematea; eta abar. Oro har, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruekin zerikusia duten jarduerak. Laguntza horiek Plan honen lehentasunezko ildoekin bat etorriko dira, hau da, kulturartekotasuna Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduaren ardatz gisa sustatzearekin bat. Gainera, bidezkoa izan daiteke laguntza horiek beste instantzia edo erakunde batzuek ere ematen dituztenekin koordinatzea: Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak duen laguntza-ildoaz ari gara, eta aldundi batzuek dutenaz, Gipuzkoakoak behintzat, herritartasunaren esparruan aukera-berdintasunean zentratutako tokiko inklusio-planak egitera berariaz zuzendua.
Helburua	Udal-mailan jarduerari babesa ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Kontzeptu horretarako urteko diru-esleipena
Emitzen ebaluazioa	Jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua Plan honen ildoekiko koherentzia
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
	Udalak, Eudel
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.3. Euskal Autonomia Erkidegoko udalen herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren arloko ekintza babestuko duten eta arlo horietan esku hartuko duten hiru talde sortzea —lurralde historiko bakoitzeko bat—. Tokiko teknikariek (udaletakoek edo mankomunitateetakoek) talde horietan lagundu ahal izango dute (kulturartekotasunean edo gizarte-ekintzako jarduera ez-espezifikoa), Zuzendaritzaren estrategia Euskal Autonomia Erkidego osora irits dadin.
Deskribapena	Udal-ekintza babesteko eta arlo horretan esku hartzeko hiru talde sortzea eta antolatzea, 4.2.1 ekintzan aurreratu den moduan. Idea da Biltzen erakundean udal-mailan esku hartzeko bina pertsonako hiru talde osatzea, lurralde historiko bakoitzean bat: 1) udal-teknikari espezifikoei lankidetzan jarduteko halakorik dagoen udalerrietan edo mankomunitateetan; 2) udal-teknikari espezifikorik ez duten udalerri, mankomunitate, eskualde edo zonetara iristeko, Plan hau EAEko lurralde osora irits dadin. Ekintza horretan aurreratu dugun moduan, Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiaren dokumentazio, ikerketa eta abarren laguntza izango dute talde horiek. Esku hartzeko talde horien lana urtean behin planifikatu beharko da, udal-teknikariek koordinatuta eta Zuzendaritzak gainbegiratuta. Idea da, talde horien bitartez, udalekin eta mankomunitateekin koordinatuta, eta tokiko elkarte-sarearekin lankidetzan (kultura-erakundeak, sozialak, auzo-elkarteak, kirol-elkarteak, erlijio-erakundeak, astialdikoak, eskualde-agentziak, enpresa-ehuna eta abar), Plana hedatzea, kulturarteko bizikidetzaren esparruan toki-mailan garatzeko aurreikusitako ekintzei dagokienez. Kontua da, beste zenbait ekintzaren artean, udal-teknikariek egiten duten lanari babesa ematea, eta, horretarako, udalerri eta auzoetako pertsonen artean parte hartzeko, elkartzeko eta interakzioan jarduteko espazioak sortzen laguntzea; atzerriar jatorriko pertsonenganako estereotipo eta aurreiritzi negatiboen kontrako borrokaren esparruan lan egitea; kulturarteko auzo-gatazketan (adibidez, erlijiosoa) esku hartzea eta bitartekari izatea; islamofobiaren kontrako borrokan laguntzea; familia berrelkartzearekin zerikusia duen guztian udal-teknikariei babesa ematea; eta abar. Idea da EAEko udalerrietan dagoen elkarte-sarea kontuan izatea eta harekin lan egitea, auzo-elkarte, sindikatu, lanbide-elkarte eta abarrekin lankidetzan jardutea.
Helburua	Plan honen filosofia, helburuak eta lehentasuneko ekintza-ildoak EAE osora helaraztea
Prozesuaren ebaluazioa	Esku hartzeko taldeak sortzea: kideak izendatzea
Emaizen ebaluazioa	Urtero egindako jarduerak Jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen kopuruaren inpaktua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
	Biltzen
Lehentasuna	Handia
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.4. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei (EUDEL) laguntza ekonomikoa ematea, hizkuntza-zailtasunak dituzten etorkinekin komunikatzea erraztuko duen itzulpen- eta interpretazio-sistema eskain dadin.
Deskribapena	Gaur egun ematen den laguntza ekonomikoa da: Zuzendaritzak zuzenean Eudeli ematen dion laguntza ekonomikoa da, EAeko udalek osagarribat izan dezaten korporazioek bi hizkuntza ofizialetan —euskara edo gaztelania— hitz egiteko zailtasunak dituzten atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten dutenean behar dituzten itzulpen- eta interpretazio-lanetarako. Ez legoke gaizki Zuzendaritzak laguntza horien ekintza-eremua handitzeko aukera aztertzea eta beste sail batzuek zeregin horietarako funtsak bidera ditzaten lan egitea, beste esparru batzuetan ere beharrezkoak izan daitezkeela baitirudi, hala nola hezkuntzan, osasun-arretan eta arreta juridikoan.
Helburua	EAeko udalek arlo horretan egiten dituzten ahaleginak osatzea
Prozesuaren ebaluazioa	EUDELi laguntza ematea
Emitzen ebaluazioa	Udal-mailako esku-hartze kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.5. Euskal Autonomia Erkidegoko gizartea, elkarteak, etorkinen erakundeak, etorkinentzako erakundeak, etorkinentzako elkarteak eta abar sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean, betiere solasaldien, mintegien, hedabideetako esku-hartzeen eta abarren bidez.
Deskribapena	Ekintza honek Biltzen eta Ikuspegi erakundeek zenbait urtez geroztik egiten dituzten jarduerak biltzen ditu, funtsean, honako hauek: — Udalek berek udal-mailan antolatzen dituzten hitzaldi, mintegi, solasaldi, eztabaida, mahai-inguru eta abarretan parte hartzea, haien udalerrietako biztanle guztiei zuzendutakoetan, baina baita beste kolektibo batzuek antolatutakoetan ere, hala nola auzo-elkarteek, hirugarren adinekoen egoitzek, ikastetxeek, pertsona erretiratuen klubek, kirol-erakundeek, sindikatuek, elkarte profesionalek, enpresa-elkarteek, eskualde-agentziek, astialdiko elkarteek, kultura-elkarteek eta elkarte sozialek. — Biltzen eta Ikuspegi erakundeek lankidetzara eskatzen duten komunikabideez arduratzea: telebista-estudioetara joatea, elkarrizketa pertsonalei erantzutea, irrati-programetan sartzea eta erantzutea, idatzizko prentsaren eskabideei erantzutea, azterketa zehatzei buruzko prentsaurrekoak egitea, garatutako ikerketen eta/edo esku-hartzeen aurkezpenak egitea, eta abar. — Hizkuntza-aniztasunaren eginkizuna eta euskararen rola nabarmentzea, kulturartekotasuna osatzen duten elementuak diren aldetik. Idea da datozen urteetan jarduera horiek egiten jarraitzea, funtsean Biltzen eta Ikuspegi erakundeek bitartez, baita Zuzendaritzaren beraren bidez ere.
Helburua	Atzerritar immigrazioaren inguruan iritzi eta jarrera positiboak sortzea
Prozesuaren ebaluazioa	Egindako jarduera kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Jarreraren bilakaera Ikuspegi erakundearen barometroaren bitartez
Arduraduna	Biltzen, Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.6. Autonomia Erkidegoko segurtasun-langileak (ertzainak eta udaltzainak) sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean, betiere Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestakuntza-taldean prestakuntzaren bidez.
Deskribapena	Urteak daramatzagu lanean EAEko segurtasuneko langileak (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) sentsibilizatzen eta prestatzen. Gaur egun, aztergai dugun gaiarekin zerikusia duen irakasgai bat dago curriculumean langile horien prestakuntzan. Badirudi une egokia dela Segurtasun Sailak bere langileen kulturarteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana bere gain hartzeko, eta Biltzen erakundea Segurtasun Saileko prestatzaileak prestatzeaz eta eguneroko lanean behar duten laguntza emateaz arduratzeko.
Helburua	Segurtasun Saileko prestakuntza-taldeak prestatzea eta horiei laguntza ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Urtero egindako prestakuntza kopurua
Emitzen ebaluazioa	Kulturarteko konpetentzietan prestatutako prestatzaileen kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.7. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-saioak eskaintzea, baldin eta hartzaile nagusiak atzerritarrak, arrazializatuak edo etniaren eta kulturaren aldetik askotarikoak diren pertsonak badira.
Deskribapena	Kulturarteko bizikidetzari eskubideen ikuspegitik heltzeak berekin dakar arrazializatutako edo atzerritar jatorriko pertsonak hartzaile dituzten — baina ez horiek bakarrik— tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-tresnak sortzea. Ekintza honek 2-3 orduko iraupeneko saioak diseinatzeko konpromisoa hartzen du. Saio horiek toki-esparruan emango lirateke, toki-erakundeekin edo entitate sozialekin lankidetzan, eta diskriminazioari, horren tipologiei, esparruei eta aurre egiteko tresnei buruzko informazio garbia helaraztea izango lukete helburu. Halaber, sentsibilizazioa ahalduztzearen aldetik aintzat hartuko du. Saio horiek emateko lehentasunezko esparruetako bat helduen hezkuntzako ikastetxeak eta lanbide-heziketako ikastetxeak (LH) izango dira. Izan ere, gai horren inguruko interesa erakutsi dute, eta, gainera, edukian interesa izan dezaketen pertsona asko biltzen dituzte. Halaber, Eraberean sareko antenen lankidetzaren ere baloratuko da.
Helburua	Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko informazioa ematea horretan zuzeneko interesik handiena duten pertsonen
Prozesuaren ebaluazioa	Moduluaren eskaintza eta horiek irakastea toki-erakundeekin, helduen hezkuntzako ikastetxeekin, lanbide-heziketako ikastetxeekin eta erakunde sozialekin lankidetzan.
Emaitzen ebaluazioa	Emandako saio kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023 eta 2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.8. Transferitu berri den espetxe-eskumeneko langileak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean.
Deskribapena	Espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzko ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuak espetxeak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu dizkio, eta, horren ondorioz, Eusko Jaurlaritza arduratuko da haiek kudeatzeaz. Zehazki, hiru espetxez ari gara: Zaballakoa, Martutenekoa eta Basaurikoa. Transferitutako espetxeetako teknikariak kulturartekotasunaren esparruan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta atzerriar jatorriko etorkinak gizarteratzeko prozesuetan prestatzeko eta sentsibilizatzeke plan bat proposatzeko une egokia dela uste dugu.
Helburua	EAEko hiru espetxeetako taldeak prestatzea eta sentsibilizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-programa
Emitzen ebaluazioa	Emandako saio kopurua Prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten pertsonen kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.9. Zurrumurruen Aurkako Sarearen (ZAS) laguntza ekonomikoa. Sare horrek atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen zuzendutako estereotipo faltsuen eta aurreiritzien aurka borrokatzen du, baita diskurtso arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileen aurka eta berdintasun handiagoko gizartearen alde ere.
Deskribapena	Ekintza hau oso zehatza da, eta Zurrumurruen Aurkako Sarearekin kontratu bat izenpetzeari dagokio, sareak udal eta hirugarren sektoreko erakunde asko biltzen baititu. Biltzen eta ikuspegi erakundeen presentziarekin batera, atzeritar etorkinei buruzko estereotipo eta aurreiritzi negatiboen aurkako borrokan. Akordio horrek sarean modu koordinatuan lan egiteko aukera ematen dio entitate eta erakunde kolektibo horri. Normala denez, sareak zer jardura egiten duen eta sareak eta Zuzendaritzak urtero egiten dituzten jarduteko akordioak nolakoak diren, horren arabera emango dira jardura horretarako laguntzak.
Helburua	ZAS sarearen lana indartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Kontratua izenpetzea
Emaizen ebaluazioa	ZAS sarearen jardura kopurua ZAS sarea osatzen duten erakunde kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.10. Kulturartekotasunaren ikuspegia ikusaraztea eta integratzea Zuzendaritzaren, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalean.
Deskribapena	Lana Zuzendaritzak berak egin beharrekoa da, Saileko Komunikazio Zerbitzuarekin batera, azken horren komunikazioak behar bezala adieraz dezan EAEko kultura-aniztasuna. Era berean, Zuzendaritzaren lana da aliantzak egitea Saileko Komunikazio Zerbitzuarekin, Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalak ere behar bezala jaso dezan EAEko kultura-aniztasuna. Garrantzitsua litzateke, halaber, puntu honetan gehitzea kulturarteko ikuspegiak bai Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bai Eusko Jaurlaritzak egindako plan eta programa guztietan agertu behar duela.
Helburua	EAEko kultura-aniztasuna behar bezala islatzea Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalean
Prozesuaren ebaluazioa	Komunikazio Zerbitzuarekin jarduteko protokolo bat ezartzea
Emitzen ebaluazioa	Sailaren komunikazio-jarduerari buruzko txostena
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.11. Jardunbide egokiei buruzko akordioa sinatzea hedabideekin, herritartasunaren, kulturarteko elkarbizitzaren eta immigrazioaren arloan mugak ezar daitezen, betiere eskubide-berdintasunean oinarritutako iritzi publiko informatua eta errespetuzkoa eraikitzeari dagokionez.
Deskribapena	Ekintza honek Zuzendaritzaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren lan politikoa eskatzen du. Kontua litzateke jardunbide egokien akordio-zirriborro bat egitea, EAEko idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabide garrantzitsuenek eztabaida eta sina dezaten beren erakunde profesionalen bitartez. Duela 10 urte sinatu zen baina garrantzi berezirik izan ez duen akordioa izan daiteke abiapuntua. Akordio hori berrikustea eta eguneratzea litzateke kontua. 2020. urtean informazio- eta dokumentazio-bilketa egin zen, lehen zirriborro bat landu eta komunikabideetako profesionalekin erkatu zen, eta zirriborro-dokumentu bat idaztera ere iritsi ziren. Alabaina, pandemiak prozesu hori gelditu zuen eta komunikabideak ez ziren dokumentua sinatzera iritsi. Kontua litzateke ekintza hori berriz abian jartzea.
Helburua	Bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruaz egiten den tratamendu informatiboa hobetzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Zirriborroa komunikabideekin kontrastatzea
Eraitzen ebaluazioa	Akordioa sinatzea
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.12. Zuzendaritzak maila goreneko agintari publikoei laguntzea atzerriar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonentzako kultura-, kirol- eta gizarte-agerpen garrantzitsuetan eta data garrantzitsuetan, besteak beste.
Deskribapena	Agintari publikoek (lehendakaria, diputatu nagusiak, alkateak, sailburuak, diputatuak, parlamentariak eta abar) EAEko ohiko egutegiko egun seinalatuak, kultura-, kirol-, gizarte-adierazpenak eta abar nabarmentzeko ekitaldi publikoetan parte hartzen duten bezala, beste kultura batzuen egun garrantzitsuak ospatzeko ekitaldietan ere ager litezke. Urte berri txinatarraz, urte berri juduaz, musulmanentzat garrantzitsuak diren egunez ari gara, baita, beharbada, komunitate juduaren, ebanjelikoaren, musulmanaren... erlijio-egunez ere. Ekintza honek ere Zuzendaritzako eta Saileko langile politikoen zuzeneko inplikazioa eskatzen du, baita Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusikoena ere. Kontua litzateke egunak identifikatzea (Biltzen erakundeko langileak izan daitezke erreferente egokia), egutegi bat egitea, Zuzendaritzarekin eta Sailarekin adostea, eta Lehendakariatzako Kabinetearen agendan sartzeko estrategia ezartzea.
Helburua	EAEko gure gizarte osatzen duten kultura guztien egun seinalatuak aintzat hartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Egutegia ezartzea
Emitzen ebaluazioa	Lehendakaria, sailburuak, sailburuordeak eta zuzendariak aipatutako egunetan agertzea
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.3. BIZIKIDETZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.3.13. Udalerrian edo auzoan ekintza proaktiboak sustatzea, tokiko kolektiboen arteko interakzioa sustatzen dutenak, espazio partekatuak sortzen dituztenak eta kultura-aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituztenak.
Deskribapena	Kontua da auzoan eta/edo udalerrian espazio fisiko bera partekatzen duten kultura desberdinetako pertsonen interakzioan eragin espezifikoa duten jardunbide egokiak hautematea eta dokumentu batean biltzea. Dokumentu hori, hasiera batean, bigarren mailako informazio-iturriak bilduz egin daiteke, analisi dokumental bat eginez. Geroago, udal-teknikariek beren esperientziaz eskain dezaketen ekarpenarekin osa daiteke, baita Biltzen eta Ikuspegi erakundeetako langileek esparru horretan egindako lanari esker metatu ahal izan duten esperientziarekin ere.
Helburua	Kulturaren aldetik askotarikoak diren kolektiboen arteko interakzio positiboa indartuko duten jardunbide egokien multzoa eskaintzea udal-teknikariei
Prozesuaren ebaluazioa	Bildutako bibliografia Udal-teknikariek izandako elkarriketak
Emaizen ebaluazioa	Katalogoa egitea
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023, 2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.4. HIZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.4.1. Udalerrian edo auzoan, euskara atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleengana hurbiltzeko ekintzak sustatzea, baita tokiko kolektiboen arteko interakzioa bultzatzen duten ekintzak eta eremu partekatuak sortzen dituzten eta hizkuntza-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituzten ekintzak ere.
Deskribapena	2021ean, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak dokumentu bat egin zuen, ekintza proaktiboen udal-esparruko jardunbide egokiak biltzen zituen, eta euskara tokiko esparruan atzerritar jatorriko, nazionalitateko eta/edo etorkiko biztanleei hurbiltzen ziena. Kontua da migrazioen eta euskararen esparruan lan egiten duten udal-eta foru-teknikarien artean zabaltzea, atzerritar jatorriko edo etorkiko biztanleen artean euskararen ezagutza eta erabilera hurbiltzen duten ekintza proaktibo eta positiboak sustatzeko.
Helburua	Interakzio positiboa indartuko duten jardunbide egokien multzoa eskaintzea udal-teknikariei
Prozesuaren ebaluazioa	Txostena EAEko udalerrietara bidaltzea
Emitzen ebaluazioa	Udal-mailan egindako ekintzak
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.4. HIZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.4.2. HABErekin lankidetzatza-hitzarmena berrabiaraztea, atzeritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatzeko.
Deskribapena	Kontua da Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta HABEren artean urte batzuetan martxan egon zen hitzarmen bat berrikustea eta berrabiaraztea, atzeritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatzeko eta bultzatzeko. Testuinguru horretan, bidezkoa izan daiteke udalerriek AISA harrera-ikastaro linguistikoekin izan duten esperientzia guztia baloratzea. Halaber, interesgarria izan daiteke honako alderdi hauek kontuan hartzea: — Ikastaroko ikasleak erakartzea: errolda, ikastetxeak eta abar. — Ikastaroen maiztasuna, urteko ikastaro kopurua... — Edukia: ikastaroan beste eduki batzuk sartzea, gehienez ordu erdiko saio laburretan, harrerari buruz (berdintasuna, errolda, gizarte-zerbitzuak, Lanbide, autoenplegua, hezkuntza eta abar), euskarari protagonismo osoa emanez. Integrazioa: ikastaroko ikasleen eta udalerriko beste auzokide batzuen arteko interakzioa sustatzea. Adibidez, Bizilagunak bezalako jarduerekin. Euskara sustatzeko tokiko elkarteek prozesuan parte har dezaten bultzatzea.
Helburua	Atzeritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Hitzarmena sinatzea
Eraitzen ebaluazioa	Onuradun kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehenetsuna	Handia
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.4. HIZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.4.3. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzaren euskararen autoikaskuntzarako aplikazioa hedatzeko, betiere atzerritar jatorriko, etorkiko eta/edo nazionalitateko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatuko duen neurri gisa.
Deskribapena	Kasu honetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza euskara modu autonomoan ikasteko aplikazio mugikor bat garatzen ari da. Garatuta dagoenean, erabiltzaileari aukera emango dio euskara bere kasa ikasteko prozesua gauzatzeko, bere behar eta ahalbideen neurrian. Kontua litzateke doako aplikazio hori etorkinentzat lan egiten duten erakunde guztien artean eta etorkinen erakundeen artean zabaltzea.
Helburua	Atzerritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Sektoreko erakundeei posta banatzea
Emaitzen ebaluazioa	Onuradun kopurua (deskargak edo erabiltzaileak)
Arduraduna	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.4. HIZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.4.4. Hizkuntza-alderdiei eta immigrazioari buruz hausnartuko duen lantaldea sortzea autonomia-, udal- eta foru-teknikariekin.
Deskribapena	Atzerritar jatorriko pertsonak gure erkidegora iristeak erronka berriak dakartza EAEko hizkuntza ofizialen eta etorkinen hizkuntza-kudeaketaren ikuspegitik. EAEEn diglosia edo hizkuntza-desberdintasuneko egoera batetik abiatuta, bi hizkuntza ofizial izan arren, garrantzitsua da tokiko errealitatea aztertzeke eta gogoeta egiteko espazioak sortzea, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko neurriak diseinatzeko eta abian jartzeko, baita atzerritar jatorriko pertsonen euskararekiko prestasuna eta jarrerak hobetzeko ere. Bereziki interesgarria da gogoeta hori euskararen erabilera hedatuago dagoen testuinguruetan, euskararen erabilerari eusteko, baina baita gehienbat gaztelaniadunak diren testuinguru edo inguruneetan ere, atzerritar jatorriko pertsonen euskararen ezagutza balora dezaten, ondorengo etorkizuneko gizarte-sustapenerako eta etorkizuneko lan-aukeren berdintasuna bermatzeko tresna gisa. Interes bereziko arlo bat euskararekiko jarrera positiboak sortzearekin, euskararen ezagutzarekin, erabilerarekin eta mugikortasun bertikalerako etorkizuneko tresna gisa aztertzearekin erlazionatuta dago. Kontua litzateke euskara atzerritar jatorriko pertsonengana hurbiltzeko moduari buruz gogoeta egitea, hizkuntza horrekiko jarrera positiboak sortzeko. Era berean, euskararen aldeko tokiko elkarrekin lankidetzan jardutea sustatuko da, atzerritar jatorriko pertsonen etorkizuneko interakzioa sustatzeko, adibidez, Bizilagunak bezalako jarduerekin. Gaur egun badago ildo horretan lanean ari den lantalde informal bat, baina uste dugu garrantzitsua dela bere lana formalizatzea eta sistematizatzea. Horregatik, lantalde hori finkatzea proposatzen dugu.
Helburua	Gure udalerrietako hizkuntza-egoerari buruz gogoeta egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldearen urteko bilera kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Lanerako proposamenak eta gomendioak biltzen dituen urteko txostena
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.4. HIZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.4.5. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-kudeaketaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan elkarrekin lan egitea, migrazioen arloan lan egiten duten udal- eta foru-teknikariei zuzenduta.
Deskribapena	Kontua da hizkuntza-kudeaketarako konpetentziei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak antolatzea, EAEn migrazioen esparruan lan egiten duten udal- eta foru-langileei zuzendua. Beste kolektibo batzuekin prestakuntzak gauzatu dituen era berean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza prest dago Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin ekintza honetan lankidetzan jarduteko.
Helburua	Migrazioetan lan egiten duten udal- eta foru-teknikarien hizkuntza-kudeaketaren arloko konpetentziak hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekiko lankidetzaren hitzarmena sinatzea
Emitzen ebaluazioa	Prestakuntzaren onuradun kopurua
Arduraduna	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.4. HIZKUNTZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.4.6. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-kudeaketaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan elkarrekin lan egitea, etorkinen erakundeei eta etorkinen errealitate soziala hobetzeko lan egiten dutenei zuzenduta.
Deskribapena	Kontu da hizkuntza-kudeaketarako konpetentziei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak antolatzea, etorkinen erakundeei eta EAEn etorkinen errealitate soziala hobetzeko lan egiten dutenei zuzendua. Beste kolektibo batzuekin prestakuntzak gauzatu dituen era berean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza prest dago Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin ekintza honetan lankidetzan jarduteko.
Helburua	etorkinen erakundeetan eta etorkinen errealitate soziala hobetzeko erakundeetan lan egiten duten teknikarien hizkuntza-kudeaketaren arloko konpetentziak hobetzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekiko lankidetzak hitzarmena sinatzea
Emitzen ebaluazioa	Prestakuntzaren onuradun kopurua
Arduraduna	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.5. OSASUN-ESPARRUA

Ekintza	4.3.5.1. Atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen osasun-arreta eskuratzeko aukera bera dutela agerian uzten duten datuak bilatzea edo, bestela, horretarako ezarritako neurri zuzentzaileak aztertzea, Osasun Sailarekin, elkarte-sarearekin eta unibertsitateekin elkarlanean.
Deskribapena	Kontua da ikerketa bat diseinatzea egiaztatu ahal izateko atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen sarbide-berdintasuna dutela osasun-arretan, Osasun Sailak osasun-arretarako emandako gidalerroetatik haratago. Horrek datuak badauzka, sarbidearen arduraduna da, talde tekniko eta profesional egokia dauka, metodologia ezagutzen du... eta agian, Ikuspegi erakundeak metodologia kualitatiboa emanez lagun lezake diseinu kuantitatiboagoa duten azterketa horien osagarri. Ideia da Ikuspegi erakundeak osasun-arretarako sarbide-berdintasunaren bidean sor daitezkeen oztopoei buruzko ikuspegi kualitatiboagoa ematea Osasun Sailak maneiatzen dituen datuei. Arau- eta lege-ikuspuntutik, egoera administratibo irregularrean dauden etorkinek zailtasunak eta oztopoak dituzte osasun-arreta berdintasunean eskuratzeko. Osasun Sailean neurri egokiak hartzen ari dira, pertsona guztiek, praktikan, osasun-arretarako berdintasunezko sarbidea izan dezaten. Ekintzak nabarmen utzi nahi du ahaleginak emaitza positiboak dituela, edo, bestela, neurri zuzentzaileak gomendatu nahi ditu berdintasunezko osasun-arreta eragozten duten oztopoak arindu eta gainditzeko. Normala denez, Ikuspegi erakundea une oro koordinatuko litzateke Osasun Saileko arduradunekin. Ikerketa horretan, gainera, oso interesgarria litzateke hirugarren sektoreak ere parte hartzea ikerketaren diseinuan eta garapen onean laguntzeko. Garrantzitsua da sexuaren arabera bereizitako informazioa edukitzea, sexuan oinarrituta eman litezkeen egoera diferentzial posibleak ezagutu ahal izateko.
Helburua	EAEko biztanle guztien arteko berdintasunezko osasun-arretan aurrera egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Emaitzen txostena, sexuaren aldagaien arreta berezia jarrita
Arduraduna	Ikuspegi
	Osasun Saila, elkarte-sarea
Lehentasuna	Ertaina
Data	2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.5. OSASUN-ESPARRUA

Ekintza	4.3.5.2. Osasun Sailari helaraztea mendekotasun-egoeran dauden etorkinen arbaso berrelkartuei arreta emateko beharra.
Deskribapena	Kontua da atzerritar jatorriko etorkinen arbasoen berrelkartzea gertatzen denean, mendekotasuna duten pertsonen kasuan, osasun-laguntzaren onuradun izan daitezen lortzea, atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaba berrelkartuen era berean. Gaur egun, pertsona horiek, atzerritar jatorriko pertsonen arbasoek, osasun-aseguru pribatu bat harpidetu behar dute edo lan-merkatura jo, osasun-laguntzaren onuradun izan ahal izateko.
Helburua	Atzerritar jatorriko pertsonen arbaso berrelkartuei osasun-laguntza ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Araudiaren aldaketa
Emaitzen ebaluazioa	Osasun-sistamarako benetako sarbidea
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Foroaren Osasun Batzordea
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023, 2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.5. OSASUN-ESPARRUA

Ekintza	4.3.5.3. Osakidetzako prestakuntza-taldeen prestakuntzaren bidez, pertsonal sanitarioa eta ez-sanitarioa sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.
Deskribapena	Urteak daramatzagu lanean Osakidetzako pertsonal sanitarioa eta ez-sanitarioa sentsibilizatzen eta prestatzen. Badirudi une egokia izan daitekeela Osakidetzak berak bere langileen kulturarteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana bere gain hartzeko, eta Biltzen erakundea Osakidetzako prestatzaileak prestatzeaz eta eguneroko lanean behar duten laguntza emateaz arduratzeko. Ilido horretan, online prestakuntzako moduluak garatzea osagarri egokia izan daiteke.
Helburua	Osakidetzako prestakuntza-taldeak prestatzea eta horiei laguntza ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Urtero egindako prestakuntza kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Kulturarteko konpetentzietan prestatutako prestatzaileen kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.5. OSASUN-ESPARRUA

Ekintza	4.3.5.4. Ikasleak eta osasun-zientzien arloko (medikuntza, odontologia, erizaintza, fisioterapia, farmazia, eta abar) unibertsitateko ikasleak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.
Deskribapena	Kasu honetan, osasun-zientzien arloko unibertsitateko ikasleei zuzendutako prestakuntza-proba pilotu bat garatzea planteatzen dugu. Biltzen erakundea izan liteke ekintza hau gauzatzeaz arduratutako tresna, eta, berorren lan-estrategia aurrez finkatu gabe, izan liteke unibertsitateko ikasleei zuzendutako moduluzko prestakuntza-programa bat egitea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan (Foroak osasun-batzorde espezifiko bat dauka). Ondoren, Ikuspegi erakundearekin lankidetzan, azken batean unibertsitate-behatoki bat baita, unibertsitateko arduradunekin negoziatuko litzateke nola sartu unibertsitateko ikasleei eskaintzen zaien prestakuntza-eskaintza osagarrian. Ekintza honen asmoa ez da aipatutako prestakuntza graduoko eskaintzaren ikasketa-planetan edo graduondoko eskaintzan sartzea: aukera errealistena da, adierazitako arloetako ikasleei ikastaro osagarriak eskaintzeko, haien kulturarteko konpetentziak hobetzeko bidean.
Helburua	Osasun-arretan kulturarteko konpetentziei buruzko prestakuntza sartzan aurrera egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Urtero egindako prestakuntza kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Ikuspegi inklusibo eta kulturartekoetan, herritarren eskubide eta betebeharretan, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean prestatutako unibertsitateko ikasleen kopurua
Arduraduna	Biltzen
	Ikuspegi, Osasun Saila, UPV/EHU
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.6. ETXEBIZITZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.6.1. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko egungo araudien azterketan laguntzea, eta araudi horiek kulturarteko ikuspegia barnean har dezaten egin beharreko aldaketak bidezko instantziari proposatzea.
Deskribapena	Kontua da azterketa bat egitea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiarekin lankidetzan, EAEn egun dauden etxebizitzari buruzko araudiak kulturarteko ikuspegitik aztertzeke. Bereziki garrantzitsua da dokumentu-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko pertsonen bizi duten egoera gogoan hartzea, etxebizitza eskuratu ahal izateko zailtasun bereziak dituzte-eta. Emitzen txostenetik gomendioak aterako dira araudi horiek hobetzeko eta kulturarteko ikuspegia txertatzeko. Ikerketaren izaera kontuan harturik, zentzuzkoa izan daiteke ikerketa-taldean, nola edo hala, Biltzen erakundeko, Etxebizitzaren Behatokiko, Ikuspegi erakundeko eta elkarte-sareko profesionalen parte hartzea. Garrantzitsua da sexuaren arabera bereizitako informazioa edukitzea, sexuan oinarrituta eman litezkeen egoera diferentzial posibleak ezagutu ahal izateko. Jarduera horren harira, kontuan har liteke Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariei eta Foroaren Etxebizitza Batzordeari etxebizitzari buruzko esparru arauemailearen gaineko prestakuntza ematea. Biztanle etorkinak eraginpean har ditzaketen alderdi zehatzen ezagutza har liteke ardatz.
Helburua	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egindako araudietan kulturarteko ikuspegia sartzen aurrera egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emitzen ebaluazioa	Emitzen txostena, sexuaren aldagaian arreta berezia jarrita
Arduraduna	Biltzen, Etxebizitzaren Behatokia, Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.6. ETXEBIZITZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.6.2. Higiezinaren sektoreko profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.
Deskribapena	Berriz ere higiezinaren sektorerako prestakuntza-proba pilotu bat garatzea planteatzen dugu, sektore horretan, merkataritza-alderdian, lan egiten duten profesionalak xede-taldetzat dituenak. Biltzen erakundea izan liteke ekintza hau gauzatzeaz arduratutako tresna, eta, berorren lan-estrategia aurrez finkatu gabe, izan liteke merkataritza-sailatuko higiezinaren profesionalen zuzendutako moduluzko prestakuntza-programa bat egitea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin eta Etxebizitzaren Behatokiarekin lankidetzan (Foroak etxebizitza-batzorde espezifiko bat dauka). Kontua da kolektibo hori hainbat gaitan sentsibilizatzea eta prestatzea: herritarren eskubideak eta betebeharrak, jatorriaren arabera diskriminazio-egoerak saihesteko modua, kulturarteko konpetentziak eskuratzea, eta abar.
Helburua	Atzeritar jatorriko kolektiboek etxebizitza eskuratzean izan ditzaketen diskriminazio-egoerak murriztea
Prozesuaren ebaluazioa	Programa egitea Urtero egindako prestakuntza kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Kulturarteko konpetentzietan prestatutako profesionalen kopurua
Arduraduna	Biltzen, Etxebizitzaren Behatokia
Lehen tasuna	Ertaina
Data	2023, 2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.6. ETXEBIZITZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.6.3. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko informazio-materialak zenbait hizkuntzatan egiten laguntzea, araudia Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteaosatzen duten kolektiboek hurbiltzeko.
Deskribapena	Azken urteetan ezagutu ditugun immigrazio-prozesuak fenomeno sozial koiunturala izatetik urrun, egiturazko dinamika bihurtu dira. Eta, horrenbestez, kultura-aniztasuna handitzen ari da EAEn. Hortaz, hurrengo urteetan beste kultura batzuk dituzten, beste herrialde batzuetakoak diren eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonak hartzen jarraituko dugula aurreikusten da. Eta gure (eta haien) lehentasunetako bat izan arren bi hizkuntza ofizialak ikastea, hots, euskara eta gaztelania, lan-merkatuan eta hezkuntzan sartu ahal izateko atea baita, beharrezkoa izango da beti materialak hizkuntza ohikoenetan izatea, iritsi berriei zerbitzurik oinarritzkoenak eskuratzen laguntzeko (hezkuntza, osasun-arreta, etxebizitza, arreta juridikoa eta abar). Horregatik, oraindik ere uste dugu ahalegindu behar dela gure araudiak (eskubideak eta betebeharrak) pertsona horiengana hurbiltzen. Zehazki, hizpide dugun gaian, zentzuzkoa izan daiteke EAEn etxebizitzari buruzko informazio-dokumentuak zenbait hizkuntzatan egin beharko direla pentsatzea. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren web-orrian eskuratu ahal izango dira. Zuzendaritzaren ekimenez eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin eta Etxebizitzaren Behatokiarekin lankidetzan, lan horretaz arduratuko den talde bat osa daiteke (Etxebizitza Batzorde bat ere badugu Foroan, hirugarren sektorea ordezkatzen duena, eta proiektuan lagundu dezakeena) lan horretaz arduratzeko.
Helburua	Euskal gizartean araudiaren ezagutza ahalbidetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Materialak prestatzea
Emitzen ebaluazioa	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren webgunean zenbait hizkuntzatan erabilgarri dauden informazio-materialen kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.6. ETXEBIZITZA-ESPARRUA

Ekintza	4.3.6.4. Zuzendaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari laguntzea etxebizitza sozialak adjudikatzeko irizpideak aztertzen eta aldatzen (hala badagokio), eraikin, urbanizazio eta/edo hiri-eremu jakin batzuetan atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsona gehiegi kontzentra ez dadin.
Deskribapena	Azken garaiotan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren etxebizitza sozialen sustapen jakin batzuetan atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen bizitegi-kontzentrazioak gertatzen ari direla ikusten ari gara, bizikidetzaren ikuspegitik gehiegizkotzat jo daitezkeen arren. Inongo zalantzarik gabe, bizitegi-dinamikek egiturazko osagai sendoa dute, eta gizarte-estratifikazioan eta estatus sozioekonomikoan oinarrituta daude. Hortaz, nekez alda daiteke "sintoma", arazoaren "sustraira" jo ezean. Atzeritar etorkiari, jatorriari eta/edo nazionalitateari lotutako gizarte-desberdintasun handiek iraun bitartean (atzeritik datozen pertsona gehienak gizarte-eskalaren erdiko/beheko aldean kokatzen dira), handiagoa da EAEko gizarte-sektore babesgabeenei zuzendutako etxebizitza sozialen sustapenetan kontzentrazio jakin batzuk gertatzeko probabilitatea. Hala ere, hori ez da oztopo talde batek lan egin dezan, 4.3.6.3 ekintzan proposatuden moduan, ahal den neurrian ahalegintzeko atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen bizitegi-kontzentrazio horiek eragotziko dituzten neurriak hartzen.
Helburua	Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen gehiegizko bizitegi-kontzentrazioak desagerrarazteko edo, behintzat, murrizteko bidean aurrera egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Etxebizitza sozialak adjudikatzeko irizpide berriak prestatzea
Emitzen ebaluazioa	Bizitegi-sustapen berrien ezaugarri soziodemografikoak
Arduraduna	Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behatokia, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.1. Zuzendaritzak atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen laguntzeko eta aholkularitza juridikoa emateko egiten duen lana finkatzea, Aholku Sarearen zeregina hausnartu, aztertu eta hobetzearen bidetik.
Deskribapena	Zuzendaritzak Aholku Sarearen alde egiten jarraitu nahi du, atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen aholkularitza eta arreta juridikoa eskaintzeko tresna operatibo eraginkorra da-eta. Nolanahi ere, Aholku Saretik proposatzen da sareari lurralde-estaldura handiagoa emateko etengabeko barne-gogoeta sustatzen jarraitzea, jarduketak homogeneizatzen eta hobetzen jarraitzea, bere gizataldearen ezagutzarako irispidea etengabe sustatzea, beste eragile publiko eta pribatu batzuekiko lankidetzak-esparruak aztertzea, eta inguruabar aldakorretara egokitzea (arau-aldaketak, instituzionalak...). Gogoeta-lan hori Aholku Saretik bertatik egin daiteke, Zuzendaritza buru dela. Zuzendaritzaren erantzukizuna izango litzateke, beraz, Aholku Sarean aldaketak eta hobekuntzak egitera bideratutako lanari ekitea eta lan hori zuzentzea.
Helburua	Aholku Sareak eskaintzen duen laguntza juridikoko zerbitzua indartzen eta egokitzen jarraitzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzua mantentzea.
Emitzen ebaluazioa	Emandako zerbitzu eta jarduketa kopurua.
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
	Aholku Sarea
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.2. Lurralde historiko bakoitzean batzordeak sortzea, egoera irregularrean dauden etorkinak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko prozesuetan laguntza juridikoa eman dezaten.
Deskribapena	Udalek eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuek abian jartzen dituzten gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan, jatorriagatik gure herrialdean bizitzeko eta/edo lan egiteko baimenik ez duten pertsonak parte hartzen dute. Gure iritzian, diseinatutako gizarteratze-ibilbidearen helburuak betetzeak, kasu horietan, ezin du alde batera utzi dagozkien atzerriartasun-baimen administratiboak eskuratzeko —arrazoizko epeetan betiere—, hori baita irregulartasun-egoeran erdietsi ohi ez diren eskubide eta aukerez arian-arian gozatzeko modua. Kontua da, gure iritzian, ibilbideen diseinuan aldagai hori kontuan hartzea, sarbidean duten izaera unibertsalari izpirik ere kendu gabe, eta, aldi berean, bizilekua ez duten atzerriar herritarren kasuetan beste helburu bat gehitzea, hori gabe prozesua osatu gabe egongo bailitzateke alderdirik oinarritzaren. Horrek ikuspegi bikoitza dakar berekin. Alde batetik, integrazioa eraginkorragoa dela kontuan hartzea, azkenean behar diren baimenak lortzen badira. Eta bestetik, horrela diseinatutako planek eta proiektuek “interes publikoa” dutela, bai prozesuak bultzatzen dituzten erakundeen nortasunagatik, bai horien helburua, hain zuzen ere, erabilitako tresnak dagozkion baimenak lortzea delako, horien bideragarritasunaren parte eta ondorio gisa. Hizpide ditugun laguntza-batzordeen zeregina beti erraz uztartzeko modukoak ez diren alderdiak diseinatzera eta bateragarri egitera bideratu beharko da, hala nola gizarteratze-ibilbideak eta atzerriarrei buruzko araudia; halaber, aholku eman beharko zaie eskatzen duten toki-administrazioei eta udalaz gaindikoei. Era berean, prozesu integratzaileak txertatzeaz arduratuko lirateke, atzerriarrei buruzko araudian jasotako baimenen hasierako eskabideak aurkezteko eta sostengatzeko oinarri edo arrazoi osagarri gisa. Laguntza-batzordeak Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari atxikita egongo lirateke. Azkenik, eta adierazitako ikuspegitik, batzordeak bateragarriak dira Planean jasotako aholkularitza juridikoaren gainerako sarearekin, adierazitako gizarteratze-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen arretari modu eksklusiboan heltzen baitiote, eta betiere toki-erakundeekiko lotura estuan.
Helburua	Udalek eta udalaz gaindiko erakundeek babestutako integrazio-prozesuei laguntza juridikoa emateko batzordeak sortzea lurralde historiko bakoitzean
Prozesuaren ebaluazioa	Batzordeak sortzea
Emaitzen ebaluazioa	Udalen eta ekimenean parte hartzen duten beste erakunde batzuen sarea Aurkeztutako eskabide kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.3. Biltzen erakundearen aholkularitza juridikoko zerbitzuari eustea.
Deskribapena	Zuzendaritzak baliabide horren alde egiten jarraitu nahi du, laguntza tekniko juridikoaren arloan Sailaren eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren beharrei erantzuteko zerbitzu eraginkorra da-eta. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen da eskaini beharreko zerbitzuen prestazioan zein zerbitzuon kudeaketan hobekuntzak egitea. Dena den, lan-esparru nagusiei eusten zaie: — Zuzendaritzari azterketa eta analisi juridikoa egiteko beharretan laguntzea, txostenak egitea, informazioa kontrastatzea, jarduketak babestea eta argudiatzea, eta abar. — Erreferente gisa profesionalen laguntzan eta aholkularitzan. — Erreferentzia gisa atzerriartasunaren arloko prestakuntza-esparruan. — Ezagutza biltzeko eta transmititzeko espazio gisa. — Aholku Sareari laguntzea atzerriar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen arreta juridikoa emateko.
Helburua	Zuzendaritzari esparru juridikoan laguntzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzuan diharduten langileak.
Emaitzen ebaluazioa	Zerbitzuaren urteko esku-hartze kopurua.
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.4. Gizarte-baliabideak eskuratzeko baldintzak eta atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen horiek eskuratzeko dituzten oztopoak —eskubide horiek aukera beretan baliatzea eragozten dutenak— aztertuko dituen txostena egitea.
Deskribapena	Kontua da gizarte-zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko eskatzen diren baldintzak —zerbitzuok unibertsalak izan arren ahalegintzen den edozein pertsonarentzat— kolektibo jakin batzuek haiek eskuratzeko aukerarik izan ez dezaten estalitako oztopoak edo trabak ez ote diren analitzatzeko eta aztertzeko txosten bat egitea. Gauza bat da administrazioek eskaintzen dituzten gizarte-baliabideak eskuratu nahi dituzten pertsona guztiei eska dakizkiekeen baldintzak izatea teoriarik, eta beste bat ezinezkoa (edo, behintzat, nekez eskatzeko modukoa) izatea kolektibo eta/edo pertsona jakin batzuentzat haiek betetzea. Idea da baldintzak iragazki ez bihurtzea, atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsona jakin batzuek gure administrazioek eskaintzen dituzten gizarte-baliabideak eskuratzeko galarazteko. Azterketa eta ikerketa horrek hobetzeko proposamenak jaso beharko lituzke, baita aurkitutako arazo posibleak arindu ahal izateko gomendioak ere. Garrantzitsua da informazioa edukitzea, sexuan oinarrituta eman litezkeen egoera diferentzial posibleak ezagutu ahal izateko.
Helburua	Pertsona guztiek EAEko gizarte-baliabideak berdintasunean eskuratzeko aukera izan dezaten ahalbidetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Azterketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Emaitzen txostena
Arduraduna	Aholku Sarea
	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.5. Bankuei atzerritar jatorriko pertsonentzat oinarrizko kontu bat irekitzeko betebeharrak gogorarazteko kanpaina egitea.
Deskribapena	Legeak banketxeak behartzen ditu herritar guztiei oinarrizko kontu bat irekitzeko aukera ematera, baina banketxeek, praktikan, oztopoak jartzen dizkiete asilo-eskatzailerei eta egoera irregularrean dauden etorkinei, etorkinen eta etorkinentzako erakundeek txosten batean dokumentatu dutenez. Kontsumitzaileen defentsarako erakundeek berretsi dute “zuzendu beharreko praxi desagokia” dela. Ideia da Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak banketxeei zuzendutako kanpaina bat prestatzea, haien erakundeen artean legea betetzeko zirkularrak hedatzen eta eskatzen duten pertsona guztiei utz diezaieten oinarrizko kontuak irekitzen, haien egoera administratiboa gorabehera. Horrela, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak gutun bat bidal diezaietke banketxeetako arduradunei, beren betebeharra bete dezaten eskatzeko.
Helburua	Legea betearaztea oinarrizko kontu bat irekitzeko eskubideari dagokionez
Prozesuaren ebaluazioa	Gutunak bidaltzea
Emaitzen ebaluazioa	Kontsumobiden aurkeztutako erreklamazio kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.6. Udalei udalerrian erroldatuta dauden atzerritar jatorriko pertsonen boto-eskubidea (hala badagokie) gogorarazteko kanpaina egitea.
Deskribapena	Atzerritar nazionalitateko eta/edo jatorriko pertsona batzuek ez dakite zer boto-eskubide duten hauteskundeei begira (indarrean dagoen legeriaren arabera bidezkoa den kasuetan). Gauza bera gertatzen da udal batzuekin, zenbaitetan ez baitakite atzerritar nazionalitateko eta/edo jatorriko pertsonak zer eskubide dituzten. Bidekoa izan daiteke, gure lurraldean 2023an egin behar diren hurrengo udal- eta foru-hauteskundeei begira, gure udalerrietan erroldatutako atzerritar nazionalitateko eta/edo jatorriko pertsonen boto-eskubidea udalei gogoraraztea (indarrean dagoen legeriaren arabera bidezkoa den kasuetan). Migrazio eta Asilo Zuzendaritza Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiekin harremanetan jarriko da, 2022. urtea amaitu baino lehen, EAEko udalerrietan bizi diren etorkinen boto-eskubidea eta -prozedura gogorarazteko (bidezkoa denean).
Helburua	Atzerritar jatorriko pertsonak beren boto-eskubidea egikaritzeko aukera izan dezaten bermatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Udalei gutunak bidaltzea
Emaitzen ebaluazioa	Ez-betetzeen kopurua (jasotako kexak)
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.7. ESPARRU JURIDIKOA

Ekintza	4.3.7.7. Kirol-federazio eta -kluben eta Gobernuaren ordezkariordetzen artean bitartekaritza-lana egitea, egoera administratibo irregularrean dauden gazteak pertsona federatu gisa kirola egiteko neurri juridikoak har daitezen.
Deskribapena	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza gauzatzen ari den zeregina da: kirol-federazio eta -kluben eta Espainiako Gobernuaren ordezkariordetzen artean bitartekaritza-lana egitea, egoera administratibo irregularrean dauden gazteek kirola egiteko aukera izan dezaten. Egoera administratibo irregularrean dauden zenbait gazte Euskal Autonomia Erkidegoko klubetan eta kirol-diziplinetan nabarmentzen dira. Ez dira kasu bakanak. Hala ere, kirol-klub eta -federazioek oztopo ugariarekin topo egiten dute pertsona horiek kirol-lehiaketetan parte hartzeko behar dituzten federazio-lizentziak tramitatzeko orduan. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak bitartekaritza-lana egiten du arazo hori duten kirol-federazio eta -kluben eta Espainiako Gobernuaren ordezkariordetzen artean, egoera administratibo irregularrean dauden pertsona horiek federazio-fitxa tramitatzera irits daitezen.
Helburua	Egoera administratibo irregularrean dauden gazteek kirol-lizentziak tramitatzeko aukera izan dezaten lortzea
Prozesuaren ebaluazioa	Bitartekaritza-kasuen kopurua
Emitzen ebaluazioa	Gazte onuradunen kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.8. LAGUNTZA EKONOMIKOA

Ekintza	4.3.8.1. Sailak laguntza ekonomikoa ematea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.3 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorrarazi ahal izateko.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emaitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.8. LAGUNTZA EKONOMIKOA

Ekintza	4.3.8.2. Sailak laguntza ekonomikoa ematea atzerritar etorkiko pertsonekin eta/edo familiekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.
Deskribapena	Ekintza honen helburua da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza moduan ematen diren baliabide ekonomikoak esleitzean lehentasuna ematea atzerritar etorkiko pertsonekin eta/edo familiekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei. Ekintza hau hertsiki loturik dago Plan honen 4.2.3 ekintzarekin. Ekintza horrek aurreikusten du 271/2012 Dekretua berrikustea eta eguneratzea, esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko, eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko finantza-laguntzen esleipena Plan honen lehentasunezko jarduketa-ildoekin bat etorrarazi ahal izateko.
Helburua	Kolektibo horren beharrei berariaz erantzutea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen deialdia
Emitzen ebaluazioa	Kolektibo horri bideratutako laguntzen urteko kopurua (eurotan)
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.9. IKERKETA

Ekintza	4.3.9.1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek atzerritar jatorriko pertsonen inguruan dituzten pertzepzioen eta jarreraren barometroa urtero ikertzea eta hedatzea.
Deskribapena	Kontua da Ikuspegi erakundea 2007az geroztik garatzen ari den ikerketa soziala urtero egitea. Galdeketa kuantitatibo bat egiten zaio euskal biztanleriaren lagin adierazgarri bati. Atzerritar jatorriko pertsonen inguruan dituzten pertzepzioei, posizioei eta jarrerei buruz galdetzen zaie. Lagina EAEn bizi diren 600 pertsonak osatzen dute. Pertsona horiei aurrez aurreko inkesta egiten zaie beren etxeetan. Landa-lana urtero egiten da, udaberrian, eta hilabeteko iraupena izaten du. Ikerketaren diseinuak aukera eman behar du emaitzak sexuaren arabera bereizita eskaintzeko. Gainera, garrantzizkoa da komunikazio- eta zabalkunde-estrategia bat ezartzea, emaitzarik garrantzitsuenak sektorean lan egiten duten eragileei eta euskal gizarteari oro har hurbildu ahal izateko.
Helburua	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek atzerritar immigrazioaren inguruan dituzten pertzepzioen eta jarreraren bilakaera monitorizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Azken txostena, informazioa sexuaren arabera bereizita eskaintzen duena.
Arduraduna	Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023, 2024, 2025

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.9. IKERKETA

Ekintza	4.3.9.2. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten jarrerak eta posizioak lau urtean behin ikertzea eta hedatzea (2024).
Deskribapena	2020. urtean, Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak ikerketa sozial bat gauzatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek mota guztietako aniztasun sozialaren inguruan dituzten pertzepzioak, posizioak eta jarrerak ezagutzeko. Era berean, informazioa jasotzen da, jatorri, sexu, adin, erlijio, etnia (ijito herria) eta abarren ondorioz eguneroko bizitzan gerta daitezkeen diskriminazioei buruz. Ikuspegi erakundeak lau urtean behin egingo du ikerketa, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek aniztasunaren inguruan dituzten jarreraren bilakaera monitorizatzeko eta, halaber, EAEn bizi diren pertsonen jasandako diskriminazio-egoeretan izan litekeen bilakaera ezagutzeko. Ikerketa hori 2024an gauzatuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren lagin adierazgarri bati egingo zaio inkesta. Aurreikusitako laginaren tamaina 1.200 inkestakoa da: 400 inkesta lurralde historiko bakoitzean. Inkestaren diseinuak aukera eman behar du emakumeen errealitate soziala zehatz-mehatz ezagutzeko. Gainera, garrantzizkoa da komunikazio- eta zabalkunde-estrategia bat ezartzea, emaitzarik garrantzitsuenak sektorean lan egiten duten eragileei eta euskal gizarteari oro har hurbildu ahal izateko.
Helburua	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek atzerritar immigrazioaren inguruan dituzten pertzepzioen eta jarreraren bilakaera monitorizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Azken txostena, informazioa sexuaren arabera bereizita eskaintzen duena
Arduraduna	Ikuspegi, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.9. IKERKETA

Ekintza	4.3.9.3. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoak egiten duen Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestarako (EABI 2022) ikerketa eta hedapena lau urtean behin egitea.
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoak garatzen duen estatistika-eragiketa ofiziala da, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar jatorriko biztanle etorkinei zuzendua. Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) deritzo. Orain arte, atzerritar jatorriko pertsonen errealitate sozialaren bilakaera analizatzeko eta monitorizatzeko aukera ematen duten hiru edizio egin dira: EABI 2010, EABI 2014 eta EABI 2018. 2022. urtean informazioa biltzeko eta inkesta egiteko landa-lana garatzea aurreikusten da. Aurreko edizioetan, lagina 2.500 pertsona ingurukoa izan da (banakako galdetegian) eta ia 5.000 pertsona atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetza-unitateetan. Datu-basea araztu eta haren estatistika-ustiapena gauzatu ondoren, 2024. urtean emaitzak eskura izatea espero dugu. Inkestaren diseinuak aukera eman behar du atzerritar jatorriko emakumeen errealitate soziala zehatz-mehatz ezagutzeko. Gainera, garrantzizkoa da komunikazio- eta zabalkunde-estrategia bat ezartzea, emaitzarik garrantzitsuenak sektorean lan egiten duten eragileei eta euskal gizarteari oro har hurbildu ahal izateko.
Helburua	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek atzerritar immigrazioaren inguruan dituzten pertzepzioen eta jarrerren bilakaera monitorizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Azken txostena, informazioa sexuaren arabera bereizita eskaintzen duena
Arduraduna	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoa
Lehentasuna	Ertaina
Data	2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.9. IKERKETA

Ekintza	4.3.9.4. Erroldaren azterketa ikertzea eta hedatzea: erroldaren azterketa; erroldaren alde onak eta txarrak, eskubideak eta/edo zerbitzuak balia daitezen errazteko tresna gisa; sistemaren perbertsioak; hobetzeko proposamenak; ondorio juridikoak; sarbide zaileko kolektiboak; eta abar.
Deskribapena	Kontua da azterketa sozial bat egitea, erroldatzea eskubide sozialak eskuratzeko potentzialaren iturri gisa analizatzea eta sortzen diren ondorio gaiztoak eta zitalak ardatz hartuta. Azterketaren helburu nagusia da jakitea zer gertatzen ari den udal-erroldatzearekin, baldintza baita (batzuetan) eskubide sozial jakin batzuk eskuratzeko; era berean, jardunbide desegokiak gertatzen ari badira, horien berri jakin nahi da, eta gertatzen ari diren ondorio gaiztoak eta abusuak hauteman, aurkitutako arazoak arintzeko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko. Ikuspegi erakundea ikerketa horretan lanean ari da. 2022. urtean amaitzea eta emaitzak aurkeztea aurreikusten du. Inkestaren diseinuak aukera eman behar du atzeritar jatorriko emakumeen errealitate soziala zehatz-mehatz ezagutzeko. Gainera, garrantzizkoa da komunikazio- eta zabalkunde-estrategia bat ezartzea, emaitzarik garrantzitsuenak sektorean lan egiten duten eragileei eta euskal gizarteari oro har hurbildu ahal izateko.
Helburua	Erroldatze-prozesu horren informazio espezifikoa edukitzea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa egitea
Emaitzen ebaluazioa	Azken txostena, informazioa sexuaren arabera bereizita eskaintzen duena
Arduraduna	Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.9. IKERKETA

Ekintza	4.3.9.5. Informazioaren hiru sistematizazio egitea.
Deskribapena	Biltzen erakundearen egitekoak honako hau hartzen du: “pertsona eta taldeekin esku-hartzearen bidez lortutako eta testuinguruan jarritako ezagutza praktikoa sistematizatzean; udal-ekintza teknikoaren laguntzan; profesionalen prestakuntzan; eragileei zenbait sektoretan laguntzean; kultura-kolektiboekiko harremanetan; proiektu berritzaileen garapenean; eta abarretan. Hortaz, ekintza politikoari buruzko erabakiak hartzeko kalitateko informazioa emango du”. Egiteko horren garapen gisa, ekintza honek kontuan hartzen du Biltzen erakundeak hiru sistematizazio lantzea, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarentzat edo sektoreko eragileen ekosistemarentzat interesekoak izan daitezkeen gaiei edo kontuei buruzkoak eta VI. Planaren lehentasunekin konektatuko direnak. Zehazki, interesgune posible hauek aipatzen dira: - Harreraren dimentsio komunitarioa, gizarte-sare profesionalizatu gabeak eta/edo erakundeen laguntza mugatua duenak garatutako tokiko esperientzia esanguratsuei dagokienez. - Familia migratzaileen adingabeen babesgabetasun- edo zaurgarritasun-egoeretako kultura-giltzarriak, haurrak babesteko udal- eta foru-zerbitzuen esku-hartzeen esparruan.
Helburua	Erabakiak hartzeko intereseko gaietan praktikatik aplikatutako ezagutza sortzea
Prozesuaren ebaluazioa	Hiru sistematizazioak egitea
Emitzen ebaluazioa	Sistematizazio bakoitzaren txostena aurkeztea
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023 eta 2024

4.3. NEURRI PROGRAMATIKOAK

4.3.9. IKERKETA

Ekintza	4.3.9.6. Udal-kudeaketako zenbait eredu integraturen konparazio-azterketa egitea.
Deskribapena	Tokiko esparruan zenbait udalerriren adibideak daude, elkarrekin erlazionatuta dauden eta sinergia espezifikoak dituzten zenbait zerbitzu espazio fisiko berean nola integra daitezkeen erakusten dutenak. Adibide horietako bat Hernani da, diziiplina anitzeko espazioak eskaintzen baititu, eta bertan biltzen baitira, besteak beste, aniztasunaren kulturarteko kudeaketarekin, euskararen ezagutzarekin eta erabilerarekin, eta etengabeko prestakuntzako espazioekin erlazionatutako baliabideak eta zerbitzuak. Ez da kasu bakarra, EAEko udalerri gehiagok antzeko baliabideak baitituzte, helburuetan behintzat, nahiz eta formalki formatu desberdinak har ditzaketen. Gure ustez, beste udalerri batzuentzat interesgarria izan daiteke zenbait udalerritan eskaintzen diren baliabide horien analisi konparatiboa edukitzea, haien indarguneak eta ahulguneak azaldu eta etorkizunean beste udalerri batzuetan implementa daitezkeen edo lehendik daudenak hobetu ditzaketen baliabideak hobetzeko neurriak proposatze aldera. Horretarako, EAEn martxan egon daitezkeen gisa horretako esperientziak bilduko dituen <i>benchmarking</i> moduko ikerketa edo analisi konparatiboa proposatzen dugu.
Helburua	Udal-kudeaketako eredu integratuen esperientziak ezagutzea
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketaren proiektua
Emitzen ebaluazioa	Emitzen txostena
Arduraduna	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2022, 2023

KRONOGRAMA

	2022	2023	2024	2025
4.1. Neurri estrategikoak				
4.1.1. Migraziorako Euskal Itun Soziala				
4.1.1.1. Migraziorako Euskal Itun Sozialari bultzada ematea udalerrietan.	X			
4.1.1.2. Migraziorako Euskal Itun Soziala hedatzen lagunduko duten materialak prestatzea.	X			
4.1.1.3. Beldur Barik gisako lehiaketa-programa bat antolatzea, baina Itunean biltzen diren kulturarteko giltzarriekin.		X		
4.1.1.4. Webgune bat eta aplikazio eleaniztun bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan migratzaileen eta errefuxiatuen harrera-prozesuetarako informaziorik garrantzitsuena bilduko duena eta Migraziorako Euskal Itun Sozialari buruzko atal bat izango duena.		X		
4.1.1.5. Migraziorako Euskal Itun Soziala Eusko Jaurlaritzan bertan hedatzea.		X		
4.1.1.6. Itunaren eguna edo urteko ospakizuna sortzea.		X		
4.1.1.7. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen eskubideei eta betebeharrari buruzko dokumentu baten inguruan hausnartuko duen lantaldea sortzea.	X	X	X	
4.1.2. Euskal Harrera Eredua				
4.1.2.1. Euskal Harrera Eredu berriaren proba pilotua egitea.		X	X	X
4.1.2.2. Immigrazioaren Euskal Behatokia (Ikuspegi) prestatzen ari den eroldari buruzko txostenetik ateratako ondorioak eta gomendioak Udalen artean hedatzea.		X		
4.1.2.3. Asilo-eskatzaileentzako bizitoki-baliabideei eustea (eta, beharrezkoa izanez gero, baliabideak gehitzea).	X	X	X	X
4.1.2.4. Euskal Autonomia Erkidegotik zirkulatzen duten iragaitzazko etorkinentzako bizitoki-baliabideei eustea (eta, beharrezkoa izanez gero, baliabideak gehitzea).	X	X	X	X
4.1.2.5. Errefuxiatuentzako Europako Erkidegoko Babes Programa.	X	X	X	X
4.1.2.6. Babesa eta asiloa eskatzen duten pertsonen eta herrigabeen asistentzia juridikorako laguntza ekonomikoa.	X	X	X	X
4.1.2.7. Etorkinen harrerarako laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, Planaren lehentasunezko ildoekin bat.	X	X	X	X
4.1.3. Euskarri estrategia				
4.1.3.1. Euskarri strategiako erakunde arteko lantaldea koordinatu eta dinamizatuko duen idazkaritza teknikoa sortzea.	X			
4.1.3.2. Familia-laguntzarik ez duten gazte atzerriarrei laguntzeko programa pilotua garatzea.	X			

4.1.3.3. Harrera-gizartera egokitzeko zailtasunak dituzten migrazio-jatorriko aurrenerabeei zuzendutako gizarte-mentoretzako programa garatzea.	X			
4.1.3.4. Sailak laguntza ekonomikoa ematea bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrekin (18 urtetik beherakoak) bereziki lan egiten duten entitateei eta erakundeei, berariazko prestakuntza-ibilbideak eta -programak egin ditzaten.	X			
4.1.3.5. Sailak laguntza ekonomikoa ematea bidaiderik gabeko gazte atzerritarrekin (18 urtetik gorakoak) bereziki lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.1.3.6. Gazte atzerritarrak gizarteratzeko ibilbideak hedatzea, hirugarren sektoreko erakundeen bitartez.	X	X	X	X
4.1.4. Atzerritar jatorriko emakumeak				
4.1.4.1. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko kontzientziazio-kanpaina egitea, eta kanpaina horretan arreta berezia jartzea atzerritar jatorriko emakumeei.	X	X		
4.1.4.2. Kultura- eta egoera-giltzarrei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaintzea, baztertutako magrebtar gazteekin esku hartzeko.	X	X	X	
4.1.4.3. Kulturarteko ikuspegiari buruzko sentsibilizazioa, eta bertako eta migratutako edo arrazializatutako emakumeek elkarteetan partekatutako lanaren analisi interseksionala.	X	X	X	
4.1.4.4. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko sentsibilizazioa.	X	X	X	
4.1.4.5. Zaintza eta etxeko lanetan lan egiten duten atzerritar jatorriko emakumeak online prestatzeko programa.		X		
4.1.4.6. Atzerritar jatorriko emakume etorkinekin lan egiten duten erakundeentzako laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, Planaren lehentasunezko ildoekin bat.	X	X	X	X
4.1.4.7. Sailak laguntza ekonomikoa ematea adingabeak zaintzapean dituzten emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.1.4.8. Sailak laguntza ekonomikoa ematea herrialde arabiarretatik datozen eta egoera zaurgarrian eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkin adin nagusikoekin lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.1.4.9. Sailak laguntza ekonomikoa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen dituzten emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.1.4.10. Sailak laguntza ekonomikoa ematea prostituzioan aritzen diren emakume etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.1.4.11. Sailak laguntza ekonomikoa ematea indarkeria matxistaren biktima diren atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko emakume etorkinekin egindako lan-ibilbidea frogatzen duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X

4.1.4.12. Atzerritar jatorriko emakume etorkinen taldeen errealitate soziala, egoera eta premien azterketa deskribatzailea eta analisisa egitea.	X	X	X	X
4.2. Antolaketa-neurriak				
4.2.1. Immigrazioaren, asiloaren, aniztasunaren, kulturartekotasunaren eta bizikidetzaren arloetan lan egiten duten gizarte-eragileek osatutako sistema indartzea. Sistema horretan sartu eta integratuko dira Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean Sarea, Eusko Jaurlaritzaren beste instantzia batzuk (Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza...), Aldundiak, Udalak, etorkinen erakundeak, migrazioaren esparruan lan egiten duten erakundeak, hirugarren sektoreko beste erakunde batzuk, bestelako organismoak eta erakundeak (unibertsitateak, bestelako administrazioak, erakunde pribatuak, eta abar), Migrazio eta Asiloko Euskal Foroa, eta Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeztzak.	X	X	X	X
4.2.2. Migrazio eta Asiloko Euskal Foroa (lehen Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa) eta haren zortzi batzordeak berrorientatzea, baita egoki irizten diren beste batzuk ere, eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretua eguneratzea.	X			
4.2.3. Biltzen erakundearen helburuak berritzea eta berriro zehaztea, erakundearen ekintza Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoekin bat etor dadin.	X			
4.2.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren dirulaguntzen ildo sortzea, VI. Plan honen lehentasunezko ildoekin bat etorriko dena.			X	
4.2.5. 271/2012 Dekretua eguneratzea. Dekretu horrek arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak, baita pertsonekin, familiekin, taldeekin eta erkidegoekin esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko dirulaguntzak eta esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak ere.		X	X	
4.2.6. Gobernu Zentraleko ordezkariordeztzekin eta kontsulatuekin koordinatzeko harremanak modu formalean ezartzea.	X	X		
4.2.7. Eusko Jaurlaritzako sailekin hitzarmenak egitea, Ikuspegi erakundeak datuak ikerketa-helburuarekin atzi ditzan (identifikatzailerik gabeko datu agregatuak).	X			
4.2.8. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikarientzako, bereziki, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarentzako, oro har, urteko prestakuntza-plana prestatzea.	X	X	X	X
4.2.9. Udal- eta foru-teknikariei zuzendutako urteko lan-plangintza prestatzea, erakunde arteko koordinazioa hobetze aldera.	X	X	X	X
4.2.10. Errotze sozialeko txostenak, etxebizitza egokitze txostenak eta udal-esparruan integratzeko ahaleginaren txostenak egiteko formula egokia aztertzea, udal-politikekin lotuta egon dadin.			X	

4.2.11. Zenbait xede-talderen (hezkuntza-langileak, osasun-langileak, segurtasun-langileak, gizarte-eragileak, enpresa-sarea, hirugarren sektoreko erakundeak, eta abar) prestakuntzarako eta sentibilizaziorako online prestakuntza-eskaintza garatzea, bertako eta/edo kanpoko prestakuntza-taldeen bidez.	X			
4.2.12. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren web-orriko edukiak eguneratzea, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan.	X			
4.3. Neurri programatikoak				
4.3.1. Hezkuntza-esparrua				
4.3.1.1. Zuzendaritzak laguntzea familien prestakuntza eta ikastetxeekiko inplikazioa bultzatuko duten komunitate-espazioen sorreran.	X	X	X	X
4.3.1.2. Zuzendaritzak laguntzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langileek ikastetxeetan ikasle etorkinen arretarako abian jartzen dituzten ekimenetan.	X			
4.3.1.3. Euskara jakin gabe lehen eta bigarren hezkuntzara iritsi berri diren ikasleen hizkuntza-errefortzurako baliabideak gehitzea.		X	X	X
4.3.1.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak laguntzea kulturartekotasunari buruzko hausnarketa eta prestakuntza zuzendaritza-taldeen prestakuntza-planaren barruan sartzen, prestakuntzaren bidez.		X		
4.3.1.5. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak laguntzea familien prestakuntzaren eta partaidetzaren arloko jardunbide egokien aukeraketan eta dibulgazioan.	X	X		
4.3.1.6. Autonomia-, foru- eta udal-teknikariek osatutako lantalde bat sortzea, atzerriar jatorriko eta/edo etorkiko ikasleen balizko eskola-kontzentrazioak udalerrian izan ditzakeen ondorioei buruz gogoeta egiteko.	X	X	X	X
4.3.2. Enplegu- eta prestakuntza-esparrua				
4.3.2.1. Lanbideko eta erakunde laguntzaile espezifikoetako orientazio-teknikariak sentibilizatzeko eta prestatzeko —Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Biltzen erakundearen laguntzarekin— ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean.	X	X		
4.3.2.2. Zuzendaritzak laguntzea etorkin helduen artean hizkuntzen ikaskuntza berrikusten eta sustatzen (Helduen Hezkuntza), etorkin horien integratzeko eta prestakuntza eta enplegurako bide gisa —arreta berezia jarriko zaie emakumeei eta gazteei—.	X	X	X	X
4.3.2.3. Zuzendaritzak laguntzea Helduen Hezkuntzako prestakuntza-edukiak berrikusten eta dibertsifikatzen.	X	X	X	X
4.3.2.4. Zuzendaritzak laguntzea lan-orientazioko informazio-materialak (enplegurako prestakuntza) zenbait hizkuntzatan eguneratzen.		X		
4.3.2.5. Zuzendaritzak laguntzea prestakuntzarako eta lan-munduratzeko laguntzen deialdiak berrikusten: gauzatze-epeen egokitzapena, lan-munduratzeko baldintzak, eta abar.	X	X	X	X
4.3.2.6. Lan- eta prestakuntza-programa.		X	X	X

4.3.2.7. Zuzendaritzak laguntzea egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen lanbide-konpetentziak aitortu daitezkeen.		X		
4.3.2.8. Zuzendaritzak laguntzea profesionaltasun-ziurtagiriei, lanbide-esperientziaren aitortpenari eta atzerriko tituluak homologatu eta baliozkotzeko buruzko informazioa zabaltzen.	X	X	X	X
4.3.2.9. Zuzendaritzak laguntzea aniztasunaren kudeaketaren arloko prestakuntza-espezialitate bat aktibatzen, enpresentzako eskura dagoen etengabeko prestakuntzako katalogoaren barruan.		X		
4.3.2.10. Zuzendaritzak laguntzea atzerriar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonak alfabetatze digitaleko prestakuntza-eskaintzan sartzen.	X	X	X	X
4.3.2.11. Zuzendaritzak laguntzea atzerriar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinen prestakuntza eta birziklatzea berrikusten (enplegurako aktibatzearen orientazioa eta prestakuntza) eta berariazko prestakuntza-katalogoak egiten.	X	X	X	X
4.3.3. Bizikidetzaren esparrua				
4.3.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntzea herritarren eskubide eta betebeharren arloan eta etorkinen gizarteratzearen arloan lan egiten duten udal-teknikarien sarea mantentzen.	X	X	X	X
4.3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei laguntza ekonomikoa ematea, herritarren eskubideen eta betebeharren arloko eta etorkinen gizarteratzearen arloko jarduerak gara ditzaten.	X	X	X	X
4.3.3.3. Euskal Autonomia Erkidegoko udalen herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren arloko ekintza babestuko duten eta arlo horietan esku hartuko duten hiru talde sortzea —lurralde historiko bakoitzeko bat—. Tokiko teknikariek (udaletakoek edo mankomunitateetakoek) talde horietan lagundu ahal izango dute (kulturartekotasunean edo gizarte-ekintzako jardueran ez-espezifikoa), Zuzendaritzaren estrategia Euskal Autonomia Erkidego osora irits dadin.	X	X	X	X
4.3.3.4. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei (EUEDEL) laguntza ekonomikoa ematea, hizkuntza-zailtasunak dituzten etorkinekin komunikatzea erraztuko duen itzulpen- eta interpretazio-sistema eskain dadin.	X	X	X	X
4.3.3.5. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak, elkarteak, etorkinen erakundeak, etorkinentzako erakundeak, etorkinentzako elkarteak eta abar sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean, betiere solasaldien, mintegien, hedabideetako esku-hartzeen eta abarren bidez.	X	X	X	X
4.3.3.6. Autonomia Erkidegoko segurtasun-langileak (ertzainak eta udaltzainak) sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean, betiere Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestakuntza-taldeen prestakuntzaren bidez.	X	X	X	X
4.3.3.7. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-saioak eskaintzea, baldin eta hartzaile nagusiak atzerriarrak, arrazializatuak edo etniaren eta kulturaren aldetik askotarikoak diren pertsonak badira.	X	X	X	

4.3.3.8. Transferitu berri den espetxe-eskumeneko langileak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharretan eta etorkinen gizarteratzean.	X	X	X	X
4.3.3.9. Zurrumurruen Aurkako Sarearen (ZAS) laguntza ekonomikoa. Sare horrek atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen zuzendutako estereotipo faltsuen eta aurreiritzien aurka borrokatzen du, baita diskurtso arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileen aurka eta berdintasun handiagoko gizarteraren alde ere.	X	X	X	X
4.3.3.10. Kulturartekotasunaren ikuspegia ikusaraztea eta integratzea Zuzendaritzaren, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalean.		X		
4.3.3.11. Jardunbide egokiei buruzko akordioa sinatzea hedabideekin, herritartasunaren, kulturarteko elkarbizitzaren eta immigrazioaren arloan mugak ezar daitezzen, betiere eskubide-berdintasunean oinarritutako iritzi publiko informatua eta errespetuzkoa eraikitzeari dagokionez.	X			
4.3.3.12. Zuzendaritzak maila goreneko agintari publikoei laguntzea atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonentzako kultura-, kirol- eta gizarte-agerpen garrantzitsuetan eta data garrantzitsuetan, besteak beste.	X	X	X	X
4.3.3.13. Udalerrian edo auzoan ekintza proaktiboak sustatzea, tokiko kolektiboen arteko interakzioa sustatzen dutenak, espazio partekatuak sortzen dituztenak eta kultura-aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituztenak.		X	X	
4.3.4. Hizkuntza-esparrua				
4.3.4.1. Udalerrian edo auzoan, euskara atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleengana hurbiltzeko ekintzak sustatzea, baita tokiko kolektiboen arteko interakzioa bultzatzen duten ekintzak eta eremu partekatuak sortzen dituzten eta hizkuntza-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruko gizarte-topaketak sustatzen dituzten ekintzak ere.	X	X	X	X
4.3.4.2. HABErekin lankidetzak hitzarmena berrabiaraztea, atzerritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatzeko.	X			
4.3.4.3. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-kudeaketaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan elkarrekin lan egitea, migrazioen arloan lan egiten duten udal- eta foru-teknikariei zuzenduta.	X	X		
4.3.4.4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-kudeaketaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan elkarrekin lan egitea, etorkinen erakundeei eta etorkinen errealitate soziala hobetzeko lan egiten dutenei zuzenduta.	X	X		

4.3.4.5. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzak, euskararen autoikaskuntzarako aplikazioa hedatzeko, betiere atzeritar jatorriko, etorkiko eta/edo nazionalitateko pertsonen artean euskararen ezagutza sustatuko duen neurri gisa.	X	X		
4.3.4.6. Hizkuntza-alderdiei eta immigrazioari buruz hausnartuko duen lantaldea sortzea autonomia-, udal- eta foru-teknikariekin.	X	X	X	X
4.3.5. Osasun-esparrua				
4.3.5.1. Atzeritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonen osasun-arreta eskuratzeko aukera bera dutela agerian uzten duten datuak bilatzea edo, bestela, horretarako ezarritako neurri zuzentzaileak aztertzea, Osasun Sailarekin, elkarte-sarearekin eta unibertsitateekin elkarlanean.			X	
4.3.5.2. Osasun Sailari helaraztea mendekotasun-egoeran dauden etorkinen arbaso berrelkartuei arreta emateko beharra.		X	X	
4.3.5.3. Osakidetzako prestakuntza-taldeak prestakuntzaren bidez, pertsonal sanitarioa eta ez-sanitarioa sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.		X		
4.3.5.4. Ikasleak eta osasun-zientzien arloko (medikuntza, odontologia, erizaintza, fisioterapia, farmazia, eta abar) unibertsitateko ikasleak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.	X			
4.3.6. Etxebizitza-esparrua				
4.3.6.1. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko egungo araudien azterketan laguntzea, eta araudi horiek kulturarteko ikuspegia barnean har dezaten egin beharreko aldaketak bidezko instantziari proposatzea.		X		
4.3.6.2. Higiezinaren sektoreko profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea ikuspegi inklusibo eta kulturartekoan, herritarren eskubide eta betebeharrak, kulturarteko konpetentzietan eta etorkinen gizarteratzean.		X	X	
4.3.6.3. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko informazio-materialak zenbait hizkuntzatan egiten laguntzea, araudia Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen osatzen duten kolektiboetara hurbiltzeko.	X	X		
4.3.6.4. Zuzendaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari laguntzea etxebizitza sozialak adjudikatzeko irizpideak aztertzen eta aldatzen (hala badagokio), eraikin, urbanizazio eta/edo hiri-eremu jakin batzuetan atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsona gehiegi kontzentratu ez dadin.		X		

4.3.7. Esparru juridikoa				
4.3.7.1. Zuzendaritzak atzerritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen laguntzeko eta aholkularitza juridikoa emateko egiten duen lana finkatzea, Aholku Sarearen zeregina hausnartu, aztertu eta hobetzearen bidetik.	X	X	X	X
4.3.7.2. Lurralde historiko bakoitzean batzordeak sortzea, egoera irregularrean dauden etorkinak gizarteratzeko etalan-munduratzeko prozesuetan laguntza juridikoa eman dezaten.	X	X	X	
4.3.7.3. Biltzen erakundearen aholkularitza juridikoko zerbitzuari eustea.	X	X	X	X
4.3.7.4. Gizarte-baliabideak eskuratzeko baldintzak eta atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen horiek eskuratzeko dituzten oztopoak —eskubide horiek aukera beretan baliatzea eragozten dutenak— aztertuko dituen txostena egitea.		X		
4.3.7.5. Bankuei atzerritar jatorriko pertsonentzat oinarritzko kontu bat irekitzeko betebeharrak gogorarazteko kanpaina egitea.	X	X		
4.3.7.6. Udalei udalerrian erroldatuta dauden atzerritar jatorriko pertsonen boto eskubidea (hala badagokie) gogorarazteko kanpaina egitea.	X			
4.3.7.7. Kirol-federazio eta -kluben eta Gobernuaren ordezkariordetzen artean bitartekaritza-lana egitea, egoera administratibo irregularrean dauden gazteak pertsona federatu gisa kirola egiteko neurri juridikoak har daitezen.	X	X	X	X
4.3.8. Laguntza ekonomikoa				
4.3.8.1. Sailak laguntza ekonomikoa ematea atzerritar jatorriko eta/edo nazionalitateko etorkinekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.3.8.2. Sailak laguntza ekonomikoa ematea atzerritar etorkiko pertsonekin eta/edo familiekin berariaz lan egiten duten entitateei eta erakundeei.	X	X	X	X
4.3.9. Ikerketa: informazioa sortzea				
4.3.9.1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek atzerritar jatorriko pertsonen inguruan dituzten pertzepzioen eta jarreraren barometroa urtero ikertzea eta hedatzea.	X	X	X	X
4.3.9.2. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten jarrerak eta posizioak lau urtean behin ikertzea eta hedatzea (2024).			X	
4.3.9.3. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoak egiten duen Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestarako (EABI 2022) ikerketa eta hedapena lau urtean behin egitea.			X	
4.3.9.4. Erroldaren azterketa ikertzea eta hedatzea: erroldaren azterketa; erroldaren alde onak eta txarrak, eskubideak eta/edo zerbitzuak balia daitezen errazteko tresna gisa; sistemaren perbertsioak; hobetzeko proposamenak; ondorio juridikoak; sarbide zaileko kolektiboak; eta abar.	X			
4.3.9.5. Informazioaren hiru sistematizazio egitea.	X	X	X	
4.3.9.6. Udal-kudeaketako zenbait eredu integraturen konparazio-azterketa egitea.	X	X		